

CONSEJO  
ESCOLAR  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
ESKOLA  
KONTSEILUA

Monografía

Jokabide-laguntza  
positiboa eta Hezkuntza  
Bereziko ikastetxeak



Consejo Escolar  
de Navarra  
Nafarroako Eskola  
Kontseilua



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

**Titulua**

Jokabide-laguntza positiboa eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak

**Kontseiluaren idazkaritza:**

M<sup>a</sup> Cruz Planchuelo Aranguren  
Ana Reclusa Burgui

Lan hau Aitortu – Partekatu Berdin 4.0 Nazioarteko Baimen baten mende dago.  
Iturria aipatzeko: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Eskola Kontseilua

**Azalaren diseinua**

Sara Soria

**Jardunaldien argazkiak**

Irati Nicolás, Diego Resano, June Úriz

**Maketazioa**

José Joaquín Lizaur

**Inprimaketa**

Imprenta Zubillaga

LG: NA 1483-2021

ISBN: 978-84-235-3597-2

**Sustapena eta banaketa**

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa

Navas de Tolosa k. 21

31001 Iruña

Telefona: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

## Aurkibidea

### **Aurkezpenak**

- 9 Unai Hualde. Nafarroako Parlamentuko lehendakaria.
- 11 Manuel Martín. Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria.
- 15 Koldo Sebastian. NHBBZko jokabide teknikaria.

### **Buruzko Jardunaldien Informazio Esparrua**

- 21 Jokabide-Laguntza Positiboari Eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeei.

### **Aurkezpenak**

- 27 Jokabide laguntza positiboa: egoera akutuak Neurobiologiatik ulertzea. Sergio Aguilera.
- 35 Jokabide Laguntza Positiboa hezkuntza ingurunean. Laura Escribano.
- 43 Jokabide-laguntza Positiboa. Erronkak eta ezagutza. Carmen Márquez.
- 49 Jokabide-laguntza positiboa: jarduteko proposamen zehatzak. Ramón Novell.
- 55 Arretaren magia. Marcos Ortega.

### **Hitzlariak**

- 59 Jokabidea eta babesteko neurri erreaktiboak. Andrés Muñoz Garde HBIP.
- 69 Bizikidetzaren kudeaketa. El Molino Ikastetxea.
- 81 Ikasleei Laguntza Integrala emateko Eredua (MAIA). Isterria HBI.
- 91 Jokabidea eta laguntza positiboko planak. Torre Monreal HBIP.

### **Mahai-Ingurua**

- 113 Hezkuntza bereziko ikastetxeak: “Nolakoak izan beharko genuke 2025ean jokabidearen alorreko premiak hobeki artatzeko?”.

### **Amaiera eta ondorioak**

- 125 Carlos Gimeno. Hezkuntzako kontseilaria.
- 129 Manuel Martín. Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria.
  
- 141 Hizkariak.

# Aurzekpena

Unai Hualde  
Nafarroako Parlamentuko lehendakaria

Nafarroako Eskola Kontseiluko buru Manuel Martin, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako zuzendari nagusi Gil Sevillano, kide parlamentarioak, bertaratuak, irakasleak, arratsalde on, eta eskerrik asko Nafarroako Eskola Kontseiluak eta Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuaren eta NHBBZ Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroaren laguntzarekin, antolatutako “Jokabide-laguntza positiboa eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeei” buruzko jardunaldien hasiera honetara etortzeagatik.

Jardunaldi hauek Foru Ganberan, 2021. urte honetan, egiten ditugun lehenak dira, eta hasiera batean, lehenago egiteko asmoa bagenuen ere, pandemiak ez digu utzi.

Horrela izanik, nire lehen hitzak Eskola Kontseiluko aurreko burua, Aitor Etxarte, duela gutxi zendu zena, gogoratzeko dira, eta adierazteko Parlamentu honek ere eskerrak eman nahi dizkiola egindako lanarengatik, hemen ere hainbat alditan azaldu ziguna (orain Manuel Martínek egiten duen bezala).

LOE legea aldatzeko Lege Organiko berriak, “LOMLOE” bezala ezagutzen denak eta Diputatuen Kongresuan duela gutxi onartu zenak, ekarri du, beste gai batzuen artean, Hezkuntza Berezitari buruz hitz egitea. Ez da jardunaldietako eztabaidagaia, baina jardunaldiok aukera emanen dute hori bai, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan nahiz beste ikastetxe batzuetan premia bereziak dituzten ikasleekin egiten den lana gehiago ezagutzeko.

Jardunaldi hauetara bertaratzeko eskaera oso handia izan da eta tamalgarria da telematikoki egin behar izatea, baina espero dugu arazorik ez izatea parte hartu nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izateko. Arazorik ez izateko, jardunaldi hauek Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren webguneen bitartez jarraitzen ahalko dira. Era berean, jardunaldi osoa jarraitu ezin duten pertsona guztientzat, gogoratu Parlamentuaren webgunean grabatuta geratuko direla.

Jardunaldi hauek eginen diren lau egunetan, Nafarroako Hezkuntza Bereziko lau Ikastetxeetan lan egiten duten pertsonak entzuteko aukera izanen dugu, baita Jokabide



Laguntza Positiboari buruz gogoeta egiteko eta gai horretan adituak diren pertsonak entzuteko ere.

Egiten denari buruzko jardunbide egokiko esperientziak ezagutuko ditugu eta jokabidearen eremuarekin lotutako premiei hobeki erantzuteko hobetu behar dugunari buruz gogoeta egiteko aukera izanen dugu.

Espero dugu jardunaldiok emankorrak izatea, pertsona askok parte hartzea eta ahal den neurrian hobetzea premia bereziak dituzten ikasleen bizi kalitatea eta ematen zaie arreta.

Nafarroa beti lehena izan da premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzean; izan ere, gure Komunitatean hezkuntza bereziko lau ikastetxe daude; horietatik bi publikoak dira (Andrés Muñoz Garde eta Torre Monreal), eta beste biak itunduak dira (Isterria eta El Molino); horietaz gain, 19 ikasgela alternatiboetan eskolatutako ikasleak daude.

Aurreko gobernuak NHBBZren eta Hezkuntza Bereziko lau ikastetxeen arteko lankidetzari jarri zuen abian, eta egungo Gobernuak ere jarraitu du lankidetzari horrekin portaera nahasmenduak edo jokabide moldakaitz nabarmenak dituzten ikasleen premiei erantzuten laguntzeko; horretarako, Jokabide Laguntza Positiboaren ikuspegi teorikoa eta praktikoa erabiltzen da. Hain zuzen ere, ikuspegi horri buruz hitz eginen dugu jardunaldi hauetan.

Eskerrak eman nahi dizkiot Nafarroako Eskola Kontseiluari, jardunaldi hauek antolatzegatik. Espero dugu, hilabete batzuen buruan, beste gai batzuk aztertuko dituzten jardunaldi batzuk iragarri ahal izatea berriro, hori baita gure erakundearen eta Kontseiluaren asmoa (eleaniztasuna), Foru Ganberak eta Nafarroako Eskola Kontseiluak sinatutako Hitzarmenean jasotzen denez.

Eta, jakina, eskerrak eman nahi dizkiet hezkuntza bereziko lau ikastetxeei eta jardunaldi hauetan, hizlari edo entzule gisa, parte hartuko duzuenoi.

Espero dut jardunaldiok emankorrak izatea eta jardunaldion helburua betetzeko balio izatea, premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaien arreta hobetzea, alegia.

Mila esker.

# Aurkezpena

**Manuel Martín**

Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria

Ongi etorri gaur inauguratuko ditugun “Jokabide-laguntza Positiboa eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak” izeneko XXV. Jardunaldi hauetara. Jardunaldiok NEK-k antolatu dituzten Kontseilu horretako buru izateko ohorea dutuz Nafarroako Parlamentuaren laguntza eskergarekin batera, bi erakundeen lankidetzaz hitzarmenari esker.

Jardunaldi hauei hasiera emateko, gure esker ona adierazi nahi diot Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko lehendakariari, bai jardunaldi honetara bertaratzeagatik, bai orain gauden areto bikain hau, ezin leku hobea, uzteagatik. NAFARROAKO PARLAMENTUA bera. Eskerrik asko, lehendakari.

Azpimarratzekoa da Nafarroako Parlamentuko ordezkaria eta Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko ordezkaria ere hemen daudela, eta aitortu nahi diegu asko poztzen gaituela horrek.

Eskertzekoa da, halaber, Gil Sevillano González Hezkuntzako zuzendari nagusia eta M<sup>a</sup> José Cortés Itarte Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzuko zuzendaria hemen egotea.

Eskerrak eman behar dizkiot, halaber, Hezkuntza Departamentuko Carlos Gimeno kontseilariari, bereziki Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaz Zerbitzuari, Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuari, Teknologiak eta Azpiegiturak, Hezkuntzaren arloko IKTak Zerbitzuari eta NHBBZri jardunaldi hauei emandako laguntzarengatik eta dedikazioarengatik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure erkidegoko Hezkuntza Bereziko Ikastetxeei (HBI), egiten duten lana oso garrantzitsua baita, eta lan horretatik atera dituzte erakutsiko dizkiguten hitzaldi magistral hauetarako ideiak. Eskerrik asko, baita ere, irakasleei eta gainerako langileei, egindako lanarengatik, bereziki pandemian.

Eta eskerrak eman nahi dizkiet Jardunaldi hauetako gainerako hizlari ospetsuei, beren analisiak eta beren ikerketen esparruan, Jokabide-laguntza Positiboan oinarritutako



hezkuntza filosofia berri honetan lortutako azterlanak aurkezteko eskaini baitute beren burua ilusioz eta konpromisoz.

Eskerrak eman behar dizkiogu Koldo Sebastián maisu, lankide eta lagunari, Jardunaldi hauen antolaketan egin duen lanagatik, bere ibilbide profesional osoan eman duen lezioarengatik, irakaspen horretan maisuki erakutsi baitigu hezkuntzaren problematikei eta giza, herritar eta bizi esanahiari buruz, batez ere hezkuntza berezian. Koldo Sebastiánek jardunaldi hauetan parte hartu izana aitzakia bikaina da gure erkidegoko irakasleen lana aitortzeko berarengan eta bere ibilbidean.

Nahiko nuke, halaber, agertoki hau eta Jardunaldi hauek Nafarroako Eskola Kontseiluko buru izandako Aitor Etxarte Berezibarri, duela gutxi zendu denari, omenaldia egiteko izatea. Merezi du, pertsonalki ez ezik, Nafarroako hezkuntzaren alde egin zuen lan guztiagatik ere bai. Agur bero bat haren familiari.

Jokabide-laguntza Positiboa (JLP) bi lan ildo batzen dituen mugimendu zientifiko bat da; lan ildo horietako bat Jokabide-analisi Aplikatuan oinarritua dago; bestea, berriz, teorikoa da eta desgaitasun intelektualen arloan deskribatutako eta garatutako balioak eta kontzeptuak biltzen ditu. Hasieran, jokabide problematikoei aurre egiteko prozedura positiboak gauzatzean oinarritutako esku-hartze bat zen JLP, jardunbide negatiboen (abertsio jardunbideen) neurrigabekeriarekin alderatuta. Urratsez urrats, teknika positiboak modu prebentiboan eta proaktiboan aplikatu behar zirela egiaztatu zen, jokabide problematikoak eragiten zituen baliokidetasun funtzional bera zuten abileziak hezteko eta indartzeko. Azkenik, ildo teorikoaren eta testuinguruaren gakoak sartu ziren, hala nola kalitatea, normalizazioa, balioak eta abar. Gaur egun, JLPk bere lehen zeregina gaingitu du, eta edozein zerbitzutan lan egiteko modu bat da, jokabide problematikorik ez dagoen testuinguruetan ere bai; izan ere, beste esparru batzuetan ere aplikatzen ari dira, hala nola eskoletan, testuinguru judizialean eta hirugarren adineko pertsonen dagokienez.

HEZKUNTZA BEHARREZKO UTOPIA DA, konpromisoa da, ilusioa da, ekitatea, gogo bizia, buru-belarri aritzea, dedikazioa da, beste ikaskidearen aniztasunarekiko errespetua da. Ez dugu ahaztu behar ikasleek elkarrekiko tolerantzia izateak, talde lanean aritzeak eta adimen emozionala sustatzeak onura handiak dakartzala.

Horiek guztiak adierazgarriak dira, enpatia eta elkarrekintza pertsonalak areagotzetzat hartuta, bai ikasgela barruan, bai ikasgeletatik kanpo.

Jardunaldien helburua zera da, jardunbide egokien trukea eta hausnarketa bideratzea gai honen inguruan: zer egiten den eta zer egin beharko litzatekeen adimen desgaitasuna duten ikasleen bizi kalitatea hobetzeko, portaera nabarmen moldakaitzak dituztenean. Horretarako, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan egiten ari diren lana erabiliko da.

Ekimen honen jatorria Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak (NHBBZ) gure komunitateko Hezkuntza Bereziko 4 ikastetxerekin 2028-19 eta 2019-20 ikasturteetan garatu duen lankidetzan dago. Oraingo honetan ere, lankidetzari hori Nafarroan dauden Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek kanpoko 19 Ikasgela Alternatiboetara hedatzen ari da.

Egindako lanaren helburua portaera nahasmenduak edo portaera nabarmen moldakaitzak dituzten ikasleen premiak artatzen laguntzea izan da, eta gaur egun ere halaxe da; horretarako, Jokabide-laguntza Positiboaren ikuspegi teoriko eta praktikoa erabili da.

Lankidetzari horren eta, bereziki, ikastetxeen arteko lankidetzaren emaitza nagusietako bat Jokabide-laguntza Positiboaren eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen inguruko Jardunaldiak izan dira.

Entzuleria honenganako emozioarekin amaituko dut, baikortasunaren eta justizia sozialaren mezuarekin, hori baita hezkuntza filosofia honen oinarria, Eskubidea Hezkuntzarekin uztartzea berezkoa baita. Egoera txarrak –adibidez, covid-19arekin bizitzea egokitzen ari zaiguna– gainditzeko dugun gaitasunean funtsatutako mezua, guztiok ideal komun batekin laztasunari aurre egiteko dugun gaitasunean, hain zuzen. Ideal hori, hezkuntzaren oinarrizko zutabea, **BESTEAK HOBEBEKI EZAGUTUZ ELKARREKIN BIZITZEN IKASTE** DA.

Utopia horretatik jarraitu behar da: espiritu sozial berri baten oinarri izanen den hezkuntza sortzailea lortzea.

Jacques Delors politikariak, 1996. urtean, XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeko buru zenean, UNESCOri egindako txostenean jaso ziren hitzetan, honela zioen: “Bizitza osoko hezkuntzak lau oinarri ditu eta altxor bat gordetzen du. Hauek izan behar dute oinarri horiek:

- Ezagutzen ikastea.
- Egiten ikastea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea.
- Izaten ikastea.

Jarrai dezagula, guztion artean, hezkuntza filosofia hori bultzatzen, modu eraginkor eta errealean ezartzeko ikasgeletan, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea lortu ahal izateko, horretarako erabakigarria izanik hezkuntza inklusioa eta hezkuntza ekitatea eraikitzea.

Berriro ere, NEKek eskerrak eman nahi dizkizue zuen arreta eta parte-hartze ardura-tsuarengatik, eta Jardunaldi hauek guztiok aberasteko izatea nahiko genuke.



# Aurkezpena

**Koldo Sebastian**  
NHBBZko jokabide teknikaria

## **Isterria HBI. Urtarrilak 22** **“Jokabidea eta laguntza integrala”**

José Andrés Burguete (Zuzendaria) eta Alicia Azcona (Orientatzailea)

Nafarroako Eskola Kontseiluko buruak aipatu duen bezala, 2018an NHBBZ berariazko lankidetza garatzen hasi zen Nafarroako Hezkuntza Premia Bereziatako lau Zentroekin, haiei laguntza tekniko eskaintzeko asmoz, jokabide nahasmenduak edo jokabidea egokitzeko zailtasun larriak erakusten dituzten ikasleen premiei erantzuteko.

Lankidetza horren orduko erreferentea Jokabide Laguntza Positiboaren planteamendua izan zen, eta gaur ere hori bera da; inspirazio iturria izan zen, baita ere, premien detekzioa, eta era berezian gauzatu zen zentro bakoitzean, jarduketaren eremu horretan nabarmentzen ziren lehentasunak identifikatzeko asmoz.

Horien ondorioz, ekimen hau bere eginahala zentratzen ari da berariazko egitura horien egokitzapena sakontzen eta indartzen, haien ikasle guztien gaitasun egokitzalea sustatzeko eta beren eguneroko bizitzaren kalitatea hobetzen laguntzeko.

Horrek eskatu digu zentrozen artean hainbat elkarlan zehaztea eta testuinguru bakoitzaren arabera diseinatzea, lau ildo nagusiren gainean bermatuta.

- Horietako bat da jokabide egokitzapenerako zailtasun larriak dituzten ikasleei dagozkien egoera zehatzak aztertzea.
- Beste bat da arlo horretako jardunbide egokiekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza.
- Hirugarrena, berriz, eginahal sistematikoa eta koordinatua egitea da jokabide egokitzalea sustatzeko jarduketaren arloan, eta hezkuntza komunitate osora zabaltzea ekimena.
- Eta azkena lotzen da orain entzun behar dugun hitzaldiarekin, izan ere, honen asmoa da prebentzioaren ikuspegia indartzea, eguneroko lanaren antolakuntzari eta metodologiari buruzko gogoeta eginez eta jarduketak proposatuz.



2018-19 ikasturte horretan bertan, Isterria HBZk abian jarri zuen adimeneko desgaitasuna eta osasun mentaleko patologia dituzten pertsonen inguruan zerabilen jarduketa berrikusteko proiektu bat. Asmo horren ardatza zen “Ikasleen Laguntza Integralerako Eredu” berri bat ezartzea, ILIE akronimoan biltzen dena.

Ondoren entzunen dugunez, pertsonan zentratutako laguntza eredua da, diziplina artekoa eta prebentzioa lehenesten duena. Modelo holistikoa da:

- Aldagai anitzeko ebaluazio prozesua erabiltzen du, eta kanpo nahiz barne koordinazio handiagoa eta hobea lantzen du.
- Prestakuntza eta espezializazio bereziko lantaldeak osatzea ekartzen ari da.
- Laguntza handia ematen ari zaio ikastetxean bertan sortutako Komunikazio eta Jokabide Departamentuaren aldetik.
- Eta era berean, familia jotzen du laguntza prozesuen funtsezko osagaitzat.

Horrenbestez, hitz egiteko txanda ematen diet José Andrés Burguete Isterria HBZko zuzendariari eta bertako orientatzaile Alicia Azkonari, aurrera eramaten ari diren asmo handiko lan ausartaren berri eman dezaten.

Lan horren edukiak egiturazko balio oso handiko eredua eskaintzen du, hainbat neurri berritzaile proposatzen dituena, Jokabide Laguntza Positiboaren funtsezko alderdiak lantzeko.

Aukera aprobetxatu nahi dut Isterriako hezkuntza komunitate osoari eskertzeko lan partekatu hau ulertzeko erakutsi duzuen eskuzabaltasun eta inplikazioagatik, eta bidenabar animoa emateko, erronka estrategiko berriak planteatzen jarraitzeko, laguntzarik gehien eskatzen duten ikasleen onurarako, zalantzarik gabe erreferenteak direlako gure hezkuntza sistemarentzat.

## **El Molino HBI. Urtarrilak 23** **“Jokabidea eta Bizikidetza - Tratu ona”**

Elvira Lacunza (Zuzendaria) eta Beatriz Arbilla (Ikasketa burua)

Hezkuntzaren testuinguruan “jokabide arazotsu larriak” deitzen ditugunak agertzen direnean, kalterik handienetakoa jasaten duten alderdietako bat zentroa osatzen dutenen arteko bizikidetza da. Era berean, lagun arteko elkar eragintzak positiboak eta harreman giroa samurra direnean, portaera prosoziala eta jokabide egokitzailak naturaltasunez eta indarrez agertzen dira inguru horretan.

Beraz, begien bistakoa dirudi, “bizikidetzaz” ari garenean, prebentzioaren eta erregulazioaren ardatz nagusietako bat aipatzen ari garela, gure zentroetan agertzen diren jokabide erasokorrei dagokienez.

Ziurrenik, bat etorriko gara esatean “bizikidetza” hitzak adierazten duela “enpatia, errespetua, konfiantza, dibertsitatea, gizarteratzea, baliokidetza, elkartasuna, tolerantzia, erantzukizuna, komunikazioa, zintzotasuna” ... Zaila da hitzaren egiazko esanahia ulertzea osagai horiek guztiak gogoan hartu gabe.

Giza talde guztietan, bizikidetza elkarren artean eratutako harremanen emaitza da, etengabeko mantentze lana eskatzen duena. Ez da aski nahi izatea, sustatzea eta maila onargari batera eramatea. Ondoren, zaindu behar da, kontuz eta jarraitasunez, taldeko kide guztiei sentiarazteko ezinbesteko osagaiak direla “gizarte osotasun” horretan.

Elkarren ondoan bitzete soila ez baita elkarrekin bitzetea. Bizikidetza gogobetegarriak sinbiosira eramaten du, komunitate ongizate batera, sentiberatasunez erantzuteko gauza dena, kide batek kalterik txikiena jasan orduko. Ez da erraz lortzen, baina eragin nabarmena izaten du. Horregatik da goren mailako helburua, eta hara iristea meritu handiko gauza.

Pertsona guztiek egokitzeko gaitasuna irabazten dute ongi daudenean: “Ongi naize-nean, hobe naiz”. Pertsona bakoitzaren oreka fisikoa, kognitiboa, emozionala eta soziala ekarpen ordezkazina da “homeostasi kolektiboarentzat”. Jokabide egokitzaila erakusten duenak bere premiak aseak dituela adierazten du, eta harmonia pertsonal horretatik eragiten du testuinguruan. Jokabide arazotsuak erakusten dituenak, berriz, bistan denez, arazoak ditu, ase ez dituen premiak dituelako. Eta inguruan dituenengana zabaltzen du bere premia edo zailtasuna.

“Bizikidetza” ongizate integrala partekatzea da, talde laguntzaren dinamika erabiliz. Horregatik da hain garrantzitsua, ezinbestekoa esanzen nuke nik, ahal den sakonen aztertzea ikastetxeetako “bizikidetza”.

Eta hori da El MOLino HBZ hasieratik egiten ari dena. Ibilbidean iragan dituen etapa guztietan egindako lanari esker, bizikidetza bihurtu du bere hezkuntza lanaren ardatzetako bat.

Ondoren ezagutuko duguna zentroaren historian errotutako lana da. Lan sakona da, kontzientzia handiz egindakoa, funtzionala, eraginkorra eta berritzeko gaitasuna duena, etikatik gidatutako planteamenduen bitartez. Zalantzarik gabe, prozesu bizia da, ezagutzea merezi duena.

Elvira Lacunzak, El Molinoko hezkuntza zuzendariak, eta ikasketa buru Beatriz Arbillak azalduko digute lan zehatz, sistematiko eta zeharkako hau.

Eskerrak eman nahi dizkizuet gaur hemen egoteko egin duzuen eginahalagatik. Eta eskerrak El Molinoko hezkuntza komunitate osoari ere, zuen konpromisoagatik, eta egunero hobetzeko erakusten duzuen gogoagatik.

## **Torre Monreal HBIP Urtarrilak 29** **“Jokabidea eta Laguntza Positiboko Planak”**

Abel Zardoya (Ikasketa burua)

2010ean Deanne Cronek egindako zenbatespenen arabera, ikasleen % 80ren bat izanen dira jokabidearen erregulazioan maila onargarria lortzen dutenak, neurri arruntak eta unibertsalak aplikatuta. Beste % 15 batek, ordea, helburu hori bera lortzeko, neurri arruntak indartu behar ditu, eta estrategia osagarriak sartu behar izaten du, gehienetan taldeari dagozkionak, arazoa areagotzeko arriskuak ahal den gehien murrizteko. Gainerako % 5ak, banakako programa intentsiboak behar izaten ditu, bere jokabidea egokitzea lortzeko eta agertzen zaizkion jokabide arazo larriak gaingintzeko.

Hezkuntza Bereziko Ikastetxeei ez zaizkie arrotz azterlan horren emaitzak, eta horregatik, egokitzapen falta larriko jokabideen aurrean, ebaluazio eta analisi sakonak eta zehatzak abiatu behar dituzte, haietatik eratorri ahal izateko berariazko esku-hartzeak, berezitasun maila altuekin planteatuak. Premia larriago eta konplexuago horiei aurre egiteko, sen ona aplikatzea ez da aski izaten. Izan ere, portaerarik larriek adierazten dituzten premia gainerako pertsonak dituztenen antzekoak izaten badira ere, horiek asetzeko behar izaten dituzten laguntzak ohikoaren gainetik egoten dira, ez ohikoak izaten dira maiz, eta kasurako propio atondutakoak izatea eskatu ohi dute.

Ildo horretatik, jokabiderik sofistikatuenak erakusten duten gure ikasleen segmentuak ez ditu aski izaten neurri generikoak, planteamendu estandarretatik eratorritakoak, edo ohiko ikuspegietatik landutakoak. Behar izaten duena banakako eta ongi programatutako jarduketa izaten da, oro har planteamendu berritzaile eta dibergenteekin aberastua, eta gaitasuna izanen duena erantzun sortzaile bat emateko, antolakuntzaren eta metodologiaren ohiko eruedetatik at.

Ikasle mota horrekin, beste inorekin baino gehiago, zerbait beharrezkoa badugu eta eskura ez badugu, geuk asmatu beharko dugu.

Jokabide Laguntza Positiborako Planak, beraz, bere konplexutasunagatik erronka egiten digun egoera ekarri duten premien eta inguruabarren neurrira egindako jantziak dira. Hemen ez du balio “prêt à porter” delakoak, goi mailako jostuntza planteatu behar da.

Baina ez dira eredu bakar batzuen araberako jantzi-jostunak. Tresnak ere badira, erabakiak hartzean gidatzen gaituztenak, eta horiek egiaztatu, sistematizatu eta ebaluatzea errazten dutenak, eta horrez gain, ikasle zehatz baten inguruan lanean ari diren profesional guztien arteko lankidetzeta sustatzen dute.

Jokabide Laguntza Positiboko Planak, azken finean, kontzientzia hartze indibiduala, taldekoa eta sistemikoa lortzeko tresna dira, eta haietatik abiatuta eraginkorragoa da jardunbide profesional egokiak gauzatzea eta, beraz, bitzta horren kalitatea hobetzea.

Torre Monreal HBlan apustu sendoa egiten ari da esku-hartzea ulertzeko modu dokumentatu honen alde, eta bere programazio erdua ikuspegi horretatik berrikustera

ere eraman du bide horrek. Era berean, egindako lanaren koordinazioa eta jarraipena malgutasun eta irazkortasun handiko eskema-eredu batean oinarritzen ari dira, eta horrek aukera ematen die, gainera, lanbide arteko funtzionamendu uztartua areagotzeko.

Orain Abel Zardoyarekin uzten zaituztet, ikastetxe honetako ikasketa burua eta erreferentziatzeko pertsona gai honetan, hark deskribatuko baitigu nola eratzen dituzten Joka-bide Laguntza Positiborako Planak, eta garrantzi handiko beste gauzan bat, alegia, hori egiteko nola antolatzen diren.

Baina horren aurretik, eskerrak eman nahi dizkizuet Torre Monrealeko lankideei, zuen ikastetxeko kohesio funtzionalaren maila goratzeko eta zehaztasunaren kultura egunerokoaren naturaltasunetik sustatzeko egiten ari zareten eginahalagatik.

### **Andres Muñoz HBIP. Urtarrilak 30 “Jokabidea eta babesteko neurri erreaktiboak”**

Charo Casas (Orientatzailea) eta Miriam Hernández (Pedagogia terapeutikoko maistra)

Sakontasun handiko prebentzio lana eta Jokabide Laguntza Positiboko Planak beharra duen egoeraren arabera diseinatzea gakoak dira jokabide desegokitu larriena erakusten duten ikasleen arreta antolatzeko unean. Hala ere, guztiok dagikunez, zentzu horretan aplikatutako ikuspegi bikainenak ere ez du gaitasunik arrisku maila handi samarrak dakartzaten egoera kritikoak agertzea galarazteko.

Muturreko egoera horiek, askotan, beren burua edo ondokoa erasotzeko jokabideekin lotuta agertzen dira, eta esku-hartzeko agertokirik zailenetako baten aurrean jartzen gaituzte gu, profesionalok. Gertakari horiek ez dira bakanak, gero eta maizago agertzen dira, eta tentsio, estres eta babesgabetasun mailarik handienak ekartzen dituzte, eta paradoxikoa bada ere, horiexek eskatzen dute esku-hartzerik zentratuena, neurtuena eta doituena.

Errealitate hori hor dago, eta bihar ere hor egonen da. Baina hori ez da kontua. Garrantzitsuena da argitzea ea zer egin behar dugun, ikuspegi praktikoa, teorikoa eta etikoa batetik, planteatu beharreko helburua lortzeko gai kezagarri honen inguruan: babesa.

Izan ere, larritasun eta lehentasunik handiena duen helburua hau da: jokabide larrien igoera bera bere buruarengandik “babeatea”; ondokoak erreazio horietatik “babeatea”; eta horiek bideratzeko esku hartzen duten pertsonak “babeatea”. Eta zaintza horrek ekarri behar du, gutxienik, kontzeptuen eta metodoen birmoldaketa, egoera kritiko horietarako behar diren prozedurak planifikazioaren eta lan koordinatuaren eremuan errotzeko.

Izan ere, esku-hartze sendo batek protokolo egokiak, ongi zehaztuak, onetsiak eta ebaluatuak behar ditu, eta hori da berme bakarra jarduketara bat-batekoa eta desartikulatua izan ez dadin; horren bitartez lagunduko diogu gogoko egoera berreskuratzen bere buaruaren kontrola galtzen duen pertsonari.

Ohikoa da, eta normalduta dago, osasun edo gizarte eremuetan krisi egoerei erantzuteko esku-hartzeko protokoloak izatea. Eta bitxia da, izan ere, gure testuinguruan, hezkuntzan ere, arautua izatea, adibidez, ebakuazio planak prestatzea eta simulazioak egitea, hala eskatzen duten gertakizun larrietarako... Eta hori horrela bada, zergatik ez du izanen zentro batek arazoari aurrea hartzeko mentalitate hori bera, gertakizun horiek

buruaren kontrol galtze larriei lotutako egoera kritikoak direnean? Begien bistakoa dirudi gai horrek gogoeta sakona behar duela, bide puska bat ibili behar baitugu, gertaera horien aurrean emanen den laguntza profesionalak behar bezalako prestakuntza, entrenamendua eta arau esparrua izan ditzan.

Zorionez, hainbat lagunek heldu diote erronka horri, ondoren egiaztatu ahal izanen dugunez. Charo Casas Andrés Muñoz HBZko orientatzaileak eta Miriam Hernández ikastetxe bereko Pedagogia terapeutikoaren maistrak aurkeztuko digute arlo horretan egiten ari diren lana. Lan hori ikuspegi errealista, zintzo eta burutsu batez egin da, eta balio utziezinetatik, esaterako esku-hartze babeslea jasoko duen pertsonarekiko erabateko begirunetik, esku-hartzearen jardunbidea bermatzeko oinarri bat eskaintzen du. Nire aitormenik zintzoena duzue, halako gai hunkigarria planteatzean erakutsi duzuen zorroztasun teknikoagatik eta sentiberatasunagatik.

Eta eskerrik asko Andres Muñoz HBZko hezkuntza komunitateari ere, heldu diren zailtasun handiei aurre egiteko erarik egokiena analisiak partekatzea, indarrak biltzea eta espiritu eraikitzailea izatea dela berretsi duzuelako.

# “Jokabide-Laguntza Positiboari Eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeei” Buruzko Jardunaldien Informazio Esparrua

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 22, 23, 29 eta 30ean

Foro hau kokatzen eta bertan azaldu behar duten eduki teknikoak ardatzen eta koordinatzen lagunduko duen informazioa emate aldera, haren testuinguruan kokatzen laguntzen ahal duten ekarpen batzuk aipatuko ditugu jarraian:

- 1 Jardunaldien helburua zera da, jardunbide egokien trukea eta hausnarketa bideratzea gai honen inguruan: zer egiten den eta zer egin beharko litzatekeen adimen desgaitasuna duten ikasleen bizi kalitatea hobetzeko, portaera nabarmen moldakaitzak dituztenean. Horretarako, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan egiten ari diren lana erabiliko da.
- 2 Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia arduratu da haiek antolatzeaz, Foru Komunitatearen eremuan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean ukitutako gizarte sektore guztiendako kontsulta eta parte-hartze organo gorena den aldetik. Jardunaldi horien garapena erakunde horrek Nafarroako Parlamentuarekin duen lankidetzaren hitzarmenaren barruan sartzen da.
- 3 Ekimen honen jatorria Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak (NHBBZ) gure komunitateko Hezkuntza Bereziko 4 ikastetxerekin 2018-19 eta 2019-20 ikasturteetan garatu duen lankidetzan dago. Oraingo honetan ere, lankidetzaren hori Nafarroan dauden Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen kanpoko 19 Ikasgela Alternatiboetara hedatzen ari da.

Egindako lanaren helburua portaera nahasmenduak edo portaera nabarmen moldakaitzak dituzten ikasleen premiak artatzen laguntzea izan da, eta gaur egun ere halaxe da; horretarako, Jokabide-laguntza Positiboaren ikuspegi teoriko eta praktikoa erabili da.

**Egitura bakoitzaren premiak eta lehentasunak identifikatu ondoren, honako hauek dira ikastetxe barruan garatutako lan ildoak:**

- **1. ildo.** HBI bakoitzeko jokabide arazo larriekin lotutako esku-hartze premiei erantzutea. Horrek esan nahi du alde aurretik informazioa bildu behar dela eta hausnarketak, analisiak eta lan hipotesiak eskaini behar direla, esku-hartze partekatuko ereduaren oinarri izanaren diren hezkuntza jarduketako gomendioak egiteko. Ildo honek bi bide osagarri ditu:
  - Egoerei eta ikasleei lotutako bidea, dagokion kasua elkarrekin aztertze.
  - Ikastetxeetako profesionalek, aztertze hautatutako kasuistetatik kanpo, planteatutako zalantza zehatzen inguruko aholkularitza irekiko saioak egiteko bidea.
- **2. ildo.** Arreta globalari buruzko aholkularitza, portaera nabarmen moldakaitzen eremuari lotutako premiei, ikastetxe gisa, ematen zaiena, jokabide horiek prebentzeko gaitasuna handitu ahal izateko antolamendu eta metodologia neurriak bereziki azpimarratuz. Horrek eskatzen du barne foroak (batzorde espezifikoak) sortzea, lehentasunetzat hartzen den interes fokua sakonago aztertze eta azterketa aplikagarria egiteko.
- **3. ildo.** Irakasleei eta irakaskuntzaz kanpokoei prestakuntza ematea portaera nabarmen moldakaitzaren esparruan esku hartzeko jardunbide egokiekin lotutako alderdi espezifikoiei –nola prebentiboei hala erreaktiboei– buruz, gaitasun teknikoak handitzeko eta lanbide funtzioak ahalik eta ongien betetzea ahalbidetzen duten gaitasunak eta jarrerak aberasteko.
- **4. ildo.** Arestian deskribatutako ildoetako dokumentu garapena erraztuko duten materialak eskaintzea eta baliabide eta tresna didaktikoak sortzea. Horren bidez, idatzizko irudikapenaren ohituretan eta erregistroan sakondu nahi da, arlo horretan zorrotasun eta sistematizazio parametroak areagotzeko.
- **5. ildo.** Lankidetzaz zabaltzea eta HBIekin lotutako familia eremura transferitzea.
- **6. ildo.** Moldatze portaeraren sustapenaren inguruan ikastetxeetan egindako praktika zehatzei lotutako ikerketarako eta ekintzarako prozesua abian jartzea.

**Ikastetxe barruko jarduerarekin batera, ikastetxeen arteko lana ere egiten ari da, eta horrek esan nahi du guztien onurarako partekatzen ahal diren ekimenak komunitatean aurkeztu behar direla. Orain arte elkarrekin egindako bilerekin edukia eman dieten ardatz nagusiak honako hauek dira:**

- **1. ardatza.** «Jokabidea eta Laguntza integrala». **Isterrria HBI.** Edukiaren ardatza 2018-19 ikasturtean hasitako proiektu bat da, desgaitasunaren eta osasun mentaleko patologia dituzten pertsonendako prestakuntza eta arreta programa indibidualen berrikuntzan oinarritua, eta «Ikasleendako Laguntza Integralerako Eredu» (ILIE) berri bat ezarri nahi du. Pertsona ardatz duen laguntza da, diziplina anitzekoa eta prebentzioan ardaztua, krisian esku hartzean baino gehiago. Eredu sistematizatua; ebaluazio prozesu egokitua; barne eta kanpo koordinazio handiagoa eta hobea; lantalde prestatu eta espezializatuak; eta ikastetxeko Komunikazio eta Jokabide Departamentuaren laguntza sendoa dituen. Familia ere kontuan hartzen duen eredu, laguntza prozesuen funtsezko alderdi gisa. Proiektu honen garapen teknikoak, funtsean, profesional anitzeko talde baten bidez egitu-



ratzen da. Talde horrek elkarrekin eta koordinatuta lan egiteko modu bat sendotzen du, ikasle bakoitza, bere ezaugarriak eta bere ingurune hurbilena kontuan hartuta, eta beti bere bizi kalitatea hobetzea izanik helburua.

- **2. ardatza. “Jokabidea eta Bizikidetzatratu ona”. El Molino HBI.**  
Ikastetxeak 2004tik gaur egun arte jarraitutako prozesuan jartzen du arreta. Prozesu horrek 2006-07 ikasturtean izan zuen lehen inflexio puntua, informazioa metodikoki biltzen hasi zen eta eskola bizikidetzatratu osasungarria sustatzeko helburua zuen. Aldi berean, ondorengo urteetan, kalitate auditoria bat egin da, EFQM eredu, enpresa bikaintasuneko. Denbora horretan, dokumentazioa berrikusi eta eguneratu da, gizartearen eta hezkuntzaren errealtatea kontuan hartuta. 2016an Auditoria Etiko bat hasi eta 2019ra arte iraun zuen. Bukatzeko, Batzorde Etiko bat sortu zen, dilema jakin bat eragiten duten gatazkei erantzuteko. Ikuspegi horretatik lan egiten jarraituz, ikastaro hau Erabateko Inklusiorako proiektu nazionalaren parte izan da, “Tratu onaren alde lan eginez”. Proiektu horren helburua desgaitasun intelektuala edo garapeneko duten pertsonen buruzko aurreiritzien eta halako pertsonen kontrako diskriminazioaren aurka sentsibilizatzea eta borrokatzea da, tratu txarraren prebentzioaren eta tratu onaren sustapenaren esparruan.
- **3. ardatza. “Jokabidea eta Laguntza Positiboko Planak”. Torre Monreal HBIP.**  
“Jokabide-laguntzarako plana” kontzeptua azpimarratzen du, eta profesionalak egiten dituzten ahaleginek espero ziren emaitzak ematen ez dituztenean eta ikasleen egoera larriak hobetzeko eskatzen denean martxan jartzen den neurritzat hartzen da. Horretarako, esku-hartze espezifiko bat diseinatu behar da; hori lortzeko, ezinbestekoa da esku hartzen duten agenteei buruzko eta hainbat gairen gaineko erabakiak hartzea, hala nola ingurumen aldagaien kontrola, programa indibiduala, aplikatuko diren ondorioak; edo haien bizimoduan kontuan hartu behar diren alderdiak. Plan horiek egitearen ondorioz, egungo programazio eredu beraztertu da, dokumentatutako sistematizazioa indartu da eta egindako lanaren koordinazioa eta jarraitutasuna hobetzen lagundu da. Planaren garapenak bost fase ditu: plan baterako hautagaiak identifikatzea; ikaslearen informazioa biltzea; haren jokabidearen analisi funtzionala; jarduketa profesionala antolatzea Jokabide-laguntza Positiboko Talde gisa; eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- **4. ardatza. “Jokabidea eta babesteko neurri erreaktiboak”. Andrés Muñoz HBIP.**  
Portaera nabarmen moldakaitzetarako “Esku Hartzeko eta Ebaluatzeko Protokolo” baten bitartez egituratzen da eta Hezkuntza Komunitate osoa inplikatu nahi du. Alderdi ugari hartzen ditu aintzat, hala nola prebentzioa eta egoera larrietan jardutea. Fase bakoitzean eskatzen diren jardueretarako “erreminta kutxa” batekin osatzen da, hezkuntza ekintza ahalik eta gehien pertsonalizatzeko. Oso garrantzitsua da ebaluazioaren atala; zehazki, esku-hartze zehatzak eta protokoloaren beraren funtzionamendua baloratzea. Honako hauek lortu nahi dira horren bidez: begirada zintzo eta gogoetatsua ahalbidetzea, ikuspegi globala eta argia izaten lagunduko duena; jarduketak jardunbide egoki, objektibo, errespetuzko, duin eta eraginkorren errepertorio batean oinarritzea; egoera nahaspilatsuenetan inplika-

tutako pertsona guztiei babesa emanen zaiela bermatzea; gertaera korapilatsuenak benetako ikaskuntza iturri gisa bizitzen laguntzea, zehapen ereduak eta konponbide inprobisatuak gainditze aldera; eta halako esku-hartzeek eskatzen duten beharrezko araudiaren oinarri izatea.

- 4 Lankidetzaren horren eta, bereziki, ikastetxeen arteko lankidetzaren emaitza nagusietako bat Jokabide-laguntza Positiboari eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeei buruzko Jardunaldiak izan dira, hain zuzen ere. Hona hemen jardunaldion programa:

**Lehen Eguna. Urtarrilak 22, ostirala. 17:30etik 20:30era**

- Irekiera: Unai Hualde (Nafarroako Parlamentuko lehendakaria) eta Manuel Martín (Nafarroako Eskola Kontseiluko burua) (30 minutu).
- Hitzaldia: "Jokabidea eta Laguntza integrala" (Ordubete). Isterria HBI. Jose A. Burguete eta Alicia Azkona Aurkezlea: Koldo Sebastián (NHBBZ).
- Hitzaldia: "Jokabide-laguntza Positiboa: gaur egungo egoera eta etorkizunerako aukerak" (Ordubete). Carmen Márquez. Aurkezlea: Gil Sevillano González (Hezkuntzako zuzendari nagusia).
- Iritzi truke irekia (30 minutu). Gidaria: M<sup>a</sup> José Cortés (Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendaria).

**Bigarren Eguna. Urtarrilak 23, larunbata. 9:30etik 14:00etara**

- Hitzaldia: "Jokabidea eta Bizikidetzaren tratua". (Ordubete). El Molino HBI (Beatriz Arbilla) Aurkezlea: Koldo Sebastián (NHBBZ).
- Hitzaldia: "Jokabide-laguntza Positiboa: jarduteko proposamen zehatzak" (Ordubete). Ramón Novell. Aurkezlea: Manuel Martín (Nafarroako Eskola Kontseilua).
- Iritzi truke irekia (30 minutu). Gidaria: M<sup>a</sup> José Cortés (Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendaria).

Atsedena (30 minutu).

- Mahai ingurua: "Hezkuntza Bereziko ikastetxeak: "Nolakoak izan beharko genuke 2025ean jokabidearen alorreko premiak hobeki artatzeko?" (Ordubete). José Andrés Burguete, Elvira Lacunza, José Luis Gamén eta M<sup>a</sup> Carmen San Miguel (Nafarroako lau HBIetako zuzendariak). Aurkezle eta moderatzailea: M<sup>a</sup> José Cortés (Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendaria).
- Iritzi truke irekia (30 minutu). Gidaria: M<sup>a</sup> José Cortés (Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendaria).

**Hirugarren Eguna. Urtarrilaren 29, ostirala. 17:30etik 20:30era**

- Hitzaldia: “Jokabidea eta Laguntza Positiboko Planak” (Ordubete). Torre Monreal HBIP. Aurkezlea: Koldo Sebastián (NHBBZ).
- Hitzaldia: “Jokabide-laguntza Positiboa: koordinazioa eta sistematizazio operatiboa” (Ordubete). Laura Escribano. Aurkezlea: Gil Sevillano González (Hezkuntzako zuzendari nagusia).
- Iritzi truke irekia (30 minutu). Gidaria: Iñaki Martínez (NHBBZren zuzendaria).
- Hitzaldia-Emanaldia: “Arretaren magia”. (30 minutu). Marcos Ortega. Aurkezlea: Iñaki Martínez (NHBBZren zuzendaria).

**Laugarren Eguna. Urtarrilak 30, larunbata. 9:30etik 14:00etara**

- Hitzaldia: “Jokabidea eta babesteko neurri erreaktiboak” (Ordubete). Andrés Muñoz HBIP (Charo Casas eta Miriam Hernández). Aurkezlea: Koldo Sebastián (NHBBZ).
- Hitzaldia: “Jokabide-laguntza Positiboa: egoera akutuak neurologiatik ulertzea” (Ordubete). Sergio Aguilera. Aurkezlea: Manuel Martín (Nafarroako Eskola Kontseilua).
- Iritzi truke irekia (30 minutu). Gidaria: Iñaki Martínez (NHBBZren zuzendaria).  
Atsedena (30 minutu).
- Jardunaldien ondorioak eta amaiera Carlos Gimeno Hezkuntzako kontseilariaren eta Manuel Martín Nafarroako Eskola Kontseiluko buruaren eskutik.
- 4 HBIetako bideoak. (45 minutu). Aurkezleak: HBI bakoitzeko ikasle bat eta profesional bat.

# Jokabide laguntza positiboa: egoera akutuak Neurobiologiatik ulertzea

**Sergio Aguilera Albesa**

Pediatra eta haurren neurologoa. Neuropediatriako Unitatea. Pediatria  
eta Arlo Espezifikoen Zerbitzua Nafarroako Ospitalegunea  
saguilea@navarra.es

Autorregulazioa, bulkaden kontrola eta buru zalutasuna funtzio exekutiboak dira, eta lobulu frontalen osotasunaren eta haiekin lotutako garuneko egituren mende daude. Adimen desgaitasun eta autismo larrietara eramaten duten garuneko lesioek eta nahasmendu genetikoek funtzio exekutiboak aldatzen dituzte eta jokabide eta autorregulazio arazoak sor ditzakete. Jokabide laguntza positiboa eta eguneroko zereginak egin bitartean laguntzea funtsezkoak dira autokontrola garatzeko.

**Hitz gakoak:** lobulu frontalak; funtzio exekutiboak; neurogarapena; autorregulazioa; neurona sare lehenetsia.

## Giza jokabidea: erreakzioak eta ekintzak

Pertsonen portaera gehienak lau kategoriaren barnean sar daitezke: erreflexuak, erreakzioak, ekintzak eta ohiturak. Oro har, lehendabizi erreakzionatu egiten du eta gero jokatu egiten dugu. Erreakzioa jatorrizkoa dugu, baina errutinak alda dezake eta ohitura bilakatu. Ohiturak txarrak izan daitezke, moldatze fisikorik, mentalik eta sozialik ez izatea eragiten duten neurrian; baina batez ere mesedegarriak dira, eguneroko bizitza sinplifikatzeko eta gure zereginak azkarrago eta modu eraginkorragoan egiteko aukera ematen digutelako (LeDoux et al. 2009).

Pavlov-en baldintzapen klasikoaren arabera, estimulu berri batek jatorrizkoa den erreakzio bat eraginen digu, baina ikasteak alda dezake erreakzio hori sortzeko ahalmena duen estimulua. Hau da, estimuluaren aurrean dugun erantzuna alda daiteke ikasiz: kontrolatzen ikas dezakegu.

Gure ekintzak, erreakzioak ez bezala, ez ditu estimuluak abian jartzen automatikoki, baizik eta helburu jakin batzuk lortzeko jokabideak sortuko dituzten estimulu jakin batzuk azaltzean jartzen dira abian. Esate baterako, hondartza batean bagaude eta olatu erraldoi



bat baldin badator guregana, gure erreakzioa geure burua babestea izanen da; alde horretatik, erreakzioa estimuluaren aurkako erantzun irmoa eta automatikoa da: neure burua babestea; eta kontrako norabidean korrika irteteko ekintza ematen dugun erantzun instrumentala da: ahalik eta modu eraginkorrean ihes egitea. Alabaina, une horretan lagun maite bat badago olatuaren aurrean, estimulua aldatu egiten da eta gure ekintza aldatu egiten da: gehienok olaturantz joan ginategi, maite dugun pertsona hori babestera. Beraz, ekintza bat modu kognitiboan kontrolatzen den eta unean-unean modu malguan hauta daitezkeen erantzun bat da, helburu bat lortzeko: zeure burua salbatzea edo lagun maite bat salbatzea.

Ikuspegi neuroanatomiko eta funtzioaletik begiratuta, sistema limbikoa (amigdala eta accumbens nukleoa, nagusiki) gure emozioak prozesatzen diren eta beldurraren aurrean ematen dugun erantzuna kokatzen den garun aldea da: Pavlov-en baldintzapen ereduak sortzen diren lekua da. Lotura handia du zentzumen areekin (entzumen area, ikusmen area eta area somatosensoriala edo ukimen area) eta oinaldeko gongoilekin, hau da, mugitzeko errutinak (ibiltzea edo idaztea) automatizatzen dituztenekin; baina baita lobulu frontalekin ere, lobulu horiek funtsezkoak baitira helburu bat lortzera bideratutako ekintzak kontrolatzeko. Izan ere, lobulu frontalen zati batek, aurreko kortez zingulatuak, amigdalari eragiten dio; mekanismo hori funtsezkoa da beldurra kontrolatzeko estimulu edo egoera jakin batzuen aurrean. Lobulu frontalen beste zati batzuek funtzio hauek dituzte: gure ekintzen plangintza eta kontrol inhibitzailea egitea eta aurreregulaziorako ahalmena, geroago ikusiko dugun bezala.

## Lobulu frontalen garapena

Lobulu frontalen funtzio nagusi batzuk eta lobulu horiek adimen desgaitasuna, autismoa edo garun lesioa duten pertsonengan duten disfuntzioa ulertzeko, giza bilakaeraren ikuspegitik, genetikaren ikuspegitik, neurona sare berrien garapenetik eta neurogarapenetik baloratuko ditugu.

### Giza bilakaeraren ikuspegitik

Giza bilakaeraren paloneurologiari eta biologiari buruzko azterlanek agerian jarri dute lobulu frontalak, bereziki kortex prefrontala, gure barne mundua eta, seguruenik, kontzientzia kategorizatze ahalmena dagoen egitura anatomikoa direla (Bruner et al., 2014). Animalia garatuenek, batez ere ugaztunek eta tximuek, kanpoko mundua kategorizatze sistema sofistikuak edukitzea lortu dute bilakaeran, eta sistema horiei esker bizirauten, elikatzen eta ugaltzen ahal izan dira eta, gainera, beren ondorengoei helarazi dizkiete irakaskuntza horiek. Horrela, zentzumenak prozesatzeaz, gure erreakzioez eta erantzun motorea emateaz (kanpoko munduari erantzutea) arduratzen diren garunaren funtzioak asoziazio eremu multimodaletan daude, lobulu parietalaren, tenporalaren eta okzipitalaren eskualdeen artean. Goi animalia horiek lobulu frontalak dituzte eta horiei esker, beren barne mundua kategoriza dezakete, baina ez talde sozial bateko kide izatetik eta taldeko arauak betetzetik haratago. Gizakia, duela milioika urte, txinpantzetik bereizten hasi zen lobulu frontalen bolumena handitzeko eta bereizteko prozesu bat hasi zuelako. Prozesu horren ondorioz, bere buruaz jabetzeko gaitasuna garatu zuen, autokontrol hobia izatearen, niaren eta ez niaren zentzuaren eta moralaren eta zigorraren zentzuaren bitartez. Aldatu zena izan zen, garapen prefrontalari esker, objektu baten edo egintza baten (gure buruan) barne irudikapenak ez zuela oinarritzko erreakzio/ekintza bat (intuziozkoa) abian jartzen, baizik eta pentsamendu horrek gure portaeraren benetako kontrola izatea lortzen zuen, guk pentsaraztea eta erabaki hobeak hartzea lortzen zuen (Goldberg, 2001). Horrek bilakaeraren ikuspegia aldatu zuen; izan ere, gure erreakzio/ekintzako jokatzearen gaineko kontrol handiagoa izan genezakeen. Azkenean erabaki genezakeen, neurri batean behintzat, zerk haserrearazten gintuen eta zerk ez, gure instintuak hobeki kontrola genitzakeen eta aurrera egin genezakeen.

### Genetikaren eta neurona sare berriak agertzearen ikuspegitik

Garapen prefrontalak, gizateriaren mugari genetiko batek, gure portaera gobernatzea ahalbidetu zigun gerta ziezagukeenaren inguruko gutxi gorabeherako kalkulu batetik abiatuta. Horri funtzio exekutibo edo "etorkizuneko oroitzapen" deitzen diogu, eta horiek garatu zuten asmatzeko, berritzeko eta ekoizteko dugun gaitasuna. Trukean, antsietate maila handia, ziurgabetasuna, sortzen zuen pertsonengan, gure izateaz jabetzen ginelako gure inguruko mundua ulertu gabe.

Duela 5-7 milioi urte, neurona sare berriak azaltzen hasi ziren gizakiaren garunean. Neurona sare horiek modu eraginkorragoan elkartzen zituzten eskualde frontal asoziatiboak atzeko eskualde asoziatiboekin. Horrela, neuronen arteko komunikazioa sustatzen zen kanpoko eta barruko munduak kategorizatze garun sistemen artean. Hori gertatu zen garun garapen handiko gene multzo bat, HAR-BRAIN (high expression of human-accelerated genes) izenekoa, agertu zelako. (Wei et al., 2019).

Gene horien adierazpenak garuneko neurona sare berriak sortzen lagundu zuen, eta horrek gure gaitasun kognitiboak abian jarri zituen. Hala ere, animalien munduan dugun gaitasun kognitibo handiaren efektore bihurtu zirenez, ahulago bihurtzen gintuen, gene horietakoren batek huts egiten bazuen. Izan ere, HAR geneetako mutazio patogenikoak (beste askoren artean, GRIN2A/B edo SYNGAP1 geneetakoak, adibidez) adimen desgaitasunarekin, autismoarekin eta epilepsiarekin lotzen dira.

Neurona sare nagusiak autorregulazioari, kontrol inhibitzaileari, arretari eta plangintzari dagokienez, 1. taulan deskribatzen dira.

### 1. taula. Funtzio exekutiboetan inplikaturako neurona sare nagusiak

Zirkuituak	Funtzioak
Frontoparietalak	Alerta, arreta, orientazioa eta estimuluei erantzutea
Frontoparietal dorsalak	Arreta eutsia, kontrol inhibitzailea, erantzunak aukeratzea, funtzio exekutiboak (plangintza)
Meso-kortiko-linbikoak	Motibazioa, sari gereratua, frustrazioa eta agresibitatea kontrolatzea
Neurona sare lehenetsia	Erreferentzia autobiografikoa, buru alderrai

### Neurogarapenaren ikuspegitik

Jaiotzean, pertsona batek neurona kopuru, neurona multzo, finko bat du, baina jaiotzatik bizitzako lehen bi urteetara arte, sorrera eta dentsitate sinaptikoaren igoera esponontziala gertatzen da, hitz egiten eta ibiltzen ikasten duen haur txiki baten kasuan, adibidez, trilioika garun konexio izateraino. Bi urteko haur baten garunak heldu gazte baten garunak baino glukosa gehiago kontsumitzen du, 2,5 aldiz gehiago. Fenomeno ikusgarri hori, ia bere osotasunean, faktore genetikoek, gizakiak berezkoak dituenek, erregulatzen dute. Baina haurrak 2 urte dituenetik aurrera, beste prozesu bat hasten da, inausketa sinaptiko deritzona. Prozesu hori ingurunearen mende dago eta haurrak bere jokabidea eta ikaskuntzak gizartean garatzea ahalbidetuko du. Inausketa sinaptikoa ingurunearen arabera izanen denez, estimulua egokia ez bada, neurona konexio aberranteak sortuko dira, denborarekin ezohiko portaerak eta autorregulazio emozional eta sozialeko zailtasun larriak agertzea eraginen dutenak. Adibide bat bizitzako lehen urteetan gabezia sozioafektibo goiztiar eta handia izan duten haurrengan ikus dezakegu, haur horiek bulkadak kontrolatzeko arazoak eta emozioen deserregulazioa izaten baitituzte.

Inausketa sinaptikoaren fenomeno hori estimulazio goiztiarreko programen oinarri neurobiologikoa da. Egiaztatuta dago "inausketa sinaptiko egokiak" lagundu dezakeela jokabide erregulatuagoak garatzen AENA eta/edo adimen desgaitasuna duten haurrengan. Inausketa sinaptikoa ez da haurtzaroarekin amaitzen, gure bizitza osoan jarraitzen du. Neurogarapen prozesu honen beste gailur garrantzitsu bat nerabezaroaren inguruan dago. Fisiologikoki, 13 urtetik 18 urtera bitarte, heltze prefrontalak jarraitzen du eta gaitasun kognitibo berriak azaltzen dira etengabe, hala nola gatazkak konpontzea, erabakiak

hartzea, arriskuak ebaluatzea, angustia kontrolatzea eta emozio negatiboak kontrolatzea. “Emozioen pertzepzio arrazoitua” deritzoguna sortzen da (Huttenlocher & Dabholkar, 1997).

## **Lobulu frontalen funtzio nagusiak: funtzio exekutiboak**

Funtzio exekutiboak kortex prefrontalean eta haren konexioetan daude, eta Adele Diamond haurren psikologoak honela definitu zituen modu didaktikoan: “automatikoa dena, instintuzkoa edo intuiziozkoa denari dagokiona, agian ideia ona ez denean behar diren prozesu mentalen multzoa”.

3 urtetik 5 urtera bitarte, inausketa sinaptikoaren erdi-erdian, haurrak bere funtzio exekutibo nagusiak garatzen ditu: autorregulazioa, kontrol inhibitzailea eta buru zalutasuna. Horrela, 3 urterekin, oraindik ere, askotan, helduaren euskarria behar izaten du helburuak lortzeko ikasgelan edo eguneroko bizitzan; baina 5-6 urteetara hurbiltzen den neurrian, hezkuntza egokia jasotzen badu, pixkanaka-pixkanaka laguntza gutxiago behar du eguneroko bizitzarako.

Autokontrolak tentaldiak saihestea, bulkadak kontrolatzea, itxaroten jakitea edo erantzun aurretik pentsatzea esan nahi du. Zeregin baten aurrean jarraitasuna izatea ere funtzio exekutibo bat da, eta autodiziplina eskatzen du. Sormena, haurtzaroan, ideiak elkartzeko, ideiekin buruan jolasteko gaitasuntzat hartzen da. Eskola adinean dauden haurren kasuan, lan oroimenarekin lotuta dago. Beste funtzio exekutibo garrantzitsu bat zalutasuna da, hutsegitearen aurrean nola erreakzionatu behar duten irakastea haurrei (Diamond, 2020).

## **Lobulu frontalen disfuntzioa**

Lobulu frontalen disfuntzioak jatorri genetikoa edo hartutakoa izan dezake. Disfuntzio frontala bere egituraren gaineko lesio zuzenek eragin dezakete, baina lobulu frontalekin konektatuta dauden garuneko beste eskualde batzuetan dauden lesioen ondoriozkoa ere izan daiteke. Izan ere, ia edozein garun lesio, egiturazko lesio edo lesio funtzionalek (genetikoa) izan dezake eragina funtzio exekutiboetan.

Alexandr Luria lobulu frontalen ikerketaren aitindariak “zibilizazioaren organo” gisa definitzen zituen, eta “buruan tsarrik izan gabe” esamolde errusiarra –norbaitek zentzurik gabeko gauzak esaten dituela adierazteko erabiltzen dena– erabili ohi zuen lobulu frontalak ongi ez dabilzkie pertsona bati gertatzen zaiona definitzeko. Hartutako lesio batean, honako hauek agertzen dira: gogamenaren zurruntasuna, buru zalutasunik eza, pertseberazioak, jokabide moldaezinak, gizarte erantzukizunik ez izatea. Haur txiki baten kasuan, urritasun kognitiboan, emozionalen eta autorregulazioen ondorioz, haurrak gutxiago hartuko du parte eskolan, lankidetzaren harremanetan, eta zailtasunak izanen ditu bizitza pertsonala, eta etorkizunean, lan bizitza mantentzeko, baldin eta lesioa larria eta iraunkorra bada.

Jatorri genetikoa duen adimen desgaitasuna duten pertsonen kasuan eta autismoa duten pertsonen kasuan, askotan agertzen dira disfuntzio exekutiboak, inplikaturako neurona sareen konektibitatearen nahasmenduaren ondorioz neurri batean. Izan ere, bizitzako lehen urteetan gertatzen diren garapenaren, autorregulazioaren, kontrol inhibitzailearen



eta buru zalutasunaren prozesuak biztanleria orokorrarengan baino askoz ere erritmo motelagoan gertatzen dira, edo modu atipikoan garatzen dira, eta autokontrola ongi garatzea eragozten duten konexio aberranteak sortzen dituzte. Bereziki, AENa duten pertsonen kasuan, urrun dauden garuneko eskualdeen arteko koordinazio pobrea deskribatzen da, eta horrek gogamenaren, kognizio sozialaren teoria behar bezala garatzea eragozten duenez, interakzio sozialeko zailtasunak, portaera murriztaileko eta errepikakorreko ereduak agertzen dira, eta horrek guztiak eragin handia du bizi kalitatean.

## Jokabide laguntza positiboa eta funtzio exekutiboak

Neurona zirkuituak lobulu frontalak baino askoz ere ahulagoak dira edozein adinetan, bereziki bizitzako lehen urteetan. Gero eta argiago dago prozedura jakin batzuek mesede egin diezaioketela zirkuitu horren garapen egokiari (Diamond, 2016; Lertladdaluck et al., 2020):

- Indartze positiboa: jokabide laguntza positiboak errendimendu kognitiboa hobetzen du.
- Pertsona bat bertan egotea zereginak gauzatu bitartean: egiaztatu da 3-5 urteko haurren kasuan, zeregin baten gaineko errendimendu kognitiboa hobetu egiten dela haurra zaintzen duen pertsona bertan dagoenean, eta okerragotu egiten dela pertsona hori fisikoki bertan ez badago edo haurrari esaten bazaio zeregina gauzatu bitartean bakarrik egonen dela bertan.
- Interakzio soziala: ikusi da norbaitek zerbait ikasten duenean bere ikaskideei irakasteko, hobetu egiten dela autorregulaziorako duen gaitasuna eta haren funtzio exekutiboak (ipuinak beste batzuei kontatzea, joko arauak, ariketa fisikoa egiteko gidalerroak, arauak irakastea)

Bestalde, zirkuitu frontalak indartze negatiboekiko, gogo txikiarekiko, estresarekiko, bakardadearekiko, lo gabeziarekiko eta ariketa fisikoa ez egitearekiko ahulak dira.

Laburbilduz, haurrek beren buruarengan sinetsi behar dute; izan ere, zaintzaileek itxaropen handiagoa badute haurrek arrakasta izanen dutela, aukera handiago dago arazoak konpontzeko. Eta ez dugu ahaztu behar ahaleginak beti saritu egin behar direla modu positiboan, umore ona sormenaren iragarle ona baita.

## Erreferentziak

Bruner E, de la Cuétara JM, Masters M, Amano H, Ogiyara N. Functional craniology and brain evolution: from paleontology to biomedicine. *Front Neuroanat*. 2014 Apr 2;8:19. doi: 10.3389/fnana.2014.00019.

Diamond A, Ling DS. Conclusions about interventions, programs, and approaches for improving executive functions that appear justified and those that, despite much hype, do not. *Dev Cogn Neurosci*. 2016 Apr;18:34-48. doi: 10.1016/j.dcn.2015.11.005.

Diamond A. Executive functions. *Handb Clin Neurol*. 2020;173:225-240. doi: 10.1016/B978-0-444-64150-2.00020-4. PMID: 32958176.

Goldberg E. *El cerebro ejecutivo. Lóbulos frontales y mente civilizada*. Editorial Crítica, Barcelona, 2001.

Huttenlocher PR, Dabholkar AS. Regional differences in synaptogenesis in human cerebral cortex. *J Comp Neurol.* 1997 Oct 20;387(2):167-78. doi: 10.1002/(sici)1096-9861(19971020)387:2<167::aid-cne1>3.0.co;2-z.

LeDoux JE, Schiller D, Cain C. Emotional reaction and action: from threat processing to goal-directed behavior. En: Gazzaniga MS. *The Cognitive Neurosciences*, 4th ed.; Cambridge, Massachusetts, 2009.

Lertlaldaluck K, Chutabhakdikul N, Chevalier N, Moriguchi Y. Effects of social and nonsocial reward on executive function in preschoolers. *Brain Behav.* 2020 Sep;10(9):e01763. doi: 10.1002/brb3.1763.

Wei Y, de Lange SC, Scholtens LH, Watanabe K, Ardesch DJ, Jansen PR, Savage JE, Li L, Preuss TM, Rilling JK, Posthuma D, van den Heuvel MP. Genetic mapping and evolutionary analysis of human-expanded cognitive networks. *Nat Commun.* 2019 Oct 24;10(1):4839. doi: 10.1038/s41467-019-12764-8.

# Jokabide Laguntza Positiboa hezkuntza ingurunean

Laura Escribano Burgos

Logopeda, Lehen Hezkuntzako maistra, Pedagogia Terapeutikoan  
espezializatua. Alanda lantaldearen sortzailea eta zuzendaria  
lescribanoalanda@yahoo.es

Artikulu honen helburua Jokabide Laguntza Positiboak hezkuntza lanean duen ahalmena nabarmentzea da; horretarako, hura ezartzeko gakoak eskainiko ditu eta ikastetxeko profesionalak, ikasleek eta familiek taldean lan egiteko premia azpimarratuko du.

**Gako hitzak:** jokabide laguntza positiboa, hezkuntza ingurunea jokabideak, familia.

Jokabide Laguntza Positiboa filosofiaren, estrategien eta metodologiaren bilduma da, zeinaren jatorria jokabide desafiatzaileei aurre egiteko programak ezartzea izan baitzen, baina haren garapena haratago joan da eta hezkuntzaren esparruan emaitza hoberenak izan dituen prebentzio eredutzat hartzen da (Positive Behavioral Interventions and Supports erakundeak gai horri buruzko ezagutzaren, baliabideen eta esperientzien bilduma osoa eskaintzen du; ikus <https://www.pbis.org/pbis/getting-started>). Gizabanako orok hezkuntzarako duen eskubidea, inor baztertu gabe eskola testuinguru batean edo bestean dagoelako, edo bere inguruabar edo baldintza zehatzengatik (Escribano eta lag., 2014). Jokabide Laguntza Positiboa bizitzarako balioetan oinarrituta dago, eta jokabide arazoak dituzten pertsonak dira protagonista beren garapena hobetzeko, betiere haien eskubideak kontuan hartuta, esku-hartze hauek ebidentzian eta etikan oinarritzen baitira.

Jokabide Laguntza Positiboko Plan bat bere sakontasun osoan aplikatu ahal izateko, honako hau proposatu behar dugu funtsezko lehen neurri gisa: “*Usteak aldatzea*”. Hori funtsezkoa da; izan ere, belaunaldi askotan hazi gara pentsatuz zigorra garrantzitsua dela jokabideak bideratzeko disuasio neurri gisa, adingabeek beren ahalen neurrirako hezkuntza jasotzeko dituzten eskubideak kontuan izan gabe. Alboratu egin behar ditugu heziketarekin lotuta behin eta berriz errepikatu izan dizkiguten esaldi hauek: “Letra odolarekin sartzan da” edo “Maite zaituenak malkoak eraginen dizkizu”. Ikasteak sufrimendua eta mina esan nahi duela dioen alde hain kultural eta kaltegarri hori. Kontuan hartzen badugu, oro har, hezkuntza ingurunean jokabidea dela bideratzeko premia handiena



duena, eta jokabide desafiatzaileak hezkuntza komunitatearen maila guztietan sortzen dituen ezinegona eta estresa direla-eta, pentsa daiteke zigorra jartzea bai ala bai ezinbesteko kontua dela.

Bestalde, usteak daukagun gauzarik sakonena eta errotuena dira; izan ere, usteen arabera erlazionatzen gara, dibertitzen gara, aukeratzen ditugu gure adiskideak edo gure bizitza nola markatu balioesten dugu. Benetan uste badugu zigorra jartzea eta zailtasunak dituen pertsona bati negarra eragitea edo sufriaraztea pertsona “horren mesedetan” egiten ditugula, orduan zigorra izanen da lehen baliabide nagusia eskolako jokabidearen nahasmendu egoerei aurre egiteko, eta buruko aztarna hori behar bezain indartsua da gizarte gisa ditugun eskubide indibidualekin eta kolektiboekin askoz ere bideragarriagoak eta bateratzaileagoak diren beste ideia batzuk baztertzeko. Gainera, uste hori apur bat kolektiboa bada (hau da, uste hori partekatzen duen talde garrantzitsu bat badago hezkuntza komunitatean), erraz deusezta ditzake alternatiba positiboak proposatzen dituztenen ahots indibidualak.


Baina zigorraren inguruko uste horiek, adingabearen eskubideak urratzeaz gain, eta, askotan, adingabearen duintasuna ahultzeaz gain, ez dute erantzun eraginkorrik ematen epe ertain eta luzera. Jokabide desafiatzaileak, egiaz, jokabide horiek egiten dituen pertsonaren eta jokabide horiek gertatzen diren testuinguruaren arteko desorekaren adierazpen gisa interpretatu behar dira, ez, ordea, garapen prozesuan dauden eta gabeziaren batengatik (soziala, ekonomikoa, afektiboa, curriculum arlokoa edo mentala izan daitekeena) babesgabeko egoeran dauden adingabeen eraso pertsonal gisa. Ikuspegi horretatik begiratuta, jokabide desegokia ez litzateke jokabide hori duen pertsonaren arazo eksklusiboa izanen, ezta pertsona horrek izan dezakeen garapen nahasmenduaren ondorio ere, baizik eta jokabide hori pertsona horren eta ingurune sozialaren arteko interakzioan emandako erantzun gisa aztertzen da. Hori dela-eta, esku-hartzearen gunea, zentzu ho-

rretan, ez da jokabide problematikoen maiztasuna edo intentsitatea murriztea soilik izanen, dagoeneko baztertuta dagoen eredu batean egiten zen bezala, baizik eta, inguruneari dagokionez, honako hau izanen da: ziurtatzea aukera garrantzitsuak ematen dituela garapen onena izateko eta portaera moldatuak ematen dituela; eta, adingabeari dagokionez, aldiz, haren gaitasunetan, jarreretan eta ezaugarrietan sakontzea, indarguneen gabezietan eta ikasteko dituen premietan arreta jarriz, adingabearen trebetasun bilduma handitzeko; horrela, eskuratutako trebezia berri horiek desegokiak ordeztuko dituzte, baina, horretarako, behar diren egokitzapenak eginen dira ingurunean, etengabeko aldaketa progresiboak lortzeko.

Ikastetxeek, hezteko leku nagusiak diren aldetik, sustatu behar dituzte bere autorregulazioa eta trebetasun sozialak hobetzeko baliabide egokiak behar dituen haur edo gazte bakoitzaren bizi kalitate hobereana bermatuko duten estrategia eta eredu hoberenak. Ikerketek frogatu dutenez, arauak onartzea eta autorregulaziorako gaitasuna esperientzia positiboan bitartez eratzen dira eta eusten zaie, eta, horregatik, Jokabide Laguntza Positiboak abiadura palanka garrantzitsuenetako bat izan behar du, gizabanakoen trebetasunak hobetzen lagundu gaitzan.

Hezkuntza komunitate gisa, familiak kontuan eduki behar dira, elkar sustatu behar dute, benetako plan errealistak eman behar zaizkie, eta beti helburu komunak izanen dituzte eta informazio garrantzitsua partekatu eginen dute. Garrantzitsua da pertsona guztiei laguntzea, dauden lekuan daudela ere, gizabanakoari kalte egiten ari diren jokabideen zergatia aztertu behar da errua inori leporatu gabe, eta, era berean, aztertu behar da zer gertatzen ari den gizabanako hori bere berdinengandik aldentzeko, gizabanako horrek motibazioa galtzeko, eta gizabanako horrek ikasteko eta gozatzeko dituen aukerak mugatzeko. Ildo horretan, etxea, eskolarekin batera, garrantzi handiko testuingurua da portaera autorregulatuak eta egokiak sortzeko, behar diren laguntzekin. Eskolaren, etxearen, irakasleen eta familien arteko lankidetzaz funtsezko gakoa da laguntza plan batek arrakasta izateko.

Helburu horiek lortzeko, Laguntza Indibidualeko Plan (LIP) bat diseinatu behar dugu. Plan horretan, dagokion pertsonak ikasi eta hobetu ditzakeen gai garrantzitsuak jasoko dira, bai bere adinerako ikaskuntza garrantzitsuei dagokienez, bai pertsonari berari eta haren interakzioei dagokienez; hau da, plan hori pertsonalizatua izanen da eta, aldi berean, Taldeko Ekintza Plan batekin (TEP) gurutzatuko da; izan ere, berdinen taldea da laguntza natural nagusia. Inor ez da bakardadean hezten, baina jokabideari buruz hitz eginez, funtsezkoa da lagundu nahi diogun pertsona bakoitza bizi den, hezten den eta erlazionatzen den interakzio sozial guztiak kontuan hartzea. Eta bi Plan horiek ezartzeko eta gauzatzea lortzeko, hainbat parametro eduki beharko ditugu kontuan, eta horien gainean aztertu eta eutsi beharko diegu lan helburuei. Plan horiek, gutxienez, datu bilketa hau izanen dute, galde-sorta orokorren edo egokituen bitartez lortuko dena:



\* Osatu behar diren funtsezko gaiak, galdera zuzenak eginez edo heldu nagusien informazioa jasoz.

## Banakakoa

- Interesei buruzko galde-sorta.
- Indarguneak.
- Hobetu beharreko alderdiak.
- Beldurrak, fobiak eta ezjakintasunak.
- Inguruneari buruzko ulermen maila.
- Komunikazio funtzionalaren eredia.
- Hizkuntzaren ulermena eta adierazpena.
- Erreakzioak inguruneko estimuluen aurrean.
- Trebetasun sozialak.
- Lagunak eta aisialdia.
- Erlazionatzeko moduak.
- Curriculum maila eta ikasteko estiloa.


## Taldea

- Talde kohesioa.
- Talde horretan egiten dituen jarduerak.
- Taldekideen arteko harremana.
- Enpatia maila.
- Taldekideen zailtasunak eta gaitasunak.
- Taldekideen arteko komunikazioa.
- Curriculum maila orokorra.

Behin parametro horiek kontuan hartuta, Jokabide Laguntza Positiboan oinarritutako proiektu oso bat prestatzeko, helduek dituzten interesekin eta nahiekin gurutzatu behar dira ingurune desberdinetan. Ingurune horiek adingabearen familia (FIN) eta hezkuntza sistemako irakasleak (HIN) dira; laguntza talde trinkoa eta aktiboa osatu behar dute

proiektu osoa gauzatzeko, zeregin garrantzia izanen baitute inguruneetako bakoitzean, eta eragileak izanen dira Planek (API eta TAP) bilakaera ona izateko.

### Jokabide Laguntza Positiboari



Eta, azkenik, gatazka uneetarako, funtsezkoa da ez inprobisatzea eta konponbide onena aplikatu ahal izatea; horregatik, planak ezarri behar ditugu une zailenak hobetu ahal izateko eta krisi larriak sor ez daitezen lortzeko, krisi horiei aurrea hartuz eta estrategia egokiak sortuz.

### Kudeaketa emozionalerako baliabideak

- Seinaleak identifikatzea.
- Inplikaturako pertsonari jakinaraztea seinale horiek.
- Irakastea zer egin behar den krisia hasten denean.
- Desentsibilizazioa.
- Irakastea zer egin behar den gainerako denboran.
- Bulkaden kontrola: erlaxazio teknikak.
- Autokontrola eta autoinstrukzioa.
- Baztertze kontrolatua.

Beste ezeren gainetik, inguruneko helduak lagundu dezaketen pertsona garrantzitsutzat hartzen irakatsi behar da. Taldeko egoerak hobetu ahal izateko, jarduera atsegín gehiago egiten eta elkarrekin gozaten lagundu behar da. Ondorengo koadroan iradokizun batzuk jaso ditugu.

### Jarduerak partekatzea

- Interesak identifikatzea.
- Interesak zerk geldiarazten dituen jakitea.
- Interes berriak aurkitzea.
- Ekintzaren plangintza.
- Negoziazio prozesuak.
- Enpatiaren garapena.
- Zalutasuna areagotzea.
- Gozatzea eta barre egitea.

Helburuak garatzean, beti kontuan hartu behar da laguntzen ari garen pertsonaren bi-zitarako funtzionalak direla eta arrazoizko denboran lor daitezkeela; horretarako, eskainiko diren laguntzak eta ikaskuntzen mailaz mailako eskala neurtuko dira, baina balorazio kualitatiboa eta iraunkorra ahaztu gabe, alderdi guztien gogobetetasuna aintzat hartuta.

Alanda Elkartearen lan metodoaren arabera, helburuek NEDL izan behar dute, hau da,: NEURGARRIAK, ESPEZIFIKOAK, DENBORA JAKIN BATEAN eta LORGARRIAK. Eta helburu horiek lortzeko modua helburu horien xede den pertsona bakoitzaren egunerokotasunaren zati izanen da.

Jokabide Laguntza Positiboaren inguruko gure Plana eraginkorra izan ote den baliosteko, emaitzen ebaluazioa ere kontuan hartu behar da, eta, horrela, erabaki daiteke erdietsi nahi ziren jomugak lortu ote diren; horregatik, Planaren hasieran gai batzuen erregistroak erabili behar ditugu. Gai horiek, egokitzat hartzen dugun denboran, aukera emanen dute hurrengo neurria hartzeko erkaketa baliabide bera erabiliz. Neurri horiek kuantitatiboak izan daitezke, maiztasuna eta intentsitatea neurtzekoak, nahiz kualitatiboak, bideo grabazioak eginez edo zuzeneko behaketak eginez.

### Aipamenak eta baliabide interesgarriak

Carr, E.; Levin, L.; McConnachie, G.; Carlson, J. I.; Kemp, D. C. eta Smith, C. E. (1996). *Intervención comunicativa sobre los problemas de comportamiento*. Madril: Alianza.

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa Eguía Careaga Fundazioa (2011). *Vivir mejor. Estrategias reactivas*. <https://www.siis.net/documentos/ficha/180103.pdf>

CSEFEL (Webgunea). *Center on the Social and Emotional Foundations for Early Learning*. <http://csefel.vanderbilt.edu>

Escribano, L., González del Yerro, A., Ortiz, M., Simón, C., Tarragona, M. eta Uribe, E. (2010). *La prevención de conductas desafiantes en la escuela infantil. Un enfoque proactivo*. Mexiko B F: Educación y Desarrollo Fundazioa. Hemendik hartuta: [www.asociacionalanda.org/pdf/Libro.pdf](http://www.asociacionalanda.org/pdf/Libro.pdf)



Escribano, L., González del Yerro, A., Sánchez, M., Rodríguez, A., Sánchez, F., Gómez, R., Casado, E., Lucio, B., Vázquez, E., Revilla, T., Melcón, M eta Sastre, I. (2014). La aplicación de un plan de apoyo conductual positivo en el contexto escolar. *Revista Española de Orientación y Psicopedagogía*. 25. liburukia, 3. zk., 74-89 or. Hemendik hartuta: <https://www.redalyc.org/pdf/3382/338233061008.pdf>

Uliazpi Fundazioa (2003). *Protocolo de actuación ante conductas desafiantes graves y uso de intervenciones físicas*. Madril: FEAPS - Cuadernos de Buenas Prácticas. Hemendik hartuta: <https://www.plenainclusion.org/sites/default/files/bp-conductas-desafiantes.pdf>

Goñi, M. J., Martínez, N. eta Zardoya, A. (2007). *Apoyo Conductual Positivo. Algunas herramientas para afrontar las conductas difíciles*. Cuadernos de Buenas Prácticas – 10. zk. Madril: FEAPS. Hemendik hartuta: <https://www.plenainclusion.org/sites/default/files/bp-apoyo-conductual.pdf>

Lucyshyn, J., Horner, R., Dunlap, G., Albin, R., eta Ben, K. (2002). Positive behavior support with families. Hemen: J. Lucyshyn, G. Dunlap, eta R. Albin (Eds.), *Families and positive behavior support: Addressing problem behavior in family contexts* (3-44 or.). Baltimore: Brookes.

PACER Center (Webgunea). *PACER Center (Parent Advocacy Coalition for Educational Rights—PACER)*. <https://www.pacer.org/es/>

Pérez, L. (2012). *Ikasgelako arauak eta proaktibitatea. Diziiplina positiborantz* Hezkuntza Kontseilaritza . Nafarroako Gobernua. Hemendik hartuta: <https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/36893/Tratu+onez.pdf/43a5165f-0ffd-450f-97f9-043b126cbd88>

# Jokabide-laguntza Positiboa. Erronkak eta ezagutza

**Carmen Márquez López**

Psikologo klinikoa. Autismo BATA elkarteko haur  
eta gazteen alorreko zuzendari teknikoa  
carmenmarkez@autismobata.com

Jokabide-laguntza Positiboa da balioetan oinarritutako erreminta kutxa bat, jokabidea aldatzen eta ingurunea eraldatzen laguntzen duena. Hautu bat, etikan eta baliozkotasun sozialean oinarritua. Aldaketa handia dakar: jokabidean esku hartzen duen eredu batetik igarotzen da ongizate emozionala, inklusioa eta pertsonaren eskubideen defentsa sustatzen duen eredu batera. Haren helburua da pertsonen trebezia eta gaitasunak garatzea eta prebentzioa egitea, pertsona horiek sistemari erronka jotzen dioten jokabideak dituztenean.

**Gako-hitzak:** Jokabide-laguntza Positiboa, ongizate emozionala, jokabidea, portaera.

Jokabide-laguntza Positiboa ikerketan eta gizarte, hezkuntza eta biomedikuntzako zientzietan oinarrituko estrategia batzuk ematen ditu. Estrategia multzo horrek laguntzen digu pertsonen bizi-kalitatea hobetzen, pertsona horiek ingurunea eta ingurukoak kezkatzen dituzten jokabide jakin batzuk dituztenean; hobekuntza hori lortzeko, trebezia berriak irakasten dira, eta pertsonaren testuingurua aldatzen. Barnean du ebaluazio eta esku hartze prozesu jarraitu bat, balioetan oinarritua eta pertsonetikiko begirunea duena. Prozesu horrek erabaki etiko batzuk dakartza berarekin; izan ere, murrizketa fisikoak eta/edo abertsio-erantzunak gutxitzen ditu, eta ahalegin guztien helburua da prebentzioa egitea eta ezagutzea hala pertsona nola testuingurua (maila sozialean eta pertsonalean kezkarriak diren jokabideak sortzen direnekoa). Ingurunea ez da, noski, neutroa, eta jokabideak sortzen dira pertsonaren eta testuinguruaren –jokabide horiek maizenik eta indar handienarekin ageri diren testuinguruaren– arteko interakzioan. Ikuspegi honetan, datu objektiboak dira oinarria eta jokabidearen ebaluazio funtzionala eta testuinguruaren ebaluazioa egiten dira, pertsona ardatz gisa hartuta; gainera, kontuan hartzen da zer pertsona izaten dituen ondoan eta zer ingurunetan mugitzen den (familia, eskola, lana, komunitatea, etab.



Ikuspegi hau erabat zabaldua dago orain, baina lehen ez zen hala gertatzen, zeren denbora luzez esan izan da pertsona eta haren ezaugarriak –esaterako, zailtasun komunikatibo, sozial edo emozionalak– direla erantzule bakarrak ingurune sozialak arazotzat jotzen dituen jokabideak daudenean. Baina, 1987an, Bluden eta Allen hasi ziren zerbitzuetan eta laguntzan jartzen arreta, uste zutelako halako portaerak profesionalendako erronkak zirela: “Horrelako jokabideak zerbitzuendako erronkak dira, askotariko zailtasunak dituzten pertsonen arazoak baino gehiago. Zerbitzuek lortzen dutenean jokabide horiek maneiatzeko ‘erronka’ gainditzea, ‘arazo’ izateari uzten diote”.

Emersonek, 1995ean, desafiozko jokabideen definizio berria eman zuen: gizarte-konstruktua ziren, arau sozialak urratzen zituen eta pertsonaren bizitzan nahiz ingurunean inpaktua sortzen zuena. Orduz geroztik ulertu zen jokabide hauek sortzen zirela honako elementu hauen interakzio konplexutik: pertsonak zer egiten zuen, zer testuingurutan ari zen, eta besteek nola interpretatzen zuten edo zer esanahi ematen zioten jokabide horri. Jokabide-laguntza Positiboko prozesuaren funtsezko lanetako bat da, hain zuzen ere, hipotesi bat adostea, kezkatzen gaituen eta ulertzen ez dugun jokabide horren funtzioa argitzeko; horretarako, elkarrizketek, erregistroek, galde-sortek eta behaketak emandako datu objektiboak behar ditugu, ez baita erraza izaten aurkitzea zein den bete gabe geratzen den beharra (behar biologiko, komunikatibo, psikologiko edo soziala), portaera hauen atzean dagoena. Portaera zail bat dagoenean, horrek erakusten digu gauza garrantzitsuren bat falta dela pertsona horren bizitzan.

90eko hamarkadatik aitzina argitalpen eta liburu askok azaldu dute Jokabide-laguntza Positiboaren ikuspegia, egitateak emanez eta pertsonen bizitzan izandako emaitza posi-


tiboak agertuz; Carr et al. 1999 lanarekin hasita, duela gutxiko <sup>\*1</sup>Hassiotis et al. 2018 ikerketaraino. Eta 20 urtetik gorako tarte honetan, behaketaren esparrua zabaldu da, eta informazioa eta datuak jaso, ebaluatu eta aztertzeko modu berriak sortu dira pertsona bakoitzaren beharrak zein diren ikusteko.

**Jokabide Laguntza Positiboaren elementu nagusiak** (Gore et al., 2013)



1. **Prebentzioa**
2. **Trebetasunak garatzea**
3. **Pertsonarengan zentratuak**
4. **Beharrak ulertzea**
5. **Jokabidearen analisisa**
6. **Ikuspegi osagarriak**
7. **Datuetan eta pertsonaren ezagutzan oinarritua**
8. **Ebaluazio funtzionala**
9. **Estrategia proaktiboak**
10. **Pertsonari epe luzean laguntza ematea eta bizi-kalitatea lortzea**

Gaur egun, esku hartzeko plan guztiek kontuan izan behar dute beren estrategien baliokotasun soziala; gainera, errespetuz aritu behar dira, eta pertsonari plan seguru, posible eta positiboak eskaini, ebaluazioa eta aldaketa-estrategiak sartuz pertsonaren testuinguru orotan. Ildo honetan, zenbait baliabide ditugu eskura, hala nola “Lista de verificación y de Observación del Apoyo Conductual Positivo”, PBS Academy-rena (2016), zeinak tresna praktikoak ematen baitizkio zerbitzuak –jokabide kezkarria izateko arriskuan dagoenari jokabide-laguntza positiboa ematen dioten zerbitzuak– behatzen eta ikuskatzen dituztenei.



<sup>1</sup> The British Journal of Psychiatry (2018), 212, 161–168. doi: 10.1192/bjp.2017.34.

Jokabide-laguntza Positiboaren oinarrian ikuspegi etiko garbi bat dago: jokabide kezka-garriak dituzten pertsonen ongizate emozionala ematen die, bultzatzen du egoerari bestela begiratzea eta inguruko pertsonen nahiz profesionalen bestela erantzutea, enpatiatik eta gupidatik abiatuta. Nahitako jokabidearen ideia utzita, oinarritzko paradigma hau hartzen da: pertsonak kontrolari eusten ahalko balio, eutsiko lioke. Beharrezkoa da, deserregulazio bortitzeko uneetan, kontroleko eta murrizketa fisikoko prozedurak uztea, eta horien ordez laguntasuna eta babesa ematea eta ulertzen saiatzea, pertsonak bere buruaren gaineko kontrola berreskura dezan. Konfiantzazko harremana, errespetua, erreferentziako pertsonen jarrera eta duten harreman mota testuinguru sozialaren osagaiak dira, eragina dute pertsonarengan, eta, beraz, behatu, ebaluatu eta zaindu beharrekoak dira.

Intentsitate baxuko edo afektibitate baxuko kontaktuaren ereduak<sup>2</sup> emozioen ikerketa, garapenaren psikologia eta neuropsikologia ditu oinarri. Eredu horrek autonomia (pertsonak bere burua kontrolatzea) nabarmentzen du, baita exijentzien egokitzapena eta emozioen kutsatzea ere, eta arreta handiz erreparatzen diola geure erregulazio emozionalari. Horrek jarrerak aldatzea dakar, eta erantzun ulerkorrek ematea laguntzen dugun pertsonari.

Eta, jakina, gu guztion erronka nagusia da ingurune egokiak sortzea, adiskidetasunez eta ulermenez betetako inguruneak. <sup>3</sup>Mc Gill-ek (2018) adierazi duen legez: "Nahiz eta ezer gutxi egin daitekeen, besteak beste, biologia eta garapeneko faktore batzuetan, inguruneak jokabideen gainean dituen eragin asko aldatzeko modukoak dira. Faktore horiek aldatu nahia ikuspegi teoriko egokia da, kezkatzen gaituzten jokabideen agerpena edo horrelakoak izateko aukera prebenitzeko edo murrizteko" (ikus Emerson eta Einfeld, 2011). Lortzeko dugun helburua da testuinguru inklusiboak sortzea, aniztasuna positiboki baloratzen duten testuinguruak, eskuragarriak, errezaileak, komunikazioa bultzatzen dutenak, pertsonendako esanguratsua diren jarduerak dituztenak, eta bertan lidergo positibo bat edukitzea, errespetuzko interakzio sozialak errazten eta pertsona ororen ahotsa entzuten duen bat. Horixe da, beraz, gure erronka, gizartearen, entitateen, zerbitzuen nahiz ikastetxeen erronka, eta adimen- edo garapen-zailtasunak dituzten pertsonen laguntza emateaz arduratzen diren pertsonena (izan zuzendaritza postuetakoak, izan arreta zuzena ematen duten profesionalak).

Horien ondoan, beste erronka batzuk sortzen dira egunero, jardunbide profesional egokien ondorioz eta pertsonen bizitzan emaitza onak erakusten dituzten ebidentzietatik abiatuta; halakoak ezagutzeko aukera izan dugu, hain zuzen ere, Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatutako jardunaldietan, "Jokabide-laguntza Positiboa eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak" jorratu dituztenetan (aurtengo urtarrilean). Erronka horiei guztiei aurre egiteak duintasuna ematen dio gure jardunari –esparru guztietan egiten dugun lanari eta guztiok ematen ditugun laguntzei– eta duintasuna ematen dio, halaber, pertsonen jasotzen duten arretari (kasu honetan, hezkuntza-ingurune haurrek); izan ere, horietan sustatzen dira gizarteratzea eta eskola-inklusioa, pertsonaren gaineko ezagutza zabala eta kezkatzen gaituzten jokabideen ulermena.

.....

<sup>2</sup> Hejlskov, B eta Sjölund, A. (2018). *Manejar, evaluar, cambiar* (Hantera, utvärdera, förändra). Stockholm. Natur&kultur.

<sup>3</sup> Mc Gill, Tizard Learning Disability Review.

## Erreferentzia bibliografikoak

- Alcantud, F. eta kolab. (2003). "Intervención psicoeducativa en niños con Trastornos Generalizados del Desarrollo". *Buenas prácticas del profesional del autismo ante las conductas desafiantes: II. Proyecto ARCADE, Apoyo y Respuesta ante Conductas Altamente Desafiantes*. (227-247 or.). Edic. Pirámide.
- Canal Bedia, R., Martín Cilleros, M.V. (2012). *Apoyo Conductual Positivo*. Osasunaren eta Gizarte Ongizatearen Kontseilaritza: Gaztela eta Leongo Junta.
- Carr, E. G., Levin, L., Carlson, J. I., eta McConnachie, G. (2005). *Intervención comunicativa sobre los problemas de comportamiento: guía práctica para el cambio positivo* (43. liburukia). Anaya-Espainia.
- Carr, E., eta Horner, R. (2007) The Expanding Vision of Positive Behavior Support: Research Perspectives on Happiness, Helpfulness, Hopefulness, *Journal of Positive Behavior Interventions*; 9; 3.
- Charman, T. Pelicano, L. eta kolab. (2011). *¿Qué es una Buena Práctica en la Educación de personas con Autismo?* Autismoko eta Hezkuntzako Ikerketa Zentroa (CRAE, ingelesezko siglak). Psikologiaren eta Giza Garapenaren Departamentua, Hezkuntzako Institutua, Londresko Unibertsitatea. <http://aetapi.org/download/una-buena-practica-la-educacion-personas-autismo/?wpdmdl=3778>
- Emerson, E. (1999): *Challenging Behavior. Analysis and intervention in people with severe intellectual disabilities*. Cambridge University: Second Edition.
- Greene, R.W.(2001): *El niño insoportable*. Ediciones Medici.
- Helskov, B (2010). *No Fighting, No Biting, No Screaming: How to Make Behaving Positively Possible for People with Autism and Other Developmental Disabilities*.
- Hejlskov, B eta Sjölund, A. (2018). *Manejar, evaluar, cambiar (Hantera, utvärdera, förändra)*. Stockholm. Natur&kultur.
- McGill, P. eta kolab. (1997). "Understanding and responding to challenging behaviour: from theory to practice". *Learning Disability Review*, 1. liburukia, 9-17.
- Jokabideen Mahaia 2000. AETAPI elkartearen Vigoko Kongresua, "Documento para el debate: parámetros de buena práctica del profesional del autismo ante las conductas desafiantes". AETAPIren webgunea
- Jokabideen Mahaia 2002. Santanderko Kongresua. AETAPI. "A.R.C.A.D.E. Apoyo y Respuesta ante Conductas Altamente Desafiantes". AETAPIren webgunea.
- PBS Academy (2016) *Support Workers Doing Positive Behavioural Support Well. A Competence Checklist*. The PBS Coalition Competence Framework.
- Rueda, P. Novell, R. (2021). *Conductas que nos preocupan en personas con Discapacidad Intelectual y del Desarrollo*.
- <https://www.plenainclusion.org/informate/publicaciones/conductas-que-nos-preocupan-en-personas-con-discapacidad-intelectual-y-del-desarrollo>.

Whitaker, P., Joy, H., Edwards, D., & Harley, J. (2001). *Challenging Behaviour and Autism: Making Sense-Making Progress; a Guide to Preventing and Managing Challenging Behaviour for Parents and and Teachers*. National Autistic Society.

**Webgrafia.**

<https://www.challengingbehaviour.org.uk/>

<https://www.nice.org.uk/>

[www.aetapi.org](http://www.aetapi.org)

<https://proximal.es/sobre-alberto-sanchez>

<https://www.lowarousal.com>

<https://www.studio3.org/resources>

<http://eng.hejlskov.se/>

[http://www.apbs.org/new\\_apbs/general-introduction.html](http://www.apbs.org/new_apbs/general-introduction.html)

<https://www.bild.org.uk/>

<https://autismawarenesscentre.com/>

# Jokabide-laguntza positiboa: jarduteko proposamen zehatzak

Ramon Novell Ansinaren mintzaldiaren ondorioak  
Desgaitasun intelektualean eta Osasun mentalean  
Especializaturiko Zerbitzuko burua. Gironako Osasun  
Laguntzako Institutua. Kataluniako Generalitatea  
ramon.novell@ias.cat

Jokabide-laguntza positiboa osagai anitzeko esparrua da eta kezkatzen gaituen jokabidea ulertzen laguntzen digu, ez baita soilik ikuspegi terapeutiko bat, tratamendu bat edo filosofia bat.

Haren oinarria da zabal-zabal ebaluatzea zer testuinguru sozial eta fisikotan gertatzen den portaera bat, eta erabiltzen da esku-hartze sozialki baliodunak eratzeko, pertsonaren beraren eta haren inguruaren bizi-kalitatea hobetuko dutenak, hain zuzen.

Jokabide-laguntza positiboak aintzat hartzen ditu interesdun guztien (familia, hezitzaileak, beste laguntzaile batzuk...) jokabidea eta ongizatea, eta guztien partaidetza azpimarratzen du, ebaluazioak, esku-hartzeak eta emaitzak esanguratsuak izan daitezten.

Jokabide-laguntza positiboaren teoria eta ebidentziaren oinarria da kezkatzen gaituen zeinahi jokabide ulertzea; jokabidea komunikazio-ekintza bat dela uste du, eta pertsonarendako eginkizun jakin bat betetzen duela. Trebetasunen, beharren (osasun fisikoa eta mentala barne) eta ingurune sozial eta fisiko jakin baten testuinguruan agertzen eta mantentzen da.

Mintzaldi honetan azalduko da zein diren gakoak eta kontuan hartu beharreko akatsak jokabide-laguntza positiboko planak arrakastaz gauzatzeko behar bereziak dituzten ikasleekin.

**Gako-hitzak:** jokabide-laguntza positiboa, pertsonan oinarrituriko plangintza, jokabidea, portaera.

Pentsa daiteke kezkatzen gaituen jokabidearen ebaluazioa zeharkako arretako langileei (psikologoak, psikiatrak...) dagokiela, eta, beraz, ez dagoela zuzenean loturik hezitzaileen eguneroko zereginarekin (eta are hezitzaileek zama erantsizat jo dezaketela), baina, hala ere, gai izan beharko genuke jokabide hori "zerbaiti buruzko iritzia emateko prozesu formaltzat" hartzeko, eta horrek inplikatu beharko gintuzke ebaluatu beharreko pertso-





narekin zerikusia dugun guztiak. Kontuan izan behar da gure iritziek zuzenean baldintzatzuten dutela gure jarduteko modua, eta, hortaz, norbaiten jokabide-zailtasunen jatorriari buruzko uste okerrekin jarraera okerrak eta are errespetu gutxiak eragin ditzaketela pertsona horrekiko.

Zail egiten zaizkigun jokabide guztiak ez dira ikasiak, eta ez dira nahita agertzen. Izan ere, jokabidearen nahasmenduak faktore neurobiologikoen, psikologikoen eta gizarte eta ingurumeneko adierazpen ez-espezifikoa dira: askotan ez da jakiten zein diren faktore horiek eta gehienetan ez daude xehe-xehe ebaluatuta.

Erasoa, adibidez, hainbat faktoreren ondorio izan daiteke; hauek dira ohikoenak: gaixotasun medikoen ondorioz sentitzen den ezinegon somatikoa, deserosotasun emozionala edo komunikatzeko ezintasuna.

Autismo edo jokabide kezkarriak daudenean, zer egiten du profesional batek? Uste dugu badugula konponbidea, errespetuzko konponbide etiko bat, kontuan hartzen dituen pertsonaren eta haren familiaren balioak. Konponbide horrek jokabide-laguntza positiboa du izena (JLP). Horixe da zeinahi inguruetan aplikatu daitekeen tresna berria, bai eskola arruntetan (edo school-wide direlakoetan, non Hornerrek eta Sugaik urteak eta urteak eman baitituzte oraindik ere aplikatzen ditugun teoriak eta praktikak lantzen) eta bai eskola espezializatuetan, haiek ere beren tokia baitute jokabidea kezka iturri den edozein inguruetan.

Laguntza-estrategia etikoak ditugu, baloragarriak, datuetan oinarrituak, errespetuzkoak eta, itxuraz, agerikoak; konponbide magiko bat, antza.

Jokabide-laguntza positiboaren oinarriak profesionalak eta haien inguruneak gaitzea eta prestatzea behar du izan, lantaldeko kideak direlako eta funtsezko gakoa delako.

Zenbait estrategia ikusi ditugu Espainian eta jokabide-laguntza positiboari buruzko trebakuntzak ere bai, portaera-arazoen ebaluazio integralari buruzkoak (osasun mentala barne). Autonomia erkidego bateko unibertitate batek eginiko azterlan batean, zerbitzu ugariko profesional asko trebatu dira JLPn eta 1.463 pertsonari aplikatu zaie. JLPri buruzko prestakuntza aplikatu ondoren emaitza hauek ikusi dira: ebaluatoriko taldean, jokabide kezkarria maneiatzeko estrategien artean, distrakzioa nagusitzen da esku-hartze proaktiboko eta prebentziozko lehen faseko estrategia gisa, jokabide-zikloaren barnean, abiarazle azkarrak agertu baino lehen. Hauek datoz ondotik: zigorra (% 30), murrizketa fisikoa (% 23), bakartzea (% 22) eta sedazioa (% 11). JLPko prestakuntzaren ondoren, 1.463 pertsonetatik % 82 psikofarmakoak hartzen ari dira edo hartzen jarraitzen dute, batez beste 4 sendagai pertsonako, JLPn egindako lan guztiaren ondoren. Ez dugu esku-hartze plan idatzirik, eta, egia esan, prestakuntzaren ondoren, kasuen erdietan jokabideak berdin jarraitzen du. % 30 hobetu dira, baina % 17k okerrera egin dute.

Espainian badugu esperientzia bat JLPko prestakuntza aplikatu ondorengoa, baina 2020an argitaraturiko beste ebidentzia edo azterketa edo meta analisi batzuk ere baditugu: haietan zerbitzu-multzo bat hautatu da, profesionaleri prestakuntza eman zaie bai JLPn eta bai ereduarekin loturiko estrategien erabileran, eta JLP aplikatzen ez den beste egoera batzuekin alderatu da. Konparazio horren emaitza da ez dagoela ebidentziarik adierazten duenik lantaldeek JLPko prestakuntza izateak jokabidea hobetuko duela. Pertsonarengan Oinarrituriko Plangintzari dagokionez (POP), denok dakigu JLPk norbanakoari loturik joan behar duela eta norbanakoa dela erdigunea, garrantzitsua eta balioetsia delako; eta etikak nagusitu behar duela, eta komunikazio handia behar dela.

Hala ere, bi teknika horiek (POP eta JLP) sarritan ez dituzte espero ziren emaitzak agertzen.

## Zer egiten ari gara gaizki?

Ingalaterran 2016. urtean egindako beste azterlan batek POParen emaitzak ebaluatu zituen 25 urtez, bai eta zer-nolako eragina zuen jendearen bizi-kalitatean ere. Ikusi zen POPak, edo nik "hitzak dauzkaten paperak" deitzen dudana horrek, gaizki egiten bada, ez duela bizi-kalitatea hobetzen eta ez duela jokabide kezkarria aldatzen. Baina, batzuetan, eraginkorra da.

Denok dakigu JLP eta POP eredu egokiak direla, baita aspalditik eta oraindik ere aplikatzen diren beste eredu etiko eta errespetuzko batzuk ere. Baina, norabide egokira bideratzen ari al gara ahaleginak? Ez gara oker ari? Ongi aplikatzen ote dugu ereduak? Beldur al gara jarrera kezkarriak agertzen diren egoera konplexuei aurre egiten diegunean? Ba al dakigu profesionalak edo JLP baliatzen duten horiek prestatzen eta gakoak ongi komunikatzen? Guztiok ote gara berdinak?

Ongi egiten ariko bagina, emaitzak onak izanen lirateke. Espainiako datuak kezkarriak dira.

Nekatu egiten gara azterketez eta ebidentziez mintzatzeaz. Ebidentziaren datu zorrotzetan sostengaturiko zeinahi erabaki zalantzan jar daiteke gure esperientzia eta eza-gutzatik lortutako datu zorrotzen bidez, datuok kontrakoa bermatzen badute. Ezin dugu pentsatu JLP arazo guztietarako panazea denik sakon aztertzen ez badugu.

Egoera konplexu horien aurrean gaudenean, maiz ez dakigu nondik hasi eta zer bide hartu jokabide horiek ezagutzeko, izan haurrenak edo edozein adinetako gazteenak, izan edozein ezgaitasun mota dutenenak edo edozein ingurunek eraginikoak.

Nondik hasi ez dakigunean, urduri jartzen gara, kezkatu egiten gara, eta, horren ondorioz, errua subjektuari berari egozten diogu, eta ez dugu benetan aztertzen zer erantzukizun dugun.

## Hitz egin dezagun PTDIn botikak erabiltzeari buruz

Badakigu jokaera arazotsuak dituztenen % 70ek tratamendu psikofarmakologikoa jasotzen dutela. Autismoa dutenen ia % 50ek, batez ere haurrek, psikofarmakoak hartzen dituzte. Albo-ondorio eramanezinak izateko aukera handia dago, eta ez dira behar bezala aztertzen.

Denboran atzera egiteko arriskua dago “adimen-atzerapenaren” diagnostiko hutsak psikofarmakoak erabiltzea justifikatzen zuen garaietara.

Jakin behar da jokaera horiek, batzuetan, honako hauen ondorio direla:

erakundea eraginkorra ez izatea, lidergorik eta zuzendaritza-prozedurarik ez egotea.

- komunitatearen laguntza-sarea eraginkorra ez izatea.
- zerbitzuen ideologia ezberdinen arteko gatazkak.
- jokabidearen zerizanari buruzko iritzi pertsonalak.
- diziplina anitzeko talde-lanik ez egotea.
- erakundeari begirako zerbitzuak, pertsonari bideratutakoak izan beharrean.
- prestakuntzarik ez egotea, ez jokabidearen ebaluazioan, ez esku-hartzean (JLP; POP, JL).
- langileei laguntzeko ezintasuna.
- preskriptorearen gaineko presioa.

## Zigorraren erabilera dela eta, ondorio hauek atera daitezke

- Bazterketa eta zigorra dira jokabide-nahasmenduen aurrean erabiltzen diren erantzun ohikoenak (Lane & Murakami, Rose, Nieto, Sprick).
- Bazterketa eta zigorra ez dira eraginkorrak jokabide arazotsuak epe luzean murrizteko, eta eskola uztearen tasa handiagoarekin lotzen dira (Costenbader eta Markson).
- Laguntza-sistema proaktiborik gabeko zigorrak lotuta daude erasoak areagotzearekin, bandalismoarekin, absentismoarekin eta eskola uztearekin (Mayer, Skiba eta Peterson).

Zigorra, bazterketa eta gisako teknikak ez dute jokabidea epe luzera aldatzen; aitzitik, kontrolatu egiten dute, eta antsietate-maila handia eragiten subjektuarengan

JLPri buruz ari garenean, batzuetan teknika ahazten dugu, ez da behar bezala aplikatzen eta, adibidez, farmakoa erabiltzen da.

JLP aplikatzen denean tresnak sakon ezagutu gabe, hasierara itzultzen gara berriro; berehalako emaitza ikus daiteke, baina irudipen hutsa besterik ez da.

Diagnostiko on bat da tratamendurik onena.

## **Arrakasta lortzeko egin beharreko urratsak**

- 1 Aldaketa ekologikoa / aurrekariak.
- 2 Trebetasunak hobetzea.
- 3 Aldaketa ondorioetan: errefortzua (ez abertsiboa).
- 4 Aldaketa ondorioetan: zigorra (abertsiboa).
- 5 Jokabide-laguntza positiborako plan bat egitea lehen pertsonan.
  - a Estrategia berdeak edo proaktiboak. Laguntzeko eta trebetasunak ikasteko estrategiak. Jokabide-deribazioak saihesteko berariazko estrategiak dira.
  - b Estrategia horiak edo prebentziokoak. Lasai egoteko eta haserrera ez iristeko prebentzio-estrategiak.
  - c Estrategia gorriak edo erreaktiboak: jokabide-nahasmenduak arriskurik gabe maneiatzeko estrategiak dira. ABA estrategiak, errespetuzkoak.
  - d Estrategia urdinak edo erregresio-estrategiak. Maila berdera itzultzea.

**Oso garrantzitsua da arduradunek jakitea zer estrategia erabili behar den maila bakoitzean; JLP eraginkorra izanen da horrela.**

**Funtsezkoa da profesionali laguntzeko planak egitea, ez dituzte-eta baldintza ego-kiak.**

Terapiak arrakasta izan dezan, psikologoek bezeroengan jarri behar dute arreta, eta bezeroak ez dira jokabide arazotsuak edo kezkarriak dituzten erabiltzaileak, baizik eta erabiltzaile haiei arreta ematen dieten lehen mailako profesionalak.

Beharrezkoa da hurrengo alderdiak lantzea hala laguntzako profesionalekin, nola jarrera kezkarriak dituzten subjektuen familiekin:

- emozioak: zer sentitzen dugun bere jokaeraren bidez erronka jotzen dugun pertsonari buruz, horrek gure erantzuna baldintzatzen baitigu.
- pentsamenduak: zer uste dugun bere jokaeraren bidez erronka jotzen dugun pertsonari buruz, horrek gure erantzuna baldintzatzen baitigu.
- jokabidea: zer uste dugun jokaerari berari buruz, horrek erronkei erantzuteko dugun maneran eragiten baitu.

Erabiltzaileei laguntzeko profesionalak duten jokabidearen analisi funtzionala deitzen zaio horri. Azterketa hori funtsezkoa da Jokabide-laguntza Positiboko Plan bat (JLPP) eraikitzeko zentroan, profesional guztiek argi izan dezaten nola jokatu lehen, bigarren eta hirugarren mailako aurreikuspenetan.

Lidergo praktikoak esan nahi du jokabide-teknikariak taldearen ondoan egonen direla eta lagunduko dietela tresnak nola erabili azaltzeko.

Beharrezkoa da laguntzako langileen jarrerak lantzea, jarrera negatiboak esperientzia ezaren edo desinformazioren ondorio direlako, eta JLPren porrota eragin dezaketelako.

## **Profesionalek erabiltzen dituzten tresnak**

- JPen atribuzio kausalen eskala.
- Erreakzio emozionalen eskala.
- 3SQ- Burnout.
- Autoeraginkortasunaren eskala.
- Jokabide-laguntza Positiboko Plana egiaztatzeko eta hobetzeko zerrenda.
- Jokabide-laguntza Positiboko Plana frogatzeko zerrenda.

## **Laburbilduz, gure protokoloak honelakoa izan behar du**

- Profesionalen prestakuntza.
- Neurtzea eta diseinatzea, tresna egokiak erabiliz analisi funtzionalean.
- Analisi multimodalera zabaltzea.
- Ebaluazio Teknikorako Plana (MAYA), datuen analisiarekin.

# Arretaren magia

Marcos Ortega Noguera  
Mago profesionala  
mago@marcosortega.es

Trikimailuez eta tranpez gain, ilusionistek tresnak eta trebetasunak dituzte distrakzioa edo despistea kontrolatzeko. Magia sentazioa ikuslearen garunean gertatzen da beti. Garunari engainatzen zaio, ez begiari. Garunaren arreta desbideratzeko mekanismoak ulertzea funtsezkoa da magoentzat. Distrakzio hori ulertu behar da arreta komunikazio eraginkor baterantz bideratzeko. Horixe da arretaren magiaren bidea.

Gako-hitzak: magia, ilusionismoa, komunikazioa, misdirection.

## Zer da magia?

RAEren arabera, lehen adieran, *ezkutuko artea edo zientzia da, natur legeen aurkako emaitzak lortu nahi dituena, ekintza edo hitz jakin batzuk erabiliz edo izaki imajinagarrien esku-hartzearekin*. Definizio hori ezagutza garaikidearen esparrutik kanpo geratzen da.

Bada bigarren definizio bat, bizi garen garaira hobeto egokitzen dena: *Baliabide naturalak erabiliz itxuraz naturaz gaindikoak diren efektuak eragiten dituena*.

Ekintza magiko orotan, oinarri bat dago miragarri itxura lortzeko. Magiaren ilogika deritzona da.

Definizio horrek balio digu emango diogun ikuspegi komunikatiboa jorratzeko. Hizkera arruntean, magiari ilusionismoa ere esaten zaio, baina ilusionismoaren definizioa oso desberdina da

*"Ilusionismoa:*

*(magia deritzo arrunki) arte eszeniko, subjektibo eta narratiboa, abilezia- eta argitasun-ikuskizuna, itxuraz miragarriak eta ulertezinak diren efektuak artifizialki sortzean datzana, efektu horien kausa zein den erakutsi gabe."*


Adiera horretan, lotura-eremu oso desberdinak ikus ditzakegu:



- Arte eszenikoa: eremu jakin bat behar da jarduera antzetzeko.
  - Subjektiboa: ikusleak sentsazio bat du, magiaren ilogika deritzoguna.
  - Narratiboa: komunikazioa beharrezkoa da ilusioa sortzeko.
  - Abilezia eta buru-argitasuna: trebetasun digitalak (prestidigitazioa), buru trebetasunak (trikimailuak, teknologia ezezagunak, etab.) edo bien konbinazioa.
- Magia sentsazioa sortzeko, komunikazioa edo komunikazio-egintza bat izan behar da.

## Komunikazio egintza

Interesgarria da jakitea magoek nola aztertu duten komunikazioa, eraginkorragoa egiteko eta, horrez gain, nolabaiteko zarata gehitzeko, magia edo ezinezkotasun efektua sortu ahal izateko.



Nabarmen dezagun zerbait: Neurozientziak gure garunaren indarguneak eta ahulgu-neak aztertu ditu. Bai funtzionamenduari dagokionez, bai pertzepzioari dagokionez, probetxuz erabil ditzakegun ahuleziak badaude; zarata horrek komunikazio-egintza aldatzen du, eta informazioa ezkutatzea ahalbidetzen du, garunari mezu argia bidaliz hark inolako etenik antzeman gabe.

Gure garunak engainatu egiten gaitu. Hona hemen adibide interesgarri bat:

**Diapositiba hau etenik gabe irakurtzeko gonbita eginen diogu irakurleari.**



Irakurleen % 80k esaldia irakurtzen du testuan errepikatzen den BAT hitza errepikatu gabe. Bi informazio-lerrotan kokatuta dagoenez, hitz ikusezina da irakurle gehienentzat. Are gehiago guk irakurtzen badugu errepikatutako hitza errepikatu gabe. Hau da, esaldia irakurtzera gonbidatuko dugu eta, guk irakurtzean, bi aldiz agertzen den hitza behin baino ez dugu irakurriko. Jarrai dezagun komunikazioaren zarata aztertzen.

## Misdirection

Zarata horri, teknikoki, "misdirection" esaten diogu ilusionistok, eta euskaraz ez dugu ordain petorik. Arturo de Ascaniok DISTRAKZIOA esaten zion arren, beste egile amerikar batzuek, hala nola Tony Slydinik, arretaren desbiderapena esaten zioten. Hau da, komunikazioaren kanala eta mezua egonik, kanpoko elementuren bat gehituko dugu, igorleak egiten duenaren zati bat oharkabean pasa dadin arreta desbideratzeari esker.

Mezua iritsiko zaio hartzaileari, baina igorleak zati bat ezkutatuta; hartzaileak ez dio antzik emanen zati horri, arreta handiagoa jarri baitie mezuaren beste zati batzuei, edukiaren zati bat ezkutatzen zuen "distrakzio" bat baitzegoen.

Funtsean, bi misdirection mota daude:

### Misdirection fisikoa:

Ikusleen arreta leku jakin batean jarraraztea da, horretarako baliabide fisikoak erabiliz, hala nola harantz begiratzea edo seinalatzea, edo gorputz-adarrekin mugimenduren bat egitea. Adibidez, bi pertsona elkarrengana hurbiltzean bietako batek eskua luzatzen dio besteari, eskua estutuz agurtzeko asmoz. Besteak modu automatizatuan



begiratuko dio luzatzen dioten eskuari, eta bere garunak prozesatuko du agurtu nahi dutela, eta erantzun egokia emango dio eskuarekin agurtzeko gonbidapenari.

### **Misdirection psikologikoa:**

Garuna errutinazko zereginenez (galdetzea, gogoratzea, hitz egitea, barre egitea) okupatzean datza, arreta horietara bideratuz. Misdirection horren adibide bat: elkarrizketa formal batean, datu bat gogorarazteko galdera bat egitea. Hartzailleak galdera jaso bezain laster, garunak erantzuna gogoratu eta artikulatu egiten du. Une horretan "distrakzio" handia da.

Barrea ere misdirection psikologikoaren sortzaile handia da. Igorleak barrea sortzea eragiten duen galdera bat eginez gero, nahi gabeko mugimendu asko sortzen dira hartzaillearengan, "distrakzio" balio dutenak.

Interesgarriena zera da: kontzentrazio- eta sintesi-maila handia izan arren, arreta-desbideratze horiek guztiz oharkabeak eta kontrolaezinak dira hartzaillearentzat. Hori igorlearen aldeko alderdi bat da beti komunikazio batean.

## **Helburua**

Komunikazio asertibo batetik eta kontzentrazio-maila handi batetik abiatuta, gure erreminta-kutxan arretaren kontrola eta "distrakzioa" ere erants ditzakegu. Gure garunak zer mekanismotan engainatzen gaituen eta nola "hackeatzen" den jakiteak aukera ematen digu komunikazio batean efizienteagoak eta eraginkorragoak izateko.

Lehen esan dudan bezala, mekanismoak ezagutzeak ez du esan nahi horietan trebeak garenik. Trebetasun hori lortzeko, entrenatu behar da. Komunikazioa menderatzeko eta "distrakzioak" gure alde aprobetxatzeko, lan handiko prozesua egin behar da, eta kontrol eta arreta handiak lortu behar dira. Tresna berri bat da, gure erreminta-kaxari gehitzeko, jokabide-laguntza positiboaren testuinguruan.

Beti diot: nora iritsi nahi dugun jakitea lagungarria da helburua lortzeko. Komunikazioa lantzeari eta distrakzioak kudeatzeko modu hori ezagutzeari esker, eraginkorragoak izanen gara.

# Jokabidea eta babesteko neurri erreaktiboak

**Andrés Muñoz Garde HBIP**

Miriam Hernández Barahona (Pedagogia Terapeutikoko irakasle  
espezialista), Charo Casas Oscoz (hezkuntza orientatzailea)

mcasasosco@educacion.navarra.es

mhernan3@educacion.navarra.es

Jokabide nahasmendu larrien intzidentzia handia da hezkuntza bereziko ikastetxeetan. Jokabide Laguntza Positiboaren (JLP) ikuspegiak aukera ematen du jarduketa protokolizatuak –prebentziozkoak nahiz erreaktiboak– edukitzeko, jokabide nahasmenduak dituzten ikasleei erantzun hezigarria eta errespetuzkoa emateko.

Gako hitzak: JLP, jokabide nahasmenduak, prebentzioa, jarduketa intrusiboa.

## Testuinguruan jartzea

Andrés Muñoz hezkuntza bereziko ikastetxe publikoa da, Iruñeko Iturraman auzoan dagoena. Kokapen horri esker, gure ikasleak eta haien familiak osasun zerbitzuetatik, gizarte laguntzako zerbitzuetatik eta aisiako eta astialdiko zerbitzuetatik hurbil daude.

Gaur egun, gure ikastetxean 92 ikasle daude, hiru urtetik hogeita bat urtera bitartekoak, derrigorrezko hezkuntza nahiz derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa egiten. Ikastetxeak hezkuntza etapa guztiak eskaintzen ditu: Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza Derrigorrezkoa (1. eta 2.), Bizitza Heldurako Igarotze Programa eta Lanbide Heziketa Berezia.

Ikasgela bakoitzean erreferentziatzeko bi pertsona daude, profil hauek dituztenak: Pedagogia Terapeutikoa eta Hezkuntza Laguntzako espezialista. Horiez gain, hainbat espezialitatetako profesionalak, irakasle ez diren langileak eta erizainak daude, gure ikasleen eta haien familien premiak modu pertsonalizatuan asebetetzeko.

## Jokabide Laguntza Positiboaren ibilbidea Andrés Muñoz ikastetxean

Ikuspegi honek 18/19 ikasturtean ekin zion bere ibilbideari, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (NHBBZ) Koldo Sebastiánen eta Sonia Arísteguiren aholkularitzaarekin.



Profesional horien esku-hartzea jokabide moldakaitz nabarmenak dituzten ikasleen premiei erantzutera bideratuta dago. Profesional horien helburu nagusiak ikastetxeko prebentzio kultura sortzea eta jokabide eremuan jardunbide egokiak ezartzea dira.

Lehenengo ikasturte honetan, Bizikidetzarako Talde Eragilea sortu dugu ikastetxean, gure eguneroko errealitatean dagoen jokabide problematikari erantzunen dion Jarduketa Protokoloari hasiera emateko. Hainbat eremutako profesionalak osatzen dute taldea: Erizaintza, Entzumena eta Hizkuntza, Hezkuntza laguntzako espezialista, Pedagogia Terapeutikoa eta Orientabidea.

2019/20 ikasturtean, Jokabide Taldeak aholkatzen jarraitu du gure ikastetxean, eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko lau ikastetxeen arteko elkarlaneko hainbat saio sustatu ditu. Jokabidearen alorreko jardunbide egokiak trukatzeko foro bat sortzea eta eremu horretan izandako esperientziak partekatzeko aukera izatea da topaketa horien helburua.

Andrés Muñoz ikastetxean ikusi dugu jokabideari buruzko lantalde bat sortu behar dela aurreko ikasturtean hasitako Protokoloaren lanketan sakontzeko. Lantalde hori Pedagogia Terapeutikoko eta Orientabideko profesionalak osatzen dute, eta Jokabide Taldearen laguntza eta aholkularitza jasotzen ditu. Lortu dugun zehaztaperen maila "erreminta kutxa" bat eginez gauzatu dugu, gehienbat lehen mailako prebentziora bideratutako baliabide eta estrategiekin.

## **Esku hartzeko eta ebaluatzeko protokoloa Andrés Muñoz ikastetxean**

### **Ohar orokorrak**

Babes neurri erreaktiboak jasotzen dituzten programak egiterakoan egin behar den funtsezko lehen urrats bat jokabide desafiatazileei edo jokabide kezkarriei buruz dugun begiradaren gaineko gogoeta egitea da.

Errua leporatzen ez duen eta aurreiritzirik ez duen begirada garbirik gabe, Jokabide Laguntza Positibotik ezin izanen diogu aurre egin jokabide krisi bati.

Gogora dezagun pertsonaren inguruneak edo ingurunearekin modu eraginkorrean harremanak izateko aukera emanen dioten trebetasunik ez edukitzeak jokabidearen nahasmendua eragin dezaketela. Gainera, nahasmendu horiek asebate gabeko premiaren bat ezkutatzen dute beti.

Aurreko guztia kontuan hartuta, jokabide desafiatzaileei ikuspegi hezigarri eta errespetuzkotik egin nahi diegu aurre, zigor ikuspegitik soilik aurre egin ordez.

### **Zer printzipio eduki beharko genituzke kontuan babes neurri erreaktiboak jasoko dituen programa bat abian jartzerakoan?**

Jokabide krisian dagoen pertsonari laguntzeko, printzipio hauek hartu behar ditugu kontuan:

- Ikaslearen, gainerako hezkuntza komunitatearen eta ikastetxeko instalazioen eta gauzen babesa bermatuko duen ikuspegia.
- Irakasleen koordinazioa eta trebakuntza, trebetasunen inguruko prestakuntzaren eta lanketaren bitartez, inprobisazioa saihesteko.
- Prebentziozko ikuspegia, ez ikuspegia erreaktibo.
- JLPren eredu teorikoan oinarritutako esku-hartzea.
- Plangintza pertsonalizatua ikasle bakoitzarentzat eta haren egoerarako.
- Hezkuntza Komunitate osoak parte hartzea bizikidetzat giro egokia sustatzeko arduraduna den aldetik.
- Ikasleak kontrola galtzen duenean, laguntzeko betebeharra.
- Tratamendu hezigarria eta ez soilik zehatzailea.
- Ikaslearen duintasuna errespetatzen duen eta azaldutako jokabiderako egokia den ikuspegia.
- Familien derrigorrezko parte-hartzea prozesuan.

### **Zer alderdi dira lehentasunezkoak jokabide disruptiboa saihesteko?**

Funtsezko bost alderdiren inguruko hausnarketa egin behar dugu:

- Gogoratzea jokabide desafiatzailea duen pertsonak indartu behar ditugun ahalmenak eta indarguneak dituela.
- Jokabidearen Ebaluazio Funtzionala aplikatzea, jokabidearen aurrekariak identifikatzeko, aurrekari horien gainean lan egin ahal izateko eta desorekak agertzeko aukera minimizatzeko.
- Jokabide alternatibo egokiak erakustea.
- Trebetasun alternatiboen erabilera indartzea beti.
- Aldaketak egitea jokabidea hobetzeko aukera ematen duten testuinguruetan.

### **Zergatik nabarmentzen da prebentzioa jokabide moldakaitz nabarmenetan?**

Prebentzioa da gakoa. Esku hartzeko prozesu osoan, prebentzio estrategien hiru aldaerak aplikatzen dira:

- Lehen mailako prebentzioa: inguruneetan aldaketak egiten dira eta hezkuntza programak abian jartzen dira.

- Lehen mailako prebentzioa: inguruneetan aldaketak egiten dira eta hezkuntza programak abian jartzen dira. Bigarren mailako prebentzioa: jokabide aktibazioaren lehen seinaleak azaltzen direnean erabiliko ditugun baliabideak dira.
- Lehen mailako prebentzioa: inguruneetan aldaketak egiten dira eta hezkuntza programak abian jartzen dira. Hirugarren mailako prebentzioa: jokabidea gertatzen denean aplikatu behar ditugun estrategiak dira.

### **Zer egin behar dugu inguruneak aldatu eta trebetasun alternatiboak erakutsi aurretik?**

Funtsezkoa da pertsonaren jokabidea eta haren inguruabarrak ongi eta zabal behatzea. Informazio horrekin, aurrekariak eta ondorioak azter ditzakegu, baita portaera mota, portaeraren maiztasuna, intentsitatea eta abar ere. Horri “Jokabidearen Azterketa Funtzionala” deitzen zaio.

Orduan bakarrik, datu objektiboak ditugunean, proposatu ahal izanen dugu ingurunean aldaketak egitea (ikasteko egoerak, gertaera sozialak, gertaera fisiologikoak...) eta dagoen ikasleari zer trebetasun alternatibo erakutsi beharko genizkiekeen erabaki ahal izanen dugu. Datu egiaztatuak ditugunean, banan banako erantzuna eman ahal izanen diegu gure ikasleei.

### **Ingurunearen zer aldaketa mota diseina ditzakegu?**

Ingurunearen aldaketek (ingurumenekoak, pertsonalak eta sozialak) helburu hauek izan ditzakete:

- Ingurune ulergarriak eta aurreikusteko modukoak diseinatzea, eta eguneroko jarduerak espazioan eta denboran mugatzea ikusizko euskarriak erabiliz.
- Gertaera bat baztertzea, deuseztatzea edo aldatzea jokabide problematikoa gertatzea prebenitzeko.
- Zeregin zailak eta beste zeregin errazago batzuk txandatzeta, edo ikasleak dagoeneko menderatzen dituen zereginak ikasten ari den beste zeregin batzuekin nahastea.
- Jokabide positiboak suspertuko dituzten egoera berriak gehitzea eguneroko errutinari (zereginak, materialak eta jarduerak aukera ditzan ematea ikasleari, ikaslearen zaleztasunak aintzat hartzea, elkarlaneko ikasketa teknikak erabiltzea...).
- Gertaera negatiboen inpaktua neutralizatzea (atsedenaldiak eskaintzea, jarduera kopurua murriztea nolabaiteko asaldua nabaritzen denean...).

### **Zeintzuk dira gakoak trebetasun alternatiboak irakasteko garaian?**

- Trebetasun horiek jokabide problematikoaren funtzio berbererako balio behar dute. Ikasteko erraz samarrak diren trebetasunak hautatuko dira.
- Lortu nahi diren emaitzak azkar ematen dituzten trebetasunak irakatsiko dira.
- Ez da trebetasun alternatiborik irakatsiko jokabide problematikoa gertatu bitartean edo gertatu eta berehala.
- Hainbat egoeratan erabil daitezkeen trebetasunak hautatuko dira.
- Ahaleginak egiten dira ikasitako jokabide alternatiboa ikaslearen ohitura bihur dadin, ikaslea bere testuinguruetara eramateko gai izan dadin.

### **Zer trebetasun mota irakats genitzake?**

- Trebetasun funtzional baliokideak irakats ditzakegu, hau da, jokabide problematikoaren funtzio bera betetzen duten jokabideak (adibidez, eskatzen irakastea, hautatzen irakastea, beren autonomia edo beren trebetasun sozialak areagotzen irakastea...).
- Trebetasun orokorren irakaskuntza (arazoak konpontzeko, autokontrolerako, hautatzeko, aisiarako eta astialdirako trebetasunak...).
- Aurre egiteko eta tolerantziarako trebetasunen irakaskuntza. Hau da, ikasleei irakastea nola egin behar dieten aurre edo nola onartu behar dituzten egoera zailak, itxaroteko denborak...

### **Ba al dago jarduteko prozedura orokorrik jokabide nahasmenduak azaltzea prebenitzeko?**

Beste eremu batzuetan bezala, osasun eremuan adibidez, prebentzioa funtsezkoa da gure hezkuntza lanean, gure ikasleen bizi kalitatea hobetzeko eta jokabidearen alorreko arazoak azaltzea saihesteko.


Jokabide nahasmenduak ekar ditzakeen edozein hezkuntza egoeraren aurrean, prozedura bat aplika dezakegu urratsetan banatuta.

- Jarduketa oro lehen mailako prebentzio neurriak aplikatuz hasi beharko litzateke, gertatzen diren jokabide nahasmendu gehienak gure esku-hartzeekin aurrea hartu eta saihestu ahal izateko.
- Lehen mailako prebentzioak ondoriorik izan ez duenean, estrategia erreaktiboak egiten ditugu. Nabarmendu behar dugu prebentzioa egiten dela une oro, lasaitasunera eta kontrolera bideratzeko garaiz baikaude beti.

### **Zer da lehen mailako prebentzioa?**

Esku-hartze horretan hainbat urrats eta ohar daude

- Lehen urratsak honako hau esan nahi du: "Sentsibilizatzea begirada aldatzeko". Funtsezkoa da profesionalok gure begiradaren "betaurreko eraldatzaileak" jartzea, gertatzen zaizkigun egoerak eta gure jarduketak objektibotasunez ulertu ahal izateko. Profesionaltasunez jardun nahi badugu, alde batera utzi behar ditugu alde aurretik pentsatutako ideiak eta gure aurreiritziak. Era berean, modu kritikoa autoebaluatu behar dugu gure jarduteko modua. Ikuspegi hezigarritik eta gure ikasleen duintasuna errespetatzen duen ikuspegitik esku hartzen ari gara? Saiatzen gara egunean egoten eskuragarri ditugun teknikei dagokienez eta aurre egin behar diogun egoeraren aurrean teknika egokiena hautatzen?
- Prebentziosko jarduketaren bigarren urratsa honako hau da: "laguntzeko ulertzea". Egoera ulertzen badugu bakarrik lagundu ahal izanen diegu behar bezala gure ikasleei. Horretarako, ongi behatu behar da jokabidea eta, ondoren, jokabidearen analisi funtzionala egin. Horretarako, arrazoizko denbora batez behatu behar dira jokabidearen alderdiak, hala nola jokabidearen intentsitatea, maiztasuna, lekua eta mota, baita jokabidea zer egoeratan eta zer pertsonarekin ager daitekeen ere. Informazio hori edukita eta berau taldean aztertu ondoren, jokabide horren funtzioari buruzko hipotesi zuhurrak atera ahal izanen dira. Edo beste era batera esanda, jokabidearen funtzioa



zein den jakin ahal izanen dugu, “zertarakoa”. Horra iristeak ahalbidetuko digu funtzio bera modu moldatuagoan betetzen duten ordezeko jokabideak bilatzea.

- Hirugarrenik, “aldatzeko jardun” behar dugu. Jokabideari buruzko analisi funtzionala egiten bada, nahi ez den portaera agertzea prebenitu ahal izanen da, portaera bideratu ahal izanen da eta pertsonaren premiei erantzunen dieten jokabide berri moldagarriagoak ezarri ahal izanen dira.
- Azkenik, prebentziozko neurriak ezar ditzakegu. Aurreko ibilbide osoa funtsezkoa da ikasle bakoitzari gehien egokitzen zaizkion neurriak diseinatzeko garaian. Pertsona eta haren jokabidearen inguruabarrak sakon ezagututa eta gure objektibotasunetik eta eguneratze profesionaletik abiatuta soilik egin ahal izanen dugu prebentzio ona. Prebenitzea ingurune sozialak, fisikoak eta pertsonalak egokitzea da, ikaskuntza errazteko. Prebenitzeak esan nahi du, halaber, gure ikasleei irakastea ez dituzten eta bitarteko moldatuagoak erabiliz nahi diren emaitzak lortzeko aukera emanen dieten trebetasunak.

## **Zer gertatzen da lehen mailako prebentzioak funtzionatzen ez duenean?**

### **Estrategia erreaktiboak.**

Estrategia erreaktiboak larrialdi prozedura bat dira ikasleek eta alboko inguruneko beste pertsona batzuek kalterik ez izateko, edo krisi intentsitatea gutxiagotzeko prebentziozko neurriak aski ez direnean.

### **Estrategia erreaktiboek lehen mailako prebentzioaren osagarri bat izan behar dute, inoiz ez estrategia nagusia.**

Jokabidea arriskutsua ez denean, neurri errazekin has gaitzke, hala nola jokabidea kontuan ez hartzea, beste jarduera batera birbideratzea, entzute aktiboa, eta abar.

Erreakzio agresiboaren aurretik jokabideek gora egin dezaketela ohartarazten duten aktibazio seinaleak egoten direnez (imintzioak egitea, oihu egitea), beharrezkoa da jokabide horiek intentsitate handiagoko beste jokabide batzuekin lotu ez daitezen saiatzea. Kate agresiboa eteten dugu.

### **Aktibazio seinaleei adi egotea eta haien aurka jardutea jokabideek gora egiteko egon daitezkeen aukerak gutxiagotzeko modu bat da.**

Jokabideak “eztanda” egin aurretik, denbora tarte bat dago hitzezko edo hitzik gabeko komunikazio bideratzailearen bitartez jarduteko. Mezu egokiak, neurrizko keinuak eta jarrerara lasaia funtsezkoak dira.

Kate agresiboa etetea lortzen ez bada eta jokabideak eztanda egiten badu, komenigarria da profesionala kontrolik gabeko jokabideak dituen pertsonaren eta haren hurbileko berdinaren artean jartzea. Tartean jartzea hetero-babeserako mekanismo bat da, autobabesa ere kontuan izan behar duena.

## **Eta jokabide krisi larri batera iristen bagara? Jarduketa intrusiboa.**

Batzuetan, ikasleek krisi agresibo larriko gertakariak izan ditzakete, zeinetan ikastetxeko profesionalak berehala esku hartu beharko duten ikaslearentzat berarentzat edo bertan dauden beste pertsona batzuentzat arriskutsuak izanen diren egoerak edo kalte material handiak egin ditzaketen egoerak saihesteko. Jarduketa intrusiboaz ari gara. Kasu horietan,



kontuan izan behar dugu ez dela hizketan aritzeko unea, laguntza eskatu behar dugula eta gure hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioak patxadatsua izan behar duela.

Ondoren, krisian dagoen pertsonarekin batera, aldezturik prestatutako leku batera joanen gara. Segurtasuneko, lasaitasuneko eta errespetuko jarrera izanen dugu beti, eta mezu laburrak eta lasaiak emanen ditugu. Ez dugu ahaztu behar kontrola berreskuratzea lortu nahi dugula.

### **Nolakoak izan behar dute gune neutroko egonaldiak eta irteerak?**

Krisian dagoen pertsona ez dugu inoiz bakarrik utzi behar. Funtsezkoa da konfiantzazko harremana izatea, gu bitartekariak eta erraztaileak izateko.

### **Zer gertatzen da kontrola berreskuratu ondoren?**

Lehenik eta behin, ziurtatuko dugu pertsona lasaitu dela. Horixe da hitz egiteko eta hausnarketa egiteko unea. Balioetsi beharko dugu eragindako kaltea konpontzeko une egokia ere baden; horretarako, pertsonaren ezaugarriak eta ahalak hartuko ditugu kontuan, baita gainerako inplikatuaren egoera emozionala ere. Funtsezkoa da, halaber, gertatutakoa erregistratu eta ebaluatzea eta familiari jakinaraztea. Gainera, funtsezko alderdi bat da jarduketa intrusiboan esku hartu duten profesionalen erreparazioa lortzea.

### **Zer eduki behar dugu kontuan jokabide krisi larriko egoera baten aurrean jarduketa intrusibo egokia egiteko?**

- Noiz egin behar da?: tartean jartzea aski ez denean eta/edo jokabide agresiboak jarraitzen duenean edo handitzen denean.
- Zertarako?: batez ere babesa bermatzeko, bai krisian dagoen pertsonarena, bai bere berdina eta profesionalena.
- Nola?: aldezturik diseinatutako eta protokolatutako, entrenatutako eta bat-batekoa ez den erantzuna behar da.
- Profesionalen jarrera: alderdi garrantzitsuenetako bat da.
  - Egiten dugunak edo egiten ez dugunak gure helburura hurbilduko gaitu edo handik urrunduko gaitu. Helburua lasaitasunera bideratzea da.
  - Ildo horretan, gure hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa zaindu behar ditugu. Komunikazio horrek patxadatsua izan behar du, eta sortu nahi dugun jokabideari buruzko mezu laburrak eta deskribatzaileak eman beharko ditugu. Ez da hizketan aritzeko unea.
- Nork?: esku hartzeko taldeak, aldezturik egituratuak eta egin behar diren urratsen inguruko prestakuntza jaso dutenak eta trebatuta daudenak.
  - Komenigarria da talde horiek krisian dagoen pertsonaren inguruko pertsonak osatzea, eta krisian dagoen pertsonarengan eragin handiena duen pertsona izatea talde horiek zuzenduko dituenak.
  - Era berean, garrantzitsua da krisi egoera areagotuko ez duten langileek parte hartzea. Kasu horretan, argi geratu behar du lasaitasuna lortzen laguntzen ez duenak alde egin behar duela leku horretatik.

**BABES-NEURRI ERREAKTIBOAK:  
AUTOKONTROLAREN BERRESKURATZE GIDATUA**

**Orokortasunak**

- Noiz
- Interposizioa ez da behar adinakoa
- Jokabide agresiboak bere horretan dirau

Zertarako

- Babesa

Nola

- Entrenamendua
- Sekuentzia protokolizatua
- Nork
- Esku-hartza taldeek

Jokabide profesionalak

- Komunikazio epela; mezu laburrak, izendunak eta lortu nahi den jokabidea deskribatzen dutenak

**Esku-hartze taldeak**

Eskakizunak

- Prestakuntza, koordinazioa eta entrenamendua
- Taldean egoteko borondatea
- Parte-hartzaile egokiak
- Zuzendaritza-taldeko norbait, erizaina, orientatzailea, tutorea, hezkuntza-laguntzako espezialista,
- familiekin
- komunikatzeko bozeramailea

Aholku orokorrak

- Ez behartu artikulazioak, eta ez eragotzi arnasketa
- EZ galdu bistatik
- Joanarazi egoera okertzen dutenak

**Eraman toki lasai batera**

Nork zuzentzen du

- Pertsona batek zuzentzen du soilik
- Esperientzia handiena eta pertsonarengan eragin handiena duenak

Zenbat denborak

- Ahalik eta denbora laburrenez

Garrantzitsua!!!

- Aldendu laguntzen ez dutenak

**Kontrola berreskuratu ondoren**

- Egiaztatu lasaitu dela
- Hitz egin, hausnartu eta konpondu, une eta leku egokian
- Erregistratu gertatutakoa
- Jakinarazi familiari
- Inplikaturako langileen konponketa-taldeak

### Jokabide problematikaren aurrean izan dugun jarduketaren alderdi garrantzitsu bat nabarmendu beharko bagenu, zein izanen litzateke?

Ikusi dugu baliabideak, prebentziozko estrategiak eta estrategia erreaktiboak ditugula jokabide problematikoari arrakastaz aurre egiteko. Baina hori guztia alferrik da begirada egokia ez badugu... begira enpatikoa, aurreiritzirik gabea, irekia, aldez aurretik pentsatuta ditugun ideiek mugatzen ez dutena.

Begirada esku-hartze ororen giltza da, hori gabe ez dago ezer. Ilusioz egindako aha-  
leginaren, ikaste onuragarriaren eta benetakoaren atea irekitzen duen giltza da. Azken  
batean, gure ikasleen bizi kalitatera eta zoriontasunera eramaten gaituen giltza da.

# Bizikidetzaren kudeaketa

## El Molino Ikastetxea

Elvira Lacunza Lafuente (Hezkuntza zuzendaria),  
Beatriz Arbilla Barbárin (Ikasketaburua)  
direccion@colegioelmolino.com  
b.arbilla@colegioelmolino.org

Azalpen honetan, El Molino ikastetxearen (Ciganda Ferrer Fundazioa) ibilbidea ezagutaraziko dugu; hasiera-hasieratik instituzioa funtsezko hainbat oinarriren gainean eraiki da, eta horien artean bizikidetzaren kudeaketa agertu izan da ardatz gisa, haren inguruan antolatu direlarik eskola-jardueraren osagai guztiak. Osagai horiek balioak dira, fokua pertsonarengan jartzen dutenak, aurrera eramateko hainbat teknika baliatzea eskatzen dutenak, eta barneratu eta zabaldu ahala, bizitzeko moldea bilakatzen direnak. Bat egiten dute arretaren filosofiak eta teknika positiboen aplikazio prebentibo eta proaktiboak, trebetasun funtzionalak hezteko eta indartzeko.

**Gako hitzak:** bizikidetzak, prebentzioa, jokabide laguntza positiboa, berotasuna, etika eta tratu ona.

Ciganda Ferrer Fundazioa 1976an eratu zen, Iruñean eta Iruñerrian desgaitasun intelektuala duten pertsonen hezkuntza eta okupazio premiei erantzuten zien obra sozial bat sortzeko helburuz. Horretarako, heziketa bereziko ikastetxe bat sortu zuen 1978an, eta hari erantsi zitzaizkion ondoren deskribatzen diren jarduketak.

Lehenbiziko etapa batean, eta 1978ko konstituzioaren babesean, hainbat legek markatu zituzten desgaitasuna duten pertsonen arretaren gaineko ikuspegi integratzaile eta banakakoa ezartzen duten printzipioak eta helburuak, besteak beste, 1979ko Hezkuntzaren Lege Orokorrak, hark definitzen baitu hezkuntza bereziaren helburua gizarteratze eta laneratze ahalik eta osoenak lortzeko prestatzea dela, edo Ezinduen Gizarteratzeari buruzko LISMI Legea, 1982koa, hark planteatzen baititu hainbat printzipio, besteak beste normalizazioa, integrazioa, sektoreka antolatzea eta norbanakoa kontuan hartzea, ezgaitasuna duten pertsonekin lan egiteko diseinatzen diren planetan jasotzen direnak.



Testuinguru horretan hasi zen El Molino ikastetxearen jarduera pedagogikoa, 1978an, lanbide heziketa bereziko ikastetxe gisa, 14 urtetik gorako ikasleentzat, eta zuzeneko arretarako lau profesional zituela: psikologoa, gizarte langilea eta tailerreko bi irakasle.

Hasieratik planteatzen diren helburuen ardatza da pertsonari prestakuntza osoa, autonomia eta gaitasuna ematea lanean aritzeko aukera izan dezan, ahalegin bereziak eginez funtsezko hiru arlotan: profesionala, pedagogikoa eta soziala.

Une hartan aurrera eraman ziren zenbait jarduketa oso berritzaileak izan ziren, eta gaur ere hala irauten dute, esaterako:

- Batzarra, solaserako eta parte hartzeko gune gisa ulertuta, non ikasleek beren proposamenak egiten dituzten, haien gaineko iritzia eman eta onartzen dituzten, etab.
- Ikastetxeko Egunkaria, “Omega” izenekoa eta lan tresna gisa sortu zena, lengoia eta komunikazioaren arloko “Adierazpen tailerra” jardueraren baitan.
- Talde Dinamika, Esther Ruiz ikastetxeko psikologoaren txostenean jasotzen denez (1978) “ikasleen hezkuntzaren kalitatea hobetzeko asmoz eratutako ekintza gisa planteatzen dena, ikastetxea, lantokia ez ezik, bizikidetzeta eta garapen lekua ere badelako. Jarrera eta jokabide sozial egokiak sustatzen ditu. Beren buruari erreparatzen ikasten dute, sentimenduak identifikatzen, portaerak ulertzen eta jarrera aldaketa sortzen. (...)”.

Hona hemen aurrera eraman ziren beste hainbat jarduketa:

- Profesionalen prestakuntza; 1983an, esaterako, ikastetxea taldeko gainbegiratze-programa bat egitera bultzatu zuen, non askotariko gaiak tratatu ziren, zenbait ikasleek erakusten zituzten jokabide nahasmenduen inguruan.

- Familiei prestakuntza ematea Guraso Elkartearen bidez, 1981ean; han planteatu ziren haien seme-alaben garapena sustatzea, zoriotsu izaten laguntzea eta bizikidetzaren erraztea.

Bigarren etapan, lege berriek hartu zuten indarra, esaterako LOGSEk 1990an, edo Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza antolatzeko Errege Dekretuak, 1995ekoak, eta aurrera eraman ziren beste hainbat jarduketa aipagarri, esaterako NHBBZ sortzea 1993an, hezkuntza bereziaren bidea markatuko zutenak, hurrengo urteetan.

El Molino Ikastetxean beste hainbat jarduera eta proposamen abiarazi zituzten, go-goeta, eskaera, prestakuntza eta abarren ondorioz, beti ere planteatutako helburuetara orientatuak.

1989tik 1991ra bitartean kontsultatutako dokumentazioaren arabera, ikastetxeko helburu orokorretan jasotzen ziren, besteak beste, honako hauek: "Norberaren buruaren gaineko irudia eta erantzukizuna, eta lagunarteko eta inguruarekiko harremanak erraztuko dituzten jarrerak eta balioak ikastea eta garatzea, adibidez, gizarte eta bizikidetzaren arauak ezagutzeko, onartzea eta betetzea" eta beste hainbeste, adibidez, erreferentzia esparru bat garatzea balio etikoen inguruan: erantzukizuna, begirunea, bizikidetzaren eta zintotasuna, etab. Ebaluazioa hiru hilean behin egiten da, gaitasunak eta jarrerak jasotzen dituzten erregistroen bidez, behaketa sistematikoa baliatuz, ikasle bakoitzaren ebaluazio jarraitua eta hezigarria egiteko.

Aldi horretan, taldeen eta familien prestakuntza egiten da jokabide aldaketaren eremuan, ikuspegi positibo batetik, argi izanda oso garrantzitsua zela, ikasleen arretarako eta bizikidetzarako, horren inguruko gaitasunez hornitzea. Aldi berean, komunikazioa eskura zituzten sistema guztien bidez (SAAC, trebetasun sozialak...) sustatzeko tresnen inguruko prestakuntza eskaintzen zen, beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa duten portaera-erregulaziorako baliabide gisa.

Bestelako proposamenik ere izan zen, analitik eta esperientziatik sortutakoak, baina ikastetxeari ez zegozkion hainbat arrazoi tartean zirela ez ziren gauzatu, esaterako, zerbitzuak bateratzea Gizarte Ongizatearekin eta Osasun Mentalarekin. kontaktu eta truke profesionalak ere egin ziren, prestakuntza guneen bidez, edo laguntzeko eta beren eza-gutza eskaintzeko interesa erakutsi zuten pertsonen ekimenen bitartez. Ez zen, ordea, horien ondorioz gauzatu erakundearen arteko sistematika formalik. Horren eskaera eten-gabea izan da ikastetxearen historian.

**Erakundeak hazten eta aurrera egiten jarraitzen du, lehen aipatutako zutabeetan oinarrituta, eta horiek gidatuko dituzte, halaber, ondoko programak eta zentroak:**

- Familiei orientazioa emateko zentroa, familiei laguntzeko eta bidea erakusteko (1991).
- Komunikazio eta Lengoaia tailerra sortzea (1991), trebetasun sozialak eta hitzezko nahiz hitzik gabeko komunikazioa lantzeko, komunikazio sistema alternatiboaren bidez.

- Aisialdiko eta Denbora Libreko Programa Gaztea (1993) garatzea, aisialdi komunitario normaldurako sarbidea errazteko eta gizarteratze handiagoa lortzeko, behar diren laguntzak emanez.
- El Molino Kirol kluba sortzea, kirolaren bidez sendotzeko garapen fisikoa ez ezik, harremanen eta komunitatearen garapena ere.
- Aurrerago hasi zen sartzan ikastetxeetan Kalitate sistema, eta aukera zabaldu zuen, besteak beste, aurrera eramandako prozesuak norberaren tresnak erabiliz sistematizatzen.

Ibilbide horretan aurrera eginez, hirugarren aldiari sartu ginen, 2000. urtearen inguruan. Kontzeptu eta lege esparruak berriro direla aurkitzen dugu, desgaitasun intelektuari buruz pentsatzeko era berri bat ekarriz, giza fenomeno gisa ulertuta, jatorria duena faktore organiko edo/eta sozialetan, horien ondorioz sortzen direlarik mugapen funtzionalak, adimenaren mailan nahiz jokabide egokitzailan. Horren oinarrian, bizi kalitatearekin eta funtsezko alderdiekin, esaterako jokabide autodeterminatuarekin, lotuta dauden emaitza pertsonalek ematen duten informazioa dago. Beste puntu azpimarragarri bat da Pertsonen Zentratutako Plangintza, metodologia horren helburua, hain zuzen ere, nork bere planak eta etorkizuneko asmoak formulatzea baita, adierazgarriak zaizkion pertsonen laguntzaz.

Une honetan irakaskuntzaren jardura arautzen duten erreferentziako arauak hauek dira: Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa (2006), Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioa (2006), eta Nafarroan, zehazki, 2008ko Foru agindua, aniztasunarekiko erantzuna arautzen duena eta ezartzen duena ikastetxe guztiek Aniztasunari Erantzuteko Plan bat izan behar dutela, eta hortik abiatuta antolatuko dutela ikasle guztien premien erantzun egokia.

Testuinguru horretan murgilduta, El Molino ikastetxeak hainbat helburu planteatu ditu, zentroa ezaugarritzen duen ildoari jarraipena emanez. Aipatzekoak dira:

- Lehen aipatutako jokabide egokitzaila eta autodeterminazioa bideratzea, komunikazioaren aukera guztiak sustatzea (ahozkoa, keinukaria, SAAC direlakoak...) lengoaiaren funtzionaltasuna eta haren alderdi sozial eta erregulatuak bultzatuz.
- Antolamendua planteatzea banakotasun, gizarte garapen eta bizikidetzaren irizpideak aintzat hartuta.
- Ebaluaziorako prozesu berriak implementatzea: eskala estandarizatuak erabiltzen dira, esaterako, Verdugoren Laguntzen Intentsitatearen Eskala (2007), curriculum ebaluazioak, egokitze trebetasunen inbentarioak, etab., guztien artean osatuz informazio bilketa sistematikoa.

Eta horrek guztiak ondoko jarduketara hauek dakartza:

- Paradigma aldaketa horren baitan irakasleei emandako prestakuntza. Gure jarduerak, esaterako ekinoterapia (2002/2003 ikasturtea), zakur-terapia, biak ere orain hezkuntza esku-hartze espezifikoko deitutakoak, ikasleei ongizatea eta erregulazioa motibatzen esperientziak eskaintzeko, eta era horretan, erlaxatzeko eta ikasteko egokierarik onena sortu ahal izateko.



- Eskolaz kanpoko jarduerak, esaterako TELMO Antzerki taldea, autoestimua eta sozializazioa indartzen dituen gaitze kolektiboaren ereduak baita, autonomia pertsonala eta soziala sustatzen dituen eta gizarteratzeko aukerak zabaltzen dituen, ikasleen ahalmenak ezagutaraziz, “Ez gehiago, ez gutxiago” antzezlanarekin.
- Metodologia aktiboak, adibidez proiektuak lan egitea, hezkuntza komunitate osoa inplikatzen duena, edo hezkuntza emozionala.

Une hartako egintza aipagarria izan zen Hezkuntza Departamentuak proposatutako sare arruntetan parte hartzeko egin zen ahalegin handia, hasieran hezkuntza bereziko zentroak ez baitziren aintzat hartu horien partaide gisa. Sare horietan parte hartzeko eskaera egin zen, programak ikastetxeko ikasleen beharretara egokituta. Beraz, 2005ean, Osasuna sustatzen duten Eskolen Sarea lanean hasi zen, eta handik abiatu zen “Osasunerako hezkuntza. Desgaitasuna duten pertsonen bizi kalitatearen alde” izeneko proiektua; haren barruan garatu zen aipatzen ari garen bizikidetzaren plana.

Orain arte aipatutako guztiak eragindako kezken ondorioz sortu zuen zentroak Bizikidetzaren kudeatzeko plana (2006/07 ikasturtea, prestatzeko lanak 2004an hasi baziren ere), ordura arteko guztia ardatz bakarrean uztartuta.

Horren ondoren sortu zen bizikidetzaren planak arautzen dituen legea, hain zuzen ere, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua, ordurako El Molino ikastetxean lantzen ari ziren alderdi ugari jasotzen zituen.

Osasun arloko Zeharkako Hezkuntza Proiektuaren parte gisa eratzen da. Plan berritzailea da hezkuntza bereziaren eremuan eta prebentzioa sustatzen duen ikastetxe kulturaren ikuspegitik, jardunbide positiboak baliatuz. Horiei erantsi behar zaizkie taldearen ekarpenak, argitaratutako ikerketak, zabalduko materiala eta zentro arruntekin lotutako prestakuntza. El Molino ikastetxeak sustatzen duena da zehaztasun handiagoko plan batean jasotzea ikasleak, profesionalak eta familiak ukitzen dituen gai garrantzitsu bat.



Helburua da "plan baten bidez sustatzea bizikidetza osasungarria ikastetxean, hezkuntza komunitateko kideen artean sortzen diren diziplina auziak prebenitu, kudeatu eta ebazteko lagungarria izanen baita". (AFCF Bizikidetza Plana, 2006).

Horretarako batzorde bat eratu zen, bertan zirela irakasleak, orientatzailea eta ikasketa burua, eginkizun honekin:

- Bizikidetzan eta bitartekaritzan trebatzea
- Zehatz mehatz aztertzea argitaratutako dokumentazio, programa eta lege guztiak, estatu mailakoa nahiz Nafarroakoa, ia osorik zentro arruntetako ikasleentzat ezarriak. Ikastetxearen errealitatearen arabera egokitzea.
- Bizikidetza eta diziplinaren arloetan orain arte egindako jarduketak, arauak etab. aztertzea, modu kolektiboan. Horiek jasotzea, analisisa egin ahal izateko, eta lengoaia egokitzea, ikasleen ulermenaren arabera.
- Dokumentuak eta Bizikidetza Parteak sortzea, ondoren haien gainean solastu ahal izateko, bertan jasoz hobetu beharreko jokabideak, onartutako hezkuntza neurriak, babes neurriak. Gatazkak ez ezik, gertaerak ere jasotzea, eta haien inguruko guztia, tartean izan diren pertsonak, era berezian aipatuz gertaerak ukitzen dituen pertsonak, horrek aukera emanen baitu neurri berri doituak planifikatzeko.
- Jarduketa protokoloak jasoko dituen txosten bat prestatzen hasi da, profesionalei orientazioa eskaintzeko eta hezitzaile berrien eskura jarri ahal izateko. Une honetako bilakaera ikuspegi ekologikoago eta sistemiko batera hurbiltzen da.

**Bizikidetza Kudeatzeko Plana prestatzeak lan handia ekarri zuen, baina hagitx interesgarria izan zen, eta ezinbestekoa, berritzailea delako desgaitasun intelektualaren arloan, eta batez ere, irizpideak batzeko eta hezkuntza plangintza positiboa aurrera eramateko aukera eman zuelako, jokabideen prebentzioan eta hezitzaileen esku-hartzea denboran jarraitasunez gauzatzean oinarrituta. Erregistratzeko tresnak eta jarduketa protokolo orientagarriak ekarri zituen Planak, eta horien ondorioz sistematizatu eta hobetu da jokabide zailtasunen erantzuna, ikuspegi berezitua eta positiboa emanez pertsonaren eta haren premien zaintzari.**

Bidean aurrera eginez, hezkuntzaren inguruko agertoki politiko eta kontzeptual berria aurkitzen dugu, norabide berriak markatuko dituen hezkuntzaren eremu orokorrean, eta hezkuntza berezian, zehazki; laugarren etapa izanen da.

Erreferentziatzeko legeak, besteak beste, LOMCE (2013) eta haren ondoren, oraingo LOMLOE (2020ko abendua) dira.

Testuinguru horretan, gizarteratzea ageri da zerumuga gisa, zerumuga komuna estamentu eta instituzio guztientzat, azken helburuari dagokionez, baina modu eta bide asko eskaintzen dituen, hara iristeko bidean.

El Molino ikastetxeak bere eskarmentu luzea eskaintzen du, berriazko baliabideetatik, ikasleen gizarteratzea errazteko, eta ikuspegi horretatik, ibilbidean ikasitakotik eta printzipioetatik abiatuta planteatu da berebiziko garrantzia duen urratsa ematea: analisi etiko instituzional sakon bat egitea, eta diziplina horren galbahetik iragaztea aurrera eramandako jarduketa guztiak, banan-banan, gure jardunbidea ezagutu eta hobetu ahal izateko.

Planteamendu guztiz berritzailea da hezkuntza bereziaren arloan eta desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen diharduten erakundearen arloan.



Horrenbestez, zabaldu egiten dira El Molinoren jarduketaren oinarrian zeuden kezka etikoak, eta haiei erantsiko zaie estatu mailako prestakuntza, Gizarteratze Osoko “Tratu onaren alde lan eginez” proiektuaren gainean.

Etika auzi moralak aztertu eta haien gainean gogoeta egiteko aukera ematen duen diziplina da, tartean direla gure bizitza eraikitzen duten giza auziak, sinesmenak, balioak, jarrerak, sentimenduak, ekintzak, etab. (Cortina, 1994). Gure sinesmenen, sentimenduen eta ekintzei buruzko gogoeta kritikoa eta arrazionala izanen da etika, horiek nahi dugun helburura zuzentzeko xedez egindakoa, bizimodu betea garatzea lortzeko asmoz (Uriz, 2006). Definizio horretan bi alderdi azpimarragarri planteatzen dira: etika bidea den aldetik, eta etika iparrorratz gisa, pertsonaren dohainak garatzeko eta arau nahiz printzipioen bitartez modulatzeko (Rodríguez, 2019). Begirada berria ekartzen du, erakundea osatzen duten osagai guztiak, banan-banan, bustitzen dituen, eta funtsezko oinarri horretatik abiatuta hartuko dira El Molino ikastetxean parte hartzen duten pertsonetikiko eguneroko harremana markatzen duten erabakiak.

Une horretan abiatu zen auditoretza etikoaren prozesua, Reamer (2000) ereduaren arabera, 2017/2018 ikasturtean, lantalde osoari eta familiei emanez gogoeta, diagnostikoa eta esku-hartzea egiteko prestakuntza eta lanabes pertsonalak, arrisku etikoa murrizteko eta esku-hartzeen kalitatea bermatzeko asmoz.

Horretarako talde eragile bat sortu zen, auditoretza lana dinamizatzeko eginkizunarekin. Esku-hartze baten beharra zuten hainbat hobekuntza arlo detektatu ziren.

Dinamika horietatik proposamen interesgarri bat sortu zen, auzi etikoen gaineko go-goetarako guneak eratzeko.

Eta Etika Batzordea sortu zen 2018an, diziplina anitzez osatutako egitura kolektibo gisa, inguruaren irizpide moralak integratzen dituen eta erakundean ari diren profesionalen zerbitzura dagoena, eguneroko lanean planteatzen zaizkien auzi etikoen inguruan aholkua emateko.

Asmoaren funtsa, azkenean, zera da, bizikidetzaz zentzu etiko batez hobetzea.

**Ikuspegi horretatik, etika, tratu ona, kalitatea, berotasuna edo hurbiltasuna uztartuta, gauzatzen dira egunero esku-hartze pedagogiko ugari ikastetxean, norbanakoei eta aniztasunari arreta emateko.**

Eta filosofia horretatik abiatuta, ikastetxea harreman-gunea da, non testuinguru horretan elkar eragiten duten pertsonak elkarrekin bizi diren. Gure misioa, heztea ez ezik, ikaslearen ondoan egotea ere bada, gizartean, lanbidean eta bizitza pertsonalean moldatzen laguntzeko. Horretarako, berebiziko garrantzia hartzen dute gaitasun zientifiko-teknikoek eta harreman-emozioen eta etikaren arloetako gaitasunek.

Ikuspegi horretatik, Jokabide Laguntza Positiboaren paradigmatik edo ikuspegitik, El Molino ikastetxearen lanerako eredia elikatu eta zuzendu duten balio, filosofia eta etika jasotzen dituen ildo teoriko bat integratzen du. Eta beste alde batetik, prozedurazko ildo eragilea edo instrumentala. Jokabide Laguntza Positiboa ezinbesteko lan moldetzat dugu, jokabide arazotsuak ematen diren edo ez diren alde batera utzita.

Testuinguru horretan integratzen da Bizikidetzaren kudeaketa, alegia, bidean sortzen diren gorabeheren kasuan bitartekaritza egiteko eta konpontzeko neurri prebentiboak edo erreaktiboak antolatzeko eta ezartzeko prozesua. Helburua esku hartzea da eta hobetzea, hezkuntza komunitateko kide guztientzako girorik egokiena lantzeko aukera ematen duten alderdi guztietatik.

Prozesua kudeatzeko organoa Bizikidetzaren Batzordea da, une honetan zazpi profesionalek osatzen dutena, irakaskuntzaren etapa guztiak, departamentua eta lanbide profila ordezkatzuz.

Indarreko hezkuntza arautegiak (Eskola Bizikidetzari dagokionez) ezartzen dituen dokumentuak prestatzen ditu gure zentroak (Bizikidetzaren Urteko Plana, Bizikidetzaren Arautegia...) eta orobat, ikastetxeak berak ezarritako beste hainbat (gertakari parteak, jarduketa protokoloak, onespren informatuak...). Ikastetxearen erabakiz ezarritako dokumentu horiek ematen dute informazio guztia sistematizatzeko aukera, besteak beste, jokabide arazotsuei dagokiena, ondoren aztertu eta neurriak ezarri ahal izateko.

Hau da, behatu, erregistratu, aztertu eta esku hartzen dugu.

Bizikidetzaren Batzordeak era honetan jarduten du: hilabetero aztertzen du errealitatea, erregistro eta tauletan jasotako informazioa baliatuz. Neurri proaktiboak eta erreaktiboak proposatzen ditu, tutoreekin koordinatuta. Jarraitasunez ebaluatzen du, eta horren emaitzen arabera doikuntzak proposatzen ditu. Prozesu guztia Azken Memorian eta Urteko Planean jasotzen da.

Barne dokumentuei dagokienez (Gertakizun Partea, lehen Bizikidetzaren Partea), zera esan daiteke, bizikidetzaren funtzionamendu ona, hezkuntza komunitateko kideen ongi-zatea eta eskola jardunaldiaren garapena ukitzen duten gertakizunak jasotzen direla bertan.

Parte desberdinak egiten dira, tartean diren pertsonen arabera, alegia, ikasleei, profesionalei, familiei edo garraio zerbitzuei dagozkien parteak izan daitezke. Modu objektibo eta ordenatuan jasotzen dute gertakariaren inguruko informazio guztia, ondoko apartatu hauetan:

### **Ikasleen gertakari parteak**

- Inplikaturako pertsonen identifikazioa.

- Gertakari mota (beldur ematea, eraso fisikoa, hitzezko eraso, probokazioa, kalte materialak edo nork bere burua zauritzea).
- Espazio-denbora parametroak (lekua, asteko eguna, ordua).
- Aurrekari hurbilenak eta inguru bio-psiko-sozialari dagozkionak, haien istorioa, premiak eta nortasun ezaugarriak kontuan hartuta.
- Gertakarien deskribapen objektiboa, jokabidearen topografiari (intentsitatea, maiztasuna, iraupena) eta ondorioei dagokien informazioa jasoz.
- Egoera gatazkatsua kudeatzeko erabilitako babes neurriak (ikaskideak lekutzea, espazio aldaketa, jarduera aldaketa, etab.).
- Gertakaria konpontzeko eta hura errepikatzea saihesteko ondoren egindako jarduketak: antolakuntzari dagozkionak, informazio emateak, ikaslearekin edo kaltetutako ikasleekin egindako esku-hartzeak.


\* Une honetan larritasunaren adierazle bat eransteko prozesua irekita dago.

Gertakari parteek ikaslearen jokabidearen ebaluazio funtzionala egiteko aukera ematen digute. Gertatutako horren gainean eragina duten aldagaiak detektatzen dituzte eta eta eragin hori zehazteko analisia egiteko aukera ematen dute. Oinarri horren gainean diseinatzen dira ikasle bakoitzaren premia eta nahieraren arabera hobekien egokitzen diren esku-hartze globalak.

## Bizikidetzaren zentzu etiko batez hobetzea

Jarduketa mailak

Jasotako informaziotik eta haren azterketatik abiatuta, hiru mailatan eragiten da:



**Zikloa berriro hasten da**

**Adibidez, modu laburtuan azaltzen dugu jokabide arazotsu bat, hura gertakari partean erregistratzea, eta horren ondorengo analisia, esku-hartzea diseinatzeko.**

12 urteko ikaslea, Autismoaren Espektroko Nahastea eta adimeneko desgaitasuna diagnostikatua duena, hitzeko lengoaiarik gabea. Azken asteetan ezinegonik eta emozionalki ezegonkor ageri da, eta maiz bere burua zauritu du, besoa indarrez hozkatuta.

Egun guztia aztoraturik iragan du: ikasgelan hara eta hona dabil, errutinari lotzea kostatzen zaio, negar egin du hainbatetan, indar handiz hozkatu du besoa... la ez dio erantzuten inguruko en eskaerari. Otordua egiteko unea iritsita, haserre bizian jarri, ikaskide batengana joan eta besoa hozka egin dio.

Deskribatu den egoera uneko gertakarien partean erregistratu behar da, bizikidetzara larrirri kaltetu baitu.

- Eguna: xx/xx/xx.
- Inplikaturako pertsonen datuak... Gertakari mota: Eraso fisikoa.
- Asteko eguna: asteartea/Ordua: 10:30 (otorduaren ordua)
- Lekua: Ikasgela, jateko mahaiaren ondoan.
- Lekuko izan diren profesionalak: tutorea eta Hezkuntza Laguntzako Programa.
- Ikaslearen uneko egoera pertsonala:
  - Ikasturtea zaila gertatzen ari zaio pandemia egoeratik.
  - Emozionalki haserrekor ageri da, negarra eta haserre tartekatuz. Ez da ageri emozio hauen kanpoko eragilerik. Azken egunetan haserretzeko joera areagotu da.
  - Orain aste batzuk direla hagin batean txantxarra duela aurkitu da.

Gertakarien deskribapena: ikaslea komunitetik aterata da, hamarretakoa uzteko apalategira joan da, bere poltsa hartu eta ireki du. Hamarretakoa ikusita (york urdaiazpiko ogitartekoa) lurrera bota du, hurbilena duen ikaskidearengana joan da, ezkerreko besoa hartu dio eta hozka egin dio. Ikaskideak oihu larria egin du eta ikasleak askatu egin du. Ondoren, bere burua lurrera bota du eta bere besoa hozkatu du. Ikaskideak negar egin du eta tutorea-rengana joan da kontsolamendu eske.

- Babes neurriak: taldea beste leku batera eraman da.
- Egindako jarduketak: informazioa helarazi zaie bi ikasleentzako familiei, orientazioari eta burutzari. Erizaintzara eraman da ikasle kaltetua. Bizikidetzara batzordearen analisia, antolakuntza neurriak.
- Parte errepikatuen berrikuspena: hiru astetik hona, asteartero areagotu dira autolesioen intentsitatea eta maiztasuna: "Bada patroi bat". Amak kontatu du orain dela hiru aste esan ziola dentista zuela, hurrengo hilaren xx-an, asteartea. Antsietatea erakusten du medikuntza gaien aurrean. Ikasleak ezagutzen ditu asteko egunak, baina ez da denboran orientatzen hilabeteko egunei dagokienez.

Informazio hori jasota, eta jokoan sartzen direnez hainbat aldagai, zenbait hipotesi planteatu ditugu:

- Hipotesi funtzionala: autolesio/eraso jokabideak deskarga emozionala eta tentsioa/antsietatea arintzeko formak dira.

- Hipotesi kausala: desorientatuta dago eta asteartero pentsatzen du dentistara joateko eguna duela.
- Beste hainbat hipotesi: ez du gustukoa hamarretakoa, hagineta minez dago.

#### **Esku-hartzea:**

- Egoera emozional ahula bizi du eta okerrago jasaten du frustrazioa, gomendagarria da ikasgelako eskakizun maila egokitzea, eta eskola jardura motibagarriak eskaintzea, haren gustuen arabera.
- Antsietatea deskargatzeko alternatibak ematea: hozkatzailea, bestelako jardura fisikoak.
- Egutegiak egitea piktograma pertsonalizatuekin, denboran orientatzen laguntzeko. Familiarekin partekatzea eta haiekin baloratzea ez dela komenigarria medikuaren hitzordua aurrerapen handiz jakinaraztea...
- Epe luzera: Medikuntza gaiekiko antsietatea lantzeko koordinatzea tutorea-orientatzailea, botikinaren arduraduna, logopeda, familia, estimulu medikuen ondoriozko sensibilizazioa kentzeko prozesu bat egin ahal izateko (horrek eskatzen du plan bat diseinatzea, materialak egokitzea eta prestatzea, jardura zehatzak egitea ikasgelan eta etxean...).
- Lan emozionala eraso jasan duen ikaslearekin. Emozioak askatzeko espazio bat eskainiko zaio, arazoa era esplizituan landuko da. Babesa (beldur da...). Ikasgelako jardueren antolamendu berria hurrengo egunetarako, eta modu progresiboan berreskuratzea eraso egin dion ikaslearekiko kontaktua.

**Ildo irekiak:** Hamarretakoen gaineko behaketa erregistratzea, tutorea-logopeda-familia koordinatuta, gogoko/ez gogokoak komunikatzeko.

**Amailerako gogoetak:** Lantzeko era integrala, eragile anitz eta testuinguru anitz. Koordinazioa. Familiarekiko komunikazioaren garrantzia, batez ere komunikazio arazoak dituzten ikasleen kasuan.

**Hori guztia barne hartuko duen "Ikerketa-ekintza prozesu bat".**

Ondorio gisa esanen dugu bizikidetzaren, esparru etikoa, eta Jokabide Laguntza Positiboak lagunduta, izan dela hezkuntza komunitate osoaren hezkuntza lanaren eta bizitzaren ardatza, audiotreza etikoan berretsia.

Esku-hartzearen arrakastarik handiena, jokabide arazotsuak murriztetik harago, ikasleak bizi kalitatea izatea da, eta hobetzeko aukerak izatea, bizitzaren eremu garrantzitsuetan. Horrek eskatzen du ahotsa ematea, ahalduntzea, bere bizitzaren eragile kausal nagusia izan dadin. Zentzu horretan, ezin da hobekuntzarik izan pertsonaren bizi kalitatean, haren eskubide guztiak errespetatzen direla bermatu ezean.

Eta honaino El Molino ikastetxean bizikidetzak, etika eta Jokabide Laguntza Positiboaren testuinguruan, izan duen bilakaera historikoaren kontakizuna.

**Egunero-egunero landutako bide luzea.**

## Erreferentziak

*Ciganda Ferrer Fundazioaren aktak* (1976-2007) El Molino Ikastetxea, Iruña.

Cortina Orts (1994) *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*. Trotta, Madril.

Rodríguez Luna (2019) *De la calidad a la calidez. Ética aplicada en el ámbito de la discapacidad intelectual. Auditoría ética en los "centros El Molino"*. Ciganda Ferrer fundazioa. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Úriz, M.J. (2006) *La auditoría ética en el trabajo social: un instrumento para la mejora de la calidad de las instituciones*. Gizarte Laneko Departamentua. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

# Ikasleei Laguntza Integrala emateko Eredua (MAIA)

Isterria HBI

Alicia Azcona (orientatzailea)

aazcona@isterria.com

Ereduak helburu du ikasleei laguntza integrala ematea, diziplinartekoa dena eta pertsona erdigunean jartzen duena; halaber, pertsonak ahalik eta gehien garatzea bilatzen du, bai eta norberaren eta familiaren bizi kalitatea hobetzea ere. Ereduak Jokabide Laguntza Positiboa hartzen du oinarritzat, eta, batez ere, prebentzioa eta ikasle guztiei trebetasun funtzionalak irakastea. Pertsona jartzen du erdigunean, eta bere indarguneak, familiarenak eta lantalde profesionalarenak sustatzen eta lantzen ditu. Ereduaren beste ardatz bat lantalde profesionalen eta diziplinarteko lanean funtsatzen da, oinarri hartuta prestakuntza eta espezializazioa, koordinazioa eta etengabeko komunikazioa eta lan prozesuen sistematizazioa. Horrez gain, familien parte-hartzea sustatu nahi da, haien premien eta eskaeretatik abiatuta, eta beraien seme-alaben prozesuetan lagundu.

**Gako hitzak:** laguntza integrala, Jokabide Laguntza Positiboa, espezializazioa, diziplinartekoa, familiei laguntzea, egokitze trebetasunak.

Ikasleei Laguntza Integrala emateko Eredua, Isterria HBiko profesionalen taldeek hausnarketa sakona egin ondoren sortu da, gure ikastetxean osasun mentaleko nahasmendu eta jokabide nahasmendu larrien ondoriozko kasu konplexuei heltzeko zailtasunak genituelako.

Proiektuaren helburua da ikastetxean lan integraleko eredu bat txertatzea, diziplinartekoa dena eta pertsona erdigunean jartzen duena; halaber, pertsonak ahalik eta gehien garatzea bilatzen du, bai eta norberaren eta familiaren bizi kalitatea hobetzea ere.

Hauek dira proiektuaren oinarriak:

- Jokabide Laguntza Positiboa, ardatza prebentzian eta ikasle guztiei trebetasun funtzionalak irakastean jarrita.
- Pertsonak, bere indarguneak eta familiarenak sustatuta eta landuta, bai eta familiak prozesuan parte hartzera bultzatuta.





- Lantalde profesionala eta lan prozesuak, prestakuntza espezializatua sustatuta, diziplinarteko lana txertatuta, etengabe koordinatuta eta prozesuak sistematizatuta.

Honako hauek dira Ikasleei Laguntza Integrala emateko Ereduaren faseak:

1. Prebentzioa.
2. Esku-hartzea.
3. Proiektua ebaluatzea eta jarraipena egitea.

## Prebentzioa

Eredu honek ikasle guztiei zuzendutako prebentzian jartzen du arreta nagusia, jokabide arazoak dituen ala ez kontuan hartu gabe. Prebentziotzat jotzen dugu trebetasun funtzionalak, esanguratsuak eta egokitzapenekoak irakastea eta lantzea, bai eta laguntza eta arreta egokitua eta individualizatua ematea ere, gure ikasleak beren eguneroko bizitzan eta etorkizunean behar bezala jokatzeko prest egon daitezen.

Prebentzioa zazpi lan arloren bidez egituratzen da; honako hauek dira, labur-labur azalduta:

### Egitura fisikoa eta denborazkoa

Egitura fisikoa eta denborazkoa garrantzitsua da prebentzioari dagokionez; izan ere, ingurunea ulertzen laguntzen du, autonomia areagotzen du eta testuinguru segurua ematen du. Gainera, gure ikasleek espazioen eta eskola etapen artean dituzten trantsizioak hobetzen ditu. Hori horrela, honako hauen bidez egiten da lana:

- Gure ingurunea tresna pedagogiko eta terapeutiko gisa erabiltzea.
- TEACCH metodologia erabiltzea ikastetxeko eremu guztietan.

- Ikusizko euskarrien irizpideak eta txantiloiak bateratzea ikastetxeko hainbat eremutan (ikasgelak, egoitza, jangela, igerilekua, etab.).
- Errutinak sortzea. Kontuan hartzea beti gure ikasleek banakako egokitza-penak ere behar dituztela, eta, beraz, baita neurri malguak ere.

### **Ohitura osasungarriak eta osasuna sustatzea**

Gure ikasleen osasuna funtsezkoa da prebentzioari dagokionez, eta, horregatik, erizaintza lana sustatu da gure ikastetxean. Hona hemen, gauzatzen ditugun ekintzetako batzuk:

- Jokabide arazo puntual bat osasun arazoren baten ondorio dela baztertzea (mina, gaixotasuna, desoreka, etab.).
- Erizainak baloratzea eta urtean behin azterketa egitea, patroï fisiologikoak barne hartuta (elikadura, loa, eginkariak, etab.).
- Jarraibide farmakologikoen bilketa sistematizatzea eta horien jarraipena egitea.
- Osasun eragileekin koordinatzea.
- Osasun planei buruzko aholkularitza pertsonalizatua ematea eta elikaduran esku hartzeko planen jarraipena egitea, alderdi horretan zailtasunak dituzten ikasleekin.
- Osasun irizpideak eta prozedurak bateratzea.
- Osasun Eskolen Sarean parte hartzea.

### **Desentsibilizazio Sanitarioko Proiektua**

Proiektu hau NUPeko Erizaintza Eskolarekin elkarlanean sortu zen, eta helburu hauek lortzea espero da:

- Komunikazio oztopoak eta beldurrak ezabatzea, eta gure ikasleen erosotasuna eta segurtasuna areagotzea osasunaren arloan.
- Gure ikasleek osasunaren arloan esperientzia positiboak izatea gure erizaintzaren bidez.
- Ikasleen segurtasuna eta konfiantza areagotzeko behar diren tresnak eta materialak ematea.
- Biztanleak eta profesional sanitarioak desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako arreta espezializatu eta egokituaren beharraz sentsibilizatzea eta kontzientziatzea.
- Familiarekin lan egitea, eskolan ikasitakoa beste testuinguru batzuetara estrapolatzeko eta familia bizitzan eta bisita medikoetan laguntzeko, hainbat material eta jardueraren bidez: pasaporte sanitarioa, ikastetxean landutako gaiet buruzko hileko zereginak, prozedura medikoak argazkiekin, osasunarekin lotutako gaiet buruzko ekintzak.



## **Snoezelen gela**

Metodologia honen bidez, pertsonen eremu guztiak joratu nahi dira, eta, horretarako, proposamen eta esperientzia sentsorialak eskaini nahi zaizkie, aukera izan dezaten gozatzeko, lasaitzeko, emozioak erregulatzeko eta inguruko mundua eta harekin duen harremana atsegintzat eta motibagarritzat har dezaten.

Lan horren barruan, ikasleen beharrak ebaluatzen dira, profil sentsoriala egin eta helburu individualizatuak ezarri, gero bakarka lantzeko gelan (astean behin edo bitan) eta ikasgeletan.

## **Erregulazio proiektua**

Batzuetan, gure ikasleek zailtasunak dituzte beren emozioak identifikatzeko, ulertzeko, kudeatzeko eta erregulatzeko, bai eta behar bezala adierazteko eta komunikatzeko ere. Egoera horiek portaera arazotsuak edo kudeatzeko zailak diren egoerak eragiten ahal dituzte ikasgelan.

Horregatik guztiagatik sortu da proiektu hau, ikasle eta ikasgela bakoitzari egokitutako erregulazio jarduerak ezartzeko, ikasleak aktiboago dauden uneetan. Helburua da beren laguntza beharretara egokitutako erregulazio estrategiak ematea, era egokiagoan kudeatu eta adieraz ditzaten euren emozioak.

## **Komunikazioa eta trebetasun sozialak**

Beharrak, eskaerak, nahiak edo ukoak komunikatzeko eta adierazteko zailtasunek jokabide arazoak eragiten ahal dituzte. Era berean, trebetasun sozialekin lotutako zailtasunek, askotan, jokabide alterazioak eragiten dituzte helduekin eta bere parekoekin erlazionatzeko moduan.

Hori horrela, ekintza hauek gauzatu dira ikastetxean:

- Komunikazio eta Jokabide Saila sortzea, esku-hartze koordinatuagoa eta bateratuagoa planifikatzeko.
- Komunikazioa eta trebetasun sozialak banaka eta taldetan lantzea.
- Ikasle bakoitzarentzat ezarritako komunikazio helburuak transferitzea talde profesional osoari eta ikastetxeko espazio guztietan, ikaskuntza horiek orokortze aldera.

## **Oinarrizko lerroa**

Proba sorta bat da, eta ikasleei egiten zaie datu objektiboak eta estandarizatuak lortzeko; hala, jokabide mailan eta osasun mentalean zailtasunak sortuz gero, alderatzeko balioko digute.

Proba horiek bi unetan egiten zaizkie ikasleei: ikastetxean sartzen direnean lehenbikoz, eta azken hezkuntza etapa hasten dutenean.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat baliozkotutako probak sakon aztertu ondoren, bi hauek aukeratu ziren, gure biztanleriara gehien egokitzen zirenak eta esku hartzeko orduan informazio baliagarri gehien ematen zigutenak zirelako.

- Osasun mentalaren baheketa: Mini PAS-ADD eta DASH II.
- Egokitze trebetasunak: ABS-RC:2.

## **Esku-hartzea**

Esku-hartzea jokabide alterazioak dituzten ikasleekin edota nahasmendu mentalak dituzten ikasleekin egiten da (baita susmoak badaude ere). Funtsezko alderdiak ebaluazioan eta Jokabide Laguntza Positiboan oinarritzen dira. Funtsezkoa iruditzen zaigu arazoaren ebaluazio sakona egitea; batez ere, desgaitasun intelektualarekin lotutako beste komorbiditate batzuk dituzten kasu konplexuetan. Ebaluazio horrek oinarri gisa balio digu jarraitu behar ditugun esku-hartze ildoak proposatzeko. Jokabide Laguntza Positiboak esku-hartze osoa lehen mailako prebentziotik eta, bereziki, trebetasunen irakaskuntzatik bideratzeko balio digu; izan ere, helburua ez da soilik jokabide arazoak murriztea edo desagerraraztea, baizik eta pertsonaren ahalik eta garapen handiena lortzea. Esku-hartzea urrats hauen bidez gauzatzen da:


### **Eskariak jasotzeko prozedura eta prozesua**

Orientazio Departamentuan jasotzen dira eskariak. Ikastetxeko eta egoitzako profesionalek egiten ahal dituzte eskariak, baita familiekin ere, baldin eta ikasleen familia edo gizarte ingurunean sortzen ari badira zailtasunak. Eskariak jaso ondoren, MAIAko talde teknikoak aztertzen ditu, baliabideak esleitzeko, eta ikasleari laguntzeko taldea osatzen du.

### **Baliabideak esleitzea eta laguntza taldea osatzea**

Disziplina anitzeko lantalde baten bitartez, ikaslearen eta ebaluazioa eta laguntza taldea osatuko duten profesionalen beharrak baloratzen dira. Honako hauek osatuko dute laguntza taldea: tutoreak, familia eta erreferentziako orientatzailea. Kasuaren arabera, lanbide profil hauek sartuko dira esku-hartzean:

- Logopeda, pertsonak komunikazioarekin edo trebetasun sozialen urritasunarekin lotutako zailtasunak baditu.
- Erizaina, pertsonak pautu farmakologikoen jarraipen sakona behar badu, medikazioarekin lotutako aldatetarik, zailtasunak edo kontrako efektuak daudelako. Osasun arazoak edo patologia badaude (epilepsia, gaixotasun kronikoak, gehiegizko pisua, etab.).
- Psikiatra, arazo konplexuak, nahasmendu mentalak edo horren susmoa duten komorbiditateak, bizipen traumatikoak, familia eta gizarte ingurune oso konplexuak edo agindutako tratamendu farmakologikoekin lotutako arazoak dituzten eta ebaluazio sakona behar duten ikasleentzat.
- NHBBZren Jokabide Taldea, pertsonak jokabide alterazioak edo komunikatzeko zailtasunak baditu eta eskola ingurunean edo jarduera akademikoetan neurriak hartu behar badira.
- Gizarte langilea, familia edo gizarte ingurunean zailtasunak badaude edo pertsonak kanpo zerbitzuen laguntza behar badu.
- Egoitzako hezitzailea, ikaslea gure egoitzan bizi bada.



## Ebaluazioa

Proiektu honen funtsezko oinarrietako bat da. Funtsezkoa da ebaluazio sakon bat egitea, gure ikasleei laguntzeko eta esku-hartze eraginkorragoak proposatzeko. Honako hauen bidez egiten da ebaluazioa:

- Berariazko probak, desgaitasun intelektuala duten pertsontzat. Proba horiek erreferentziako profesionaleri eta, oro har, tutoreei, egoitzako hezitzaileei eta familiari ematen zaizkie. Probak gai orokorrenetatik zehatzenetara doaz, ebaluazioak aurrera egin ahala.
- NHBBZren Jokabide Taldeak ingurune naturalean (ikasgelan edo ikastetxeko beste gune batzuetan) egiten duen behaketa sistematikoa eta zorrotza. Informazio oso baliotsua ematen digu bai arazoari dagokionez bai gure ikasleengan eta gure esku-hartzeetan sakondu edo ezarri behar diren alderdiei dagokienez.
- Pertsona eta arazo bakoitzari egokitutako jokabide azterketa funtzionalak egitea. Alde batetik, zuzeneko arreta ematen duten pertsonek errazago bete ditzaten egunero edo jokabidea gertatzen denean. Bestalde, hipotesiak baztertu eta ebaluazioa egokitu ahala, errazagoak dira erregistroak. Lantalde profesionalari eta familiari ematen zaizkie erregistroak.

## Banakako Laguntza Plana

Ebaluazioa amaitu ondoren, Banakako Laguntza Plana prestatu behar du laguntza taldeak, familiarekin elkarlanean. Lehen mailako prebentzio estrategietatik abiatu behar da: aldatketak ingurunean, egokitzapenak eguneroko jardueretan, indartzaileak lortzeko aukera gehiago, interakzio sozial handiagoa izatea eta aurre egiteko estrategietan trebatzea, trebetasun sozialak, beharrak eta egoerak adieraztea, laguntza psikologikoko banakako

saioak, jarduera egokituak eta indibidualizatuak, etab. Izan ere, esku-hartzearen alderdik garrantzitsuena da. Gure ikasleei zailtasun handienak dituzten edo jokabidean desoreka horiek eragiten dituzten trebetasunak eta abileziak ematean jartzen da arreta.

### **Banakako Laguntza Planen jarraipena**

Jarraipen tresnak sistematizatu dira, bai eta laguntza taldearekin egindako bileren maiztasuna ere. Ikasleak duen arazoaren konplexutasunaren arabera ezartzen da aldizkako-tasuna; hau da, jokabide aldaketa larriak dituzten kasu konplexuenetan, astero egiten dira bilerak laguntza taldearekin, eta, arazoa hain konplexua ez bada, noizean behin egiten dira bilerak.

### **Banakako Laguntza Planen ebaluazioa**

Laguntza planen eragina eta egiten ditugun esku-hartzeak era objektiboagoan neurtzeko, eskala propio bat egin dugu (Isterriako esku-hartzea ebaluatzeko eskala). Eskala horrek arazoaren intentsitatea, maiztasuna eta interferentzia neurtzen ditu, laguntza planak eraginkorrak diren ala ez ebaluatu ahal izateko. Familiari dagokionez, gure esku-hartzeak maila ekologikoan duen eragina ebaluatu eta neurtu nahi genuen. Hori dela eta, Familien Bizi Kalitatearen Eskalaren pilotajea hasi dugu (Verdugo, Miguel; Rodríguez, Alba; Sainz, Fabian, 2013).

### **Familientzako laguntza**

Ereduaren funtsezko beste alderdi bat gure ikasleen familiak dira. Familia sistema bakoitza bakarra eta berezia da, eta, beraz, ulertu egin behar da. Familienganako begirada aldatu behar dugu, hobeki ezagutu, beren lekua eman, beren gaitasunetan konfiantza izan eta beren indarguneak sendotu. Aldaketa horrek, halaber, lan egiteko moduan ego-kitzapenak egitea eskatzen du, ahal den neurrian beren semearen edo alabaren prozesuan parte har dezaten. Familiei zuzendutako laguntzaren helburua da euren beharrak eta eskariak kontuan hartuta laguntzea, eta euren bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko baliabideak ematea. Orientazio eta Gizarte Lan Departamentuak ematen du laguntza hori, honako zerbitzu hauen bitartez:

#### **Informazioa eta aholkularitza**

Familiek egindako eskaerei buruzko informazio orokorra eta espezifikoa ematea. Hainbat gai kudeatzen laguntzea: laguntzak, bekak, baliabideak, zentroak eta zerbitzuak, etab.

#### **Familientzako orientazioa eta laguntza planak**

Diziplinar-teko lanketa, familiak planteatzen dituen eta laguntza espezifikoagoa eta sakontasun handiagokoa behar duten egoeretarako.

#### **Prestakuntza eta gaikuntza**

Familiei bizitzako hainbat egoerari aurre egiteko aukera ematen dieten ezagutzak eta abileziak zabaltzeko prestakuntza ekintzak planifikatzea.

#### **Dinamizazioa**

Familiei laguntzeko talde bat sortzea, askotariko gaien inguruan dituzten esperientziak, kezak eta ezagutzak artekatzeko topaguneak eskaintzeko, elkarren arteko laguntza sustatuta.

## Laguntza emozionala

Sentimenduak, sentsazioak, zalantzak eta beldurrak partekatzeko laguntza.

## Proiektuaren karraipena eta ebaluazioa

MAIA proiektu dinamikoa da, eta etengabe hobetzea bilatzen du; horregatik, jarraipena eta ebaluazioa funtsezkoak dira proiektua nola aplikatu den ulertzeko eta emaitzak baloratzeko. Hainbat tresnaren bidez egiten da:

- Urteko plangintza. Bertan, helburuak, adierazleak eta programazioa ezartzen dira, eta zer mailatan lortu diren neurtzeko aukera ematen digute.
- Proiektua koordinatzeko bilerak. Lantalde teknikoaren hileroko bilerak.
- Gorabeheren erregistroa. Ikastetxearen prozedura honek pertsona batek urteetan zehar izaten ahal dituzten jokabide alterazioen kopuruari buruzko urteko informazioa ematen digu.
- Isterriako esku-hartzea ebaluatzeko eskala. Garatzen ari garen tresna honekin, hainbat behatzaileraren datu kualitatiboak lortzea espero dugu, proiektuaren eraginkortasuna baloratu ahal izateko.

Jarraian azaltzen diren datuek erakusten dute nola murriztu diren jokabide alterazioak 2017-2018 ikasturtean eredu ezarri zenetik. Taula honetan ikusten da nabarmen eta pixkanaka murriztu direla gorabeherak.

### 1. taula. 2019ko eta 2020ko datuak, 2018ko datuen aldean.

	2019	2020
<b>Gorabeherak</b>	-%12	-% 29
<b>Heteroerasoak eta autolesioak</b>	-% 14	-% 20
<b>Erasoak profesinalei</b>	-% 27	-% 42
<b>Mutualitatearen laguntza</b>	-% 56	-% 66
<b>Gertakari gatazkatsu gehien dituzten ikasleen gorabeherak</b>	-% 53	-% 64
<b>Gertakari gatazkatsu gehien dituzten ikasleen gorabehera bortitzak</b>	-% 45	-% 57

Proiektuaren ebaluazioaren emaitza gisa, eta proiektuaren konplexutasuna kontuan hartuta, hobetzeko lehentasuneko ildo hauek nabarmentzen ditugu:

- Kanpoko zerbitzuekin koordinazioa bultzatzea; batez ere, osasun mentalaren esparruarekin.

- Estrategia sortzaileak aztertzea, esku-hartzearen fase guztiak hobetzeko, erronka handia suposatzen duten kasu konplexuetan.
- Erregistro tresna errazak eta funtzionalak ematea eta sistematizatzea zuzeneko arretako profesionalentzat.
- Adimen edo garapen desgaitasuna duten haur eta gazteentzako tresna eta proba estandarizatuen ikerketa sustatzea.
- Ikerketan eta ebaluazioan ibilbide eta esperientzia handiagoa duten beste sektore batzuekin –unibertsitatearekin, adibidez– lankidetzat sustatzea.



# Jokabidea eta laguntza positiboko planak

Torre Monreal HBIP  
Abel Zardoya Santos. Ikasketaburua.  
cptorrem@educacion.navarra.es

Gure zentroan, “jokabideari laguntzeko plana” egitea aparteko neurria da, eta abian jartzen da profesionalak egindako ahaleginek ez dituztenean lortzen espero ziren emaitzak. Beraz, plan hori behar da ikasle jakin batzuen egoera larriak hobetzeko.

Horretarako, esku-hartze espezifiko bat diseinatu behar da. Horrek esan nahi du erabakiak hartu behar direla esku hartzen duten eragileei buruz eta gai hauei buruz: ingurumen-aldagaien kontrola; irakatsiko zaizkion trebetasunak; horren ondorioz aplikatuko direnak; edo bere bizimoduari buruz kontuan hartu behar diren alderdiak.

Plan horiek egiteko, ikastetxe mailako antolamendu bat behar da, 5 fasetan zehazten dena.

Gako-hitzak: jokabideari laguntzeko plan positiboa, jokaera desagokituak dituzten ikasleak, jokabideari laguntzeko plan positiboaren adibidea, jokabideari laguntzeko plan positiboaren artikulazioa, jokaera desagokituak dituzten ikasleen hezkuntza-erantzuna.

## Hezkuntzako Bereziko Torre Monreal Ikastetxe Publikoa

Nolakoa da gure ikastetxea?

### A. Gure ikastetxean ematen diren etapak

Gure ikastetxean hauek ematen dira:

- Haur hezkuntza (HH): 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.
- Derrigorrezko oinarrizko hezkuntza (DOH): 6 eta 16/18 urte bitarteko ikasleentzat. Bi ziklo bereizten ditugu: DOH1 (6-12 urte) eta DOH2 (12-16/18 urte).
- Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondokoa: 16/18 eta 21 urte bitarteko ikasleentzat. Ikasleek Helduarora Bideratzeko Programa (HBP) edo Lanbide Heziketa Berezia (LHB) egiten dute.



## **B. Ikasleak**

Egun, 73 ikasle ditugu ikastetxean, 16 taldetan banatuta. 5 talde DOH1 etapan daude; 7 talde DOH2 etapan; 2 talde HBPn; eta 2, azkenik, LHBn.

Gure ikastetxeko ikasle guztiek adimen desgaitasuna dute. Ikasleak askotarikoak dira. Gure ikastetxean matrikulatuta egoteko, "hezkuntza bereziko ikastetxea" eskolatzeko modalitatea izan behar da. Eskolatzeko batzordearena da erabaki hori.

## **C. Profesionalak**

Ikastetxean lan egiten dugun profesionalok hau gara:

- Pedagogia terapeutikoko (PT) espezialitateko maisu-maistrak, tutore eginkizunarekin.
- Entzumen eta hizkuntzako (EHI) maisu-maistra espezialistak, Gorputz Hezkuntzakoak (GH), musikakoak, erlijioakoak, estimulaziokoak eta lantegikoak.
- Hezkuntza laguntzako espezialista (HLE).
- Lantegiko irakasleak.
- Orientatzailea.
- Erizaina.
- Fisioterapeutak. NHBBZkoak dira, baina egunero lan egiten dute gure ikastetxean.
- Atezaina.
- Administrazioako langileak.
- Garbitzaileak.

## **D. Irakaslekuak:**

Ikastetxeak honako gune hauek ditu:

- Gelak taldeetako bakoitzarentzat, komunekin.
- Gelak entzumen- eta hizkuntza- eta erlijio espezialitateetarako.
- Estimulazio gela.

- Fisioterapia gela.
- Igerilekua aldagela eta dutxekin.
- Gimnasioa.
- Jolastokia.
- Bainugela egokituak.
- Jantokia.
- Erregulazio-gela.
- Bulegoak.
- Irakasleen gela.
- Erizaintzako gela.
- Covid gela.

### **E. Zerbitzuak**

Nafarroako Gobernuaren eskualde-ikastetxe bat da, Nafarroako Erriberako, Errioxako eta Aragoiko ikasleak eskolatzen dituena. Hitzarmen bat dago komunitateen artean.

Ikastetxea eskualdekoa denez, garraio eta jangela zerbitzuak bermatzen ditu.

### **F. Orduetgia**

Honako hau da Ikuskaritza Departamentuak ikasleentzat 2020-2021 ikasturte honetarako onartutako orduetgi jarraitua:

- 9:00etatik 14:10era. Ikastaldia.
  - 14:10etik 15:30era Jateko tartea.
  - 15:30ean: Ikastetxetik irtetea.
- Profesionalak goizeko 8:00etan sartzen dira.

### **G. Eskolaldi jarraitua**

Eskolaldi jarraitua, honako hauek direla eta, ona da gure ikasleentzat:

- Denbora egitura bera ematen du ikasturte osoan zehar. Ikasleek orduetgi egitura bera eta orduetgi bera dituzte lehen eskola egunetik azkenekora arte.
- Ikastetxeko profesional guztien arteko koordinazioa errazten du. Goizeko 8:00etatik 9:00ak arte, elkarrekin gaude profesional guztiak; beraz, gure koordinatzeko tartea da, tutoretza bileretarako, klaustroetarako, hezkuntza laguntzako unitateetarako, etab. Koordinazioa ezinbestekoa da taldean lan ona egiteko.

### **Zein da gure ildo pedagogikoa?**

Ikasle guztiei kalitatezko erantzuna emateko, gure ildo pedagogikoan oinarritzen gara. Ikasleei dagokienez, hiru puntu handitan laburbil dezakegu:

#### **A. Funtzionamendu indibiduala**

Gure ikasleen funtzionamendu indibiduala lantzea da gure ildo pedagogikoaren oinarria. Bost alderdik markatzen dute funtzionamendu indibiduala (Luckasson et al, 2002). Egile horren arabera, bost alderdi hauek landu behar ditugu:

- I. alderdia: Funtzionamendu intelektuala.
- II. alderdia: Egokitze jokabidea.
- III. alderdia: Parte hartzea, interakzioak eta rol sozialak.
- IV. alderdia: Osasuna.

- V. alderdia: Testuingurua. Familian eta ikastetxean.

Bost alderdiak lantzen baditugu, eta behar den laguntza ematen badiegu, ikasleen funtzionamendu indibiduala eta, horrenbestez, bizi kalitatea hobetuko dugu.

### **B. Metodologia komuna**

Ikasleen beharren arabera ikastetxe osoarentzat ildo metodologiko komun bat ezartzea hezkuntza kalitatea indartzea da. Akordioak lortu dira ikastetxe mailan denbora eta espazioa egituratzeari dagokionez.

### **C. Programak**

Kalitatezko hezkuntzarako esku-hartzea planifikatu behar da, beharren aniztasuna, lanerako egokitze trebetasunak, ebaluazioa... kontuan hartzen dituzten programen bidez.

## **Nola gauzatzen da gure ildo pedagogikoa jokabide larriki desegokituak dituzten ikasleen artean?**

### **A. Funtzionamendu indibiduala:**

Gainerako ikasleekin bezala, bost alderdiak lantzen jarraitu behar dugu, baina garrantzi handiagoa hartzen dute nagusiki IV. alderdiak (osasuna) eta V.ak (testuingurua).

### **B. Metodologia komuna:**

Uste dugu Jokabide Laguntza Positiboaren bidez erantzuna eman diezaikegula gure ikasleen beharrei kalitatezko hezkuntza arretarekin.

Jokabide larriki desegokituak dituzten ikasleen kasuan, ezinbestekoa da koordinatzea banakako akordioak lortzeko, ikasle jakin batentzat.

Koordinazio horiek ikastetxean erabakitako denbora eta lekuetan egiten dira.

### **C. Programak:**

Gure programazio ereduak zenbait dokumentu ditu. Jokabide larriki desegokituak daukelako jokabide laguntza positiboko plan bat egin behar denean, "Jokabide-laguntza positiboko neurri espezifikoak" dokumentua abian jartzen da.

## **Egiaztagiriak. Jokabide-laguntza positiboko planak**

Gure ikastetxean, jokabide-laguntza positiboari dagokionez, jokabidea eta jokabide-laguntza positiboko planak (dokumentatuta) ardatz hartuta lan egiten ari gara.

## **Nola antolatzen dugu jokabide desegokituak edo larriki desegokituak dituzten irakasleentzako erantzuna?**

Hezkuntza erantzun egokia diseinatzeko, gutxienez honako datu hauek jakin behar ditugu ikasleaz eta ikastetxeaz:

- ikasleari dagokionez; adina, maila, etapa, eskola eta familia historia, historia medikoa, ezaugarriak, beharrak, konpetentzia egokitze trebetasunetan, nolako laguntzak behar dituen...
- ikastetxeari dagokionez: zer bitarteko dituen (guneak, bitarteko materialak, pertsonalak), ikasle kopurua, ikasle horien beharrak...

Kalitatezko erantzuna bermatu behar diogu kasuan kasuko ikasleari, baina ahantzi gabe gainerakoei ere eman behar diegula kalitatezko erantzuna. Ezin dugu santu bat

erantzi beste bat janzteko. Lehenik eta behin, aniztasunarekiko arretako neurri orokorrak aplikatzen dira.

### **A. Neurri orokor arruntak**

Ikasle guztiei eragiten dieten erantzuteko neurriak dira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- Ikasleak taldekatzeko irizpideak: ikasturte bakoitzean taldekatze berriak daude. Taldekatze horiek egiteko, ikastetxeko taldekatze irizpideak kontuan hartzen ditugu. Adibidez, kontuan hartzen da jokabide larriki desegokituak duen ikasle bat baino gehiago ez egotea talde batean.
- Denbora egituratzeko neurriak: ikastetxean zenbait melodia edo abesti erabiltzen dira, eta sirena kendu da. Melodia bakoitzak jarduera bat iragartzen du: eskolen hasiera, ikasgela aldaketa, jantokiaren hasiera, irteera etxera joateko...
- Espazioa egituratzeko neurriak: ikastetxean akordioak daude ikusizko euskarrien formatuari buruz; korridoreetan informazio taulak daude, eta afixak ateetan, informazio garrantzitsuarekin.

Neurri orokor arruntak argitzen ahal dituen adibide bat: taxu bakarreko neurriak dira; hau da, ikasle guztientzat balio dute.

### **B. Neurri espezifikoak**

Ikasle jakin batentzat hartzen diren neurri espezifikoak dira, baina estandarizatuta daude. Neurria gauzatuta dago. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- Ikasle batek egitura-panel mota jakin bat behar du ikasgelan. Gure ikastetxean hiru mota ditugu (oinarrikoa, bitartekoa eta handia). Kasu horretan, behar den panela jarri aplikatzen da; adibidez, ikasgelan panel handia jarri.
- Ikasle batek laguntza espezializatua behar du entzumen eta hizkuntzan, komunikazioan hobetzeko. Kasu horretan, gestionatu eta laguntza espezializatu hori ematen zaio.

Kontu hori arroparen adibidera eramanda, esan genezake arropan zenbait neurri daudela (S, M, L, XL...), eta neurriak estandarizatuta daude. Profesionalek dakiten bitartean zer izari behar duen pertsona horrek, guk izari horretarako neurri espezifikoak eman behar dizkiogu.

### **C. Aparteko neurriak**

Ikasleak bere arazoak gaindi ditzan profesionalek egiten dituzten ahalegin guztiek espezializatuak emaitzak ematen ez badituzte, aparteko neurri horiek jartzen dira funtzionamenduan.

Batzuetan, neurri orokor eta espezifiko guztiak aplikatzen dira, baina ikasleak jokabide desegokituak edo larriki desegokituak izaten jarraitzen du.

Beraz, ikasle hori esaten ari zaigu ez dela aski bere izariari dagozkion neurriak aplikatzea, eta arropa guztia bere neurrira diseinatzea behar duela.

Hain zuzen ere, kasu horretan planteatzen dugu ikastetxean jokabide-laguntza positiboko plan bat egiteko beharra; hau da, arropa neurrira egitekoa.

### **Zergatik da garrantzitsua plan bat egitea?**

Ikusten dugu ezinbestekoa dela plan bat egitea bi arrazoirengatik.

### **Lehenik, honako alderdi hauek jasotzen dituen dokumentu batean gauzaten delako:**

- ikasleekiko esku-hartzearen diseinua.
- esku-hartzeari buruz hartzen diren erabakiak, esku hartzen duten eragileetatik alderdi zehatzagoetara arte; besteak beste, ingurumen aldagaien kontrola, programazioari lotutako alderdiak, aplikatu behar diren ondorioei lotutakoak eta ikasleen bizimoduari buruz kontuan hartu beharrekoak.
- erabaki horiek praktikan jartzea.
- praktikan jartze horren berrikuspena Plan horiek egitearen ondorioz, ikastetxeak programazioari dagokionez duen dokumentazioaz birpentsatu behar izan dugu. Dokumentua ez zen behar bezain malgua ikasle guztiei erantzuteko.

Guretzat, garrantzitsua da dokumentazioa inklusiboa izatea. Ikasturte honetan, lortu beharrekoa da ikasle guztiak (haien ezaugarriak gorabehera) gure programazio eremuan kontuan hartuta egotea.

### **Bigarrenik, gure hezkuntza jardunbidea hobetzen duelako epe labur, ertain eta luzean:**

- ikasleekiko esku-hartzea hobetzen du epe laburrean. Idatzitako plan itundu bat izanda, errazagoa da profesional guztiek modu berean jartzea praktikan.
- epe ertain eta luzean, bizikidetza hobetzen du ikastetxean.
- epe luzean, barne funtzionamendua hobetzen du horrelako kasuei aurre egitean.

## **Nola dihardugu jokabide-laguntza positiboko plan bat egiteko?**

Esan dugun bezala, ikasle bati jokabide-laguntza positiboko plan bat egitea arropa neurria egitea da, horrek dakarren guztiarekin.

### **Nola prestatzen dugu jokabide-laguntza positiboko plan bat?**

Zenbait fase ezartzen ditugu:

#### **1. fasea: planerako izangai diren ikasleak**

Izangai diren ikasleak honela detektatzen dira:

- ikasturte hasierako bileretan: Irailean, tutoretza bakoitzak hasierako bilera egiten du klase-talde horretan lan egiten duten profesional guztiekin. Bilera horietan, ikasleei buruzko informazio guztia ematen da, eta zer ikasle den izangai erabakitzen da.  
Ikasleari aurreko urtean jokabide-laguntza positiboko plan bat egin bazaio, izangai izaten jarraitzen du. Aurreko ikasturteko dokumentazioan (aktak, memoriak...) detektatu bazen ikaslea izangai izan zitekeela, ikasturte honetarako jasotzen da.
- ikasturtean zeharreko bileretan: Sortzen diren kasu berriak, ikasturtearen hasieran ikasle horiek kontuan hartu edo aztertu ez zirelako; edo berandu hasi ziren ikasleak direlako, eta, beraz, informazioa ez zelako nahikoa.

Eskaera, izangai diren ikasleekin, orientazioari eta/edo ikasketaburuari helarazten zaio.

## **2. fasea: ikasleari buruzko informazioa biltzea**

Orientatzaileak, ikasketaburuak eta erizainak ikasleari buruzko eskola, familia, gizarte eta mediku informazio guztia biltzen dute. Informazio hori zehatza da.

Bildutako informazioaren laburpena egiten da, eta Koldori eta Soniari (NHBBZko jokabide programako teknikariak) ematen zaie, profesionalak haren berri izan dezaten.

## **3. fasea: jokabidearen azterketa funtzionala egitea**

Fase honetan, jokabidearen azterketa funtzionala egitea da helburua. Azterketa horren bidez, honako galdera hauei erantzun nahi diegu: Zer egiten du? Zertarako? Zenbatean behin egiten du? Zer aldagaik eragiten dute?

Fase honetan jarduketa batzuk egiten dira.

- Erregistratzea: lehendabizi, jokabide larriki desagokituak gertatzen badira bete beharreko erregistroko dokumentuaren berri ematen diegu profesional guztiei. Profesionalen aurkako erasoak gertatzen badira, departamentuko laneko arriskuen prebentziorako atalera bidaltzen dugu eraso partea.

Bigarrenik, ikastetxean jokabide desagokituak dauden bakoitzean, egoera hori erregistratzen dugu. Gure erregistro orrian honako datu hauek jasotzen dira: eguna, ordua, lekua, nortzuk zeuden, zer gertatu den lehenago, zer egin duen ikasleak, zer egin den ondoren profesional moduan, nola dagoen azkenean ikaslea...

Erregistroa ez dugu bakarrik egiten jokabide-laguntza positiboko plan bat duten ikasleen kasuetan. Ikasle baten jokabide desagokituak gertatzen diren guztietan, erregistroa egiten da.

- Koldok eta/edo Soniak (NHBBZko teknikariak) egindako behaketa. Ikasleak zenbait egoeratan eta testuingurutan eta zenbait profesionalekin behatzen dituzte. Behaketa hori ostegun batean egiten da.
- Behaketako datuak itzultzea: NHBBZko teknikariek aurreko ostegunean egindako behaketaren emaitzak itzultzen dizkiete jokabide-laguntza positiboko taldeko kideei.

Fase horren ondoren, lehen aipatu ditugun galderei erantzun behar diegu, eta, beraz, hauek ikasi:

- jokabidearen topografia (nola): kosk egin, atximur egin, oihu egin...
- jokabidearen funtzioa: zerbait eskatzeko, saihesteko, asperdura...
- maiztasuna: egunero, astero...
- eragina izaten ari diren aldagai posibleen detekzioa: lan konplexuak, zarata handiegia, abertsiozko ingurunea, mina...

## **4. fasea: jarduketa profesionala jokabide-laguntza positiboko talde moduan prestatzea**

Fase honetan ere jarduketa batzuk izaten dira:

- Tutoreari jarraitu beharreko prozesua azaltzea: Ikasketaburuak tutoreari esaten dio nola lan eginen den une horretatik aurrera. Jarraitu beharreko prozesua hau da:

Ostegunetan, kasuan kasuko ikaslearen tutorea, ikasketaburuak eta NHBBZko teknikariak biltzen gara. Hurrengo astean zehar, tutorea jokabide-laguntza positiboko taldeko gainerako kideekin koordinatzen da, 08:00etatik 09:00etara bitarte.

Tutorea funtsezkoa da prestaketa fase honetan. Lehenik, bi taldeen arteko lotura eginkizuna betetzen du. Bigarrenik, prozesua gidatzen du, eta ikasleekin harreman

zuzena duten jokabide-laguntza positiboko taldeko kideak dinamizatzen ditu. Hirugarrenik, dokumentua egin eta eguneratzen du; eta, laugarrenik, praktikan jartzen ditu diseinatzen diren ia jarduketak guztiak.

Tutorearen gidatze lana ona bada, handiago da plana ongi ateratzeko aukera.

- Jokabide-laguntza positiboko plana: tutoreak planaren lehen proposamena diseinatzen du. Proposamen hori egiteko, ikasketaburuak (planaren arduraduna izaki) esaten dio nolakoa den planaren dokumentua, zer zati dituen, zertan datzan zati bakoitza..., dokumentu ezezaguna delako tutorearentzat. Tutorea proposamena egiten hasten da, emaitzak itzultzean NHBBZko teknikariek (Koldo eta Sonia) egindako oharpenekin. Ikasketaburuak proposamen horren jarraipena egiten du.
- Jarraitu beharreko prozesua azaltzea jokabide-laguntza positiboko planeko gainerako kideei. Tutoreak planeko kideei (musika, erlijio espezialistak, GH, erizain eta HLE) azaltzen die zein den jarraitu beharreko prozedura, eta, beraz, astean edo hamabostean behin bildu beharko dutela taldean lan egiteko.
- Egindako proposamena jakinaraztea gainerako kideei. Proposamen edo traje zirriborro horretatik abiatuta, pixkanaka gauzatuko da denak elkarlanean arituko diren neurriko trajea.

### **5. fasea: Jarraipena eta ebaluazioa:**

Kasuen jarraipena ikasketaburuari dagokio, eta asterokoa da (ostegunak). Hamabostean behin (hilabete bakoitzeko lehen bi ostegunetan), NHBBZko teknikariek (Koldo eta Sonia) bat egiten dute kasuen jarraipen eta gainbegiratze horretan.

Kasuen jarraipen horretan, hauek egiten dira:

- aurreikusita zeuden lanak eta/edo jarduketak nola bete diren aztertzea.
- aste horretan abian jarritako jarduketak berrikustea. Alderdi positiboak, izandako zailtasunak... zein izan diren jakitea.
- hurrengo 15 egunetan egin beharreko jarduketak lehenestea. Egin beharreko ekintza guztietatik, premiazkoena edo lehentasunezkoa antolatzen da denboran zehar, eta hori egiten da.

Hurrengo 15 egunetan, tutorea bere taldearekin lan egiten duten eta proposatutako lana hurrengo bilerarako egiten duten profesionalekin biltzen da.

- ikasleak astean zehar izan duen portaera aztertzea.
- tutoreari laguntzea: alderdi teknikoetan laguntzen da. Adibidez, autokontrol teknikak hasi behar badira, argi izatea nola egiten diren eta nola helduko diegun.
- tutoreari edo beste profesional batzuei lagun egitea: Irakasle horiek estres karga handia dute, tentsio handia izaten dutelako eguneroko jardunean.

Jakina, lagun egite hori iraunkorra izanen da beharrezkoa den uneetan.

## **Jokabide-laguntza positiboko plan baten adibidea**

### **Nolakoa da gure dokumentazioa?**

Uste dugu programazio guztiek behar bezain inklusiboak izan behar dutela, jokabide-laguntza positiboko plana programazio guztietan jasota egoteko.



2020-2021 ikasturtean, ikasle guztiek programazio eredu bera dute, zenbait dokumentuz osatuta:

- Premiak, Metodologia eta Egokitzapenak. Ikasle guztiekin betetzen da.
- Edukiak, ikasketa emaitzak eta ebaluazioa. Ikasle guztiekin betetzen da.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak. Jokabide-laguntza positiboko neurri espezifikoak behar dituzten ikasleekin betetzen da.

Irakurtzen, irakurriz ikasten da; ibiltzen, ibiliz; josten, josiz; eta jokabide-laguntza positiboko plan bat egiten, eginez.

### Nondik hasiko gara?

Gure ikaslea aurkeztuz hasiko gara. Ikasle hori alegiazkoa da, nahiz eta kasuari lotuta deskribatzen diren adibide guztiak benetakoak izan.

<b>Izena</b>	Juani Crespo Antón		
<b>Jaioteguna</b>	2002/11/19	<b>Adina</b>	18 urte
<b>Diagnostikoa</b>	Adimen desgaitasun moderatua		
<b>ADNH</b>	Medikamentuak	<b>Itunp.</b>	
<b>Tutorea</b>	Neli	<b>Maila</b>	HIPko 1.a
<b>Eskolatzeko modalitateak</b>	Hezkuntza bereziko ikastetxea	<b>Konbinatua</b>	Ez
<b>Jokabide-laguntza positiboko taldea</b>	Tutorea, Hezkuntza Laguntzako espezialista, EHko irakaslea, Gorputz Heziketako irakaslea, Musikako irakaslea, ikasketaburua eta NHBBZko teknikariak		

### Nolakoa da Juani eta zer premia ditu?

Zertxobait gehiago ezagutuko dugu Juani, eta ikasiko dugu nola egiten dituen egokitze trebetasun hauek.

Edukiek bi izartxo (\*\*) izateak esan nahi du jarduteko lehentasunezko edukiak direla.

#### A. Eguneroko bizimoduko jarduerak.

- Edukiak:
  - garbitzea eta janzea: gainbegiratze beharra du, gidatzeko, sekuentzia osoa egitean oharrena galtzen duelako. Nahiko autonomoa da, baina lokarriak lotzea eta galtzerdiak jartzea kostatzen zaio.
  - esfinterren kontrola. Lortuta dauka.
- Premiak: uste dugu ez dela landu beharreko lehentasunezko trebetasun bat. Ez du esan nahi ez dela inolako helbururik landuko, baina ez lehentasunez.
- Helburuak:
  - garbitzea: komunean egotea eskuak garbitu bitartean, xaboi kantitate egokia erabiltzea.
  - janzea: Kremlera igotzea eta botoiak lotzea, galtzerdiak jartzea eta kentzea...

- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: dokumentu honetan ez da beharrezkoa trebetasun horri dagokion ezer jasotzea.

## **B. Ikaskuntza funtzionalak eta adierazgarriak:**

- Edukiak:
  - Irakurketa-idazketak: hitz errazak irakurtzen ditu eta hizki larriz idazten, nahiz eta irakurtezinak izan.
  - Zenbaketa eta eragiketak: zenbaketari dagokionez, 20ra arteko zenbakiak dakizki, eta zenbakia kopuruarekin lotzen du. Batuketak eta kenketak egiten ditu, bururakorik gabe eta lagunduta.
  - Dirua: euro bateko eta bi euroko txanponak ezagutzen ditu, baina ez daki nola erabiltzen den dirua.
  - Denbora kontzeptua \*\*: Juanik hilabetearen denbora kontzeptua dauka. Hileko egutegian orientatzen da.Premiak: uste dugu ez dela landu beharreko lehentasunezko trebetasun bat.
- Helburuak:
  - Irakurketa-idazketak: hitzen irakurketa funtzionala egiten du.
  - Zenbaketa eta eragiketak: zenbaketa handitzea eta batuketak eta kenketak bururakorik gabe egitea.
  - Dirua: diruaren erabilera txikiak egitea euro bateko eta bi euroko txanponekin.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: dokumentu honetan ez da beharrezkoa trebetasun horri dagokion ezer jasotzea.

## **C. Osasuna eta segurtasuna:**

- Edukiak:
  - Emozioak \*\*: Emozioak erregulatzeko zailtasun handiak. Etengabeko umore aldaketak ditu. Maila emozionalean, aldarte egoera guztiak transmititzen ditu. Alaitasun handienetik negarrera aldatzen da. Ez dago kontrol emozionalik.
  - Sentsopertzepzioa: uki dezaten molestatzen du.
  - Loia: ez dago lo arazorik.
- Premiak: erregulazio emozionalaren beharra.
- Helburuak:
  - Emozioak eta haien funtzioa jakitea.
  - Emozioak ezagutzea.
  - Irakatsitako estrategiak aplikatzea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

## **D. Autodeterminazioa:**

- Edukiak:
  - Hautaketa \*\*: Hautatzeko gauza da.
  - Lekualdatzea \*\*: Juanik ibilera autonomoa du. Badaki nora joan behar duen, baina ez du zuzen egiten; izan ere, ibiltzean irain, oihu, korrika egiten du, ez du itxaroten, kideak bultzatzen ditu, taldetik banantzen da...

- Laguntza eskaera \*\*: Laguntza ikasten ikasi behar du, ez baitu egiten; haserretzen eta zapuzten da, hitz gordinak esaten ditu, eta ezkututzen saiaturen da.
- Premiak: laguntza eskatzen ikasteko eta lekuz egokiro aldatzeko beharra.
- Helburuak:
  - Laguntza eskatzeko gauza izatea.
  - Lekuz egokiro aldatzea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

#### **E. Funtzionamendu indibiduala:**

- Edukiak:
  - Arreta \*\*: Arreta arazoak lanak egitean; askotan galtzen du arreta.
  - Inhibizioa \*\*: Juani oldarkorra da, eta ez da gauza bere hitzeko eta mugimenduzko bulkadak inhibitzeko. Oldarkortasun horrek edozein lan egitea zailtzen dio.
  - Malgutasuna \*\*: Oso zurruna da. Gertatzen den edozein aldaketa onartzea kostatzen zaio. Horrelakoetan, jokabide arazoak agertzen dira.
- Premiak: arreta hobetzeko, bulkadak inhibitzeko eta malguagoa izateko beharra.
- Helburuak:
  - Hobeki zentratzea egiten duen jardueran.
  - Bulkadak inhibitzeko gauza izatea.
  - Aldaketak onartzea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

#### **F. Komunikazioa eta harreman sozialak: ahozko mintzaira du.**

- Edukiak:
  - Komunikazio sistema \*\*: Juani ahozko mintzairaz komunikatzen da.
  - Ulermena: ulermen ona du, aginduak betetzeko eta istorio bat hitzez ulertzeko gauza da.
  - Adierazpena: solasaldi bat izatea kostatzen zaio. Behin eta berriz bideratu behar da, gai obsesiboetara jotzen duelako (ikastetxeko erizaina) eta pentsamenduak etengabe adierazten dituelako hitzez: "Esan dit ezen...". Ez du txandarik errespetatzen.
- Premiak: komunikazio trukeetan txandak errespetatzeko eta gai obsesiboak gutxitzeko beharra du.
- Helburuak:
  - Hitz egiteko txanda errespetatzea.
  - Gai obsesiboak gutxitzea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

### **G. Aisia eta astialdia:**

- Edukiak:
  - Jolastokia: jolasteko denbora librean, Juanik salto, korrika... egiten du. Hitz batean, barrena husten du.
  - Jolasa \*\*: Ez daki jolasten. Oso jolas mugatuak ditu.
- Premiak: jolasten ikasi behar du.
- Helburuak:
  - “Azeri buztana” izenekoan jolasten ikastea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

### **H. Lanerako jarduerak:**

- Edukiak:
  - Autonomia lanean \*\*: ez da autonomia lanean. Badaki zer egin behar duen, baina ez daki nola, ez daki noiz amaitzen den lana eta zer egin behar duen lana amaitzen duenean.
  - Motrizitate xehea: trebetasun ona du motrizitate xehea behar duten eginkizunak betetzeko, bai eta begi-eskuen koordinazio ona ere.
- Premiak: lanean autonomia izateko beharra.
- Helburuak:
  - Jakitea zer egin behar duen.
  - Jakitea nola egin behar duen.
  - Jakitea noiz amaitzen den jarduera bat.
  - Jakitea zer egin jarduera amaitutakoan.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

### **I. Etxeko bizitza:**

- Edukiak:
  - Etxeko lanak: ez du arazo handirik etxeko lanetan; besteak beste, eskobatzen eta harrikoa egiten. Mahaia prestatzeari dagokionez, Juanik badaki mahaia jarri behar duela, baina ez da gauza mahaia prestatzeko, ez eta jan ondoren jasotzeko ere.
- Premiak: trebetasun hau ez da lehentasunezkoa, baina trebetasun honetan konpetentzia handiagoa izatea nahi dugu; beraz, helburu jakin batzuk landuko ditugu.
- Helburuak:
  - Mahaia prestatzea.
  - Mahaia jasotzea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

### **J. Komunitatearen erabilpena. Partaidetza:**

- Edukiak:
  - Klasean parte hartzea: jarduera guztietan parte hartzen du, baina parte-hartzea zailtzen duten jokabide arazoak daude. Juaniri parte hartzea gustatzen zaio.

- Jolastokian parte hartzea: ez dago parte-hartzerik jolastokiko jolasetan.
- Ikastetxeko jardueretan parte hartzea: klasean parte hartzean bezala, ikastetxeko jardueretan parte hartzea gustatzen zaio (festak, urtebetetzeak, irteerak...), baina kanpo gida behar du.
- Premiak: trebetasun hau ez da lehentasunezkoa, baina trebetasun honetan konpetentzia handiagoa izatea nahi dugu; beraz, parte-hartze helburua landuko dugu.
- Helburuak: jolastokian parte hartzea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: Trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

#### **K. Jokabidea:**

- Edukiak: Juaniren jokabide desegokiak hauek dira:
  - Autokontrol galerak: etengabe kasketa anitz izaten ditu eskola egunean zehar.
  - Heteroagresiboak: Juanik kideak bultzatzen ditu, eta zartakoak ematen dizkie.
  - Autolitikoak: eskuan hozka egin eta aurpegia kolpatzen du.
  - Sozialki desegokiak: beti kide berak iraintzen ditu: “tontolapikoa”, “Juan puta”; eta hitz gordinak: “Kabenzotz”!, “amari esanen diot”, “ostia puta, joel!”
  - Disruptiboak edo gogaikarriak: oso ozen oihukatzen du “nahikoa da, ez begiratzeko”, “Biba Torre Monreal”. Aulkitik altxatzen da, besoak astintzen ditu eta bere gai obesiboez mintzatzen da.
  - Elkarlanaren aurkakoak: oso erraz galtzen du arreta, kontzentrazio maila txikia duelako.
  - Ukakorrak: batzuetan ez du egin nahi esaten zaiona: “ez dudala eginen; egin zuk, nahi baduzu”.
  - Obsesioak: alde batetik, obsesioa du ikastetxeko erizainarekin, biziki maite duelako, gustukoa duelako harekin mintzatzea, bisitatzea, izena oihukatzea. Bestetik, kide jakin batzuekiko obsesioa du, ez baititu maite, eta iraintzen ditu: “Juan puta”, “Iraindu nau, ...”
- Premiak: jokabidea egoerara egokitzeko beharra.
- Helburuak:
  - Egokitze jokabideak gehitzea.
  - Desegokitze jokabideak gutxitzea.
- Jokabide-laguntza positiboko neurriak: trebetasunari dagozkion alderdiak dokumentu honetan jaso behar dira.

#### **Nolakoa da Juani eta zer premia ditu?**

Hauek dira datu adierazgarriak:

1. Jokabide guztiak ikastetxearen joan-etorri guztietan agertzen dira beti, eta laguntza eskatzeko.
2. Jokabide guztiak honako hauetan agertzen dira anitzetan:
  - Itxaronaldietan: batez ere autobusera irteteko itxaronaldian; jangelan, 1. plateraren eta 2.aren arteko itxaronaldian; eta klasean, hutsarte txikietan (adibidez, klase-aldaketan).

- Estresa eragiten dioten egoeretan: eguneroko aldaketa egoerak zirela hauteman zen, eta bere burua telebistaren pantailan ikustea, taldearteko jarduera telemati-koak egiten dituenean (adibidez, bingo jarduera).
- Zapuzten duten egoerak: bi egoera horiek hauek dira: lehenik, ez izatea lehena (ez izatea lehena autobusean, eskuak garbitzera joaten lehena ez izatea...); eta, bigarrenik, zuzenketa bat egitea.
- Juani mehatxatuta sentitzen den egoerak: ukitu dutelako izaten ahal da, eta horrek haserretu egiten du (adibidez, doi-doi ukitu dute pasatzean); edo gauzaren bat hartu diotelako (motxila, jaka...), eta pentsatzen du kendu behar diotela, edo apurtuko dutela.
- Iraganeko egoera desatseginak gogoratzen dituenean: Adibidez, "autobusean jo nau", baina hori duela bi urte gertatu zen.
- Saihestu nahi dituen egoerak: adibidez, ikusten badu lana zaila izan daitekeela.

### Nolako da "Jokabide-laguntza positiboko neurriak" dokumentua?

Gure "Jokabide-laguntza positiboko neurriak" dokumentuak honako hauek ditu:

1. Azala
2. Zer elementutan esku hartzen dugun:
  - Aurrekariak.
  - Trebetasunak.
  - Ondoriozkoak.
  - Bizimodua.
3. Ekintza Plana.
4. Eranskinak.

### Nolako da gure azala?

Gure dokumentuaren azala hau da:

<b>2. PROGRAMACIÓN:</b>			
- VI. MEDIDAS APOYO CONDUCTUAL POSITIVO:			
A. ANTECEDENTES			
B. HABILIDADES			
C. CONSECUENTES			
D. ESTILO DE VIDA			
<hr/>			
<b>Programa de Tránsito a la Vida Adulta</b>			
NOMBRE Y APELLIDOS	JUAN CRISTÓBAL ANTÓN		
FECHA NACIMIENTO	15/11/1983	EDAD	34 años
TUTORÍA	BEU	CURSO	2º FTUA
EQUIPO ACP	Tutora, TAs, Maestros de AI, E.F., Música, Religión, Jefe de estudios y Técnicos de CRENA		
INSTITUCIÓN EDUCACIONAL	B	Centro Educativo Especial	Comunidad

Azaleko plana

## Nola esku hartzen dugu inguruneko faktoreetan edo aurrekarietan?

Inguruneko faktoreek eragina dute ikaslearen jokabidean. Faktore horiek ingurunearen antolamenduari zuzen lotuta daude.

Aurrekariak arazo den jokabidea edo nahi den jokabidea gertatzea eragiten duten aldagaiak dira. Aldagai horiek hauek izaten ahal dira:

- Jarduera: garatzen ari den jarduerari lotuta daude. Gure ikaslearen kasuan, jarduera aldagaiak hauek dira: aldaketak, itxaronaldiak, lan zailak, jarduera egiteko lehena ez izatea, lekualdaketak eta bere burua ikustea ordenagailuaren pantailan.
- Pertsonalak eta sozialak: berarekin eta pertsonekin (kideak eta profesionalak) erlazioatuta daude. Kasu honetan, hauek dira: ukitzea, bere gauzaren bat hartzea eta pertsona jakin batzuekin dituen obsesioak.
- Ingurunekoak: inguruneari lotuta daude. Juaniren kasuan, ez zion mesede egiten altzarien kokapenak, eta giro lasaia behar du.

Jokabidean eragin zuzena duten aldagai horiek zein diren jakitea lortzen badugu, haien gainean esku hartzen ahal dugu. Lau esku-hartze mota egiten ahal ditugu: aldagaiak ezabatzea; aldatzea; aldagai berriak gehitzea, nahi diren jokabideak sorraraz ditzaten; eta aldagai batzuen eragin txarra blokeatzea.

Aurrekarietan esku hartzeko, galdera hauek egiten ahal ditugu:

- Nola alda ditzakegu aurrekariak nahi ez diren jokabideei aurrea hartzeko?
- Nola alda ditzakegu aurrekariak nahi diren jokabideak lortzeko?

Gure ikastetxeko "Jokabide-laguntza positiboko neurriak" dokumentuan, "Inguruneko faktoreen edo aurrekariaren aldaketa" atala honela agertzen da:



**A. MODIFICACIÓN DE LOS FACTORES O ANTECEDENTES DEL ENTORNO**

**1. RETIRAR SUCESOS PROBLEMÁTICOS.**

**A. INTERVENCIÓN EN VARIABLE ACTIVIDAD.**

- **Tiempos de espera:** Evitar tiempos de espera largos.


**B. INTERVENCIÓN EN VARIABLES PERSONALES Y SOCIALES.**

- **Tocarle:** Evitar que te toquen, no le gusta. Ni profesorado ni alumnado.

**C. INTERVENCIÓN EN VARIABLE AMBIENTAL.**

- **Situaciones de máxima ansiedad:** Evitar situaciones de máxima ansiedad:
  - Cámara web: En las actividades vía online con otras clases, quitar la visión de la cámara web de modo que la propia clase no se vea en el ordenador.
  - Cambios: Evitar en la medida de lo posible, los cambios. Ejemplo: las interrupciones en clase, cambio de profesor,...

Aurrekariaren plana 1



**2. MODIFICAR SUCESOS QUE PUEDEN SER PROBLEMÁTICOS.**


**A. INTERVENCIÓN EN VARIABLE ACTIVIDAD.**

- **Desplazamiento:** Leer las normas para desplazarse con corrección antes de un desplazamiento. Están colgadas en la puerta de clase.
- **Tiempos de espera:** Ofrecer a Juan alternativas a la espera.
  - 1. Salida del autobús:** La rutina a realizar será: lavarse la cara, peinarse, coger el bolso, quitar los pictogramas del panel y ordenarlos. Si queda tiempo seguir el orden del funcionamiento de los autobuses.
  - 2. Espera entre plato y plato:** Refrescar en la zona de agua, limpiar su bandeja (levantarse, coger papel), recoger los restos de comida, tirarlos a la basura.
  - 3. Tiempos muertos en clase:**
    - En clase: ordenar su estantería, ordenar su caja, beber agua, ...
    - En EP: beber agua, recoger el material usado, solicitarle que mueva un banco a otro sitio, ...
    - En religión: lavarse las manos, poner bien los carteles del corcho, ...
- **Cambios:** Anticipar:
  - **Visitas inesperadas:** Poner cartel en la puerta. Solo deberán entrar visitas prioritarias. Si tocan a la puerta, anticipar con el letrero que tenemos una visita. Se lo enseñamos y decimos "hay un cambio, tenemos visita".
  - **Falta de un profesor:** Hacer una copia de la hoja de guardias y que la tenga en clase.
  - **Otros:** Llavero del profesor. Anticipar con el pictograma del cambio.
- **No a la primera:** El orden se realiza estableciendo que sea el azar quien decida.

Aurrekariaren plana 2



Aurrekarien plana 3



Aurrekarien plana 4

### Zer trebetasun irakatsi?


Bloke honetan, zer irakatsiko diogu?, zertan nahi dugu Juanik konpetentzia handiagoa izatea? dira gure galderak.

Erreferentziatatz egokitze trebetasunak hartuta Juanik ikastea nahi dugun helburuak hauek dira:

- Autodeterminazioa: laguntza eskatzea eta ongi mugitzea.
- Osasuna eta segurtasuna: emozioak ezagutzea eta identifikatzea.
- Jokabidea: itzaroten ikastea, lehena ez joaten ikastea eta lasaitzen ikastea.
- Jarduera okupazionalak: autonomia izatea lanean.
- Adimen funtzionamendua: aldaketak onartzea eta gehiago zentratzea egiten diren lanetan.
- Etxeko bizitza: mahaia prestatu eta jasotzea.
- Aisialdia: jolasten ikastea.
- Parte-hartzea: jolastokian parte hartzea.

Gure ikastetxeko "Jokabide-laguntza positiboko neurriak" dokumentuan, "Tebetasunak" atala honela agertzen da (adibide batzuk baino ez dira ematen):





## Nola esku hartzen dugu ondoriozkoetan?

Bloke honetan adierazten dugu zer egiten dugun nahi den edo nahi ez den jokabidea gertatu ondoren. Egiten dugunaren arabera, arazo den jokabidea mantentzeko edo gutxitzeko aukera gehiago ditugu.

Esku-hartze honen bidez, bi helburu lortu nahi dira:

- pertsona indartzea trebetasun alternatiboetara jotzen duenean.
- jokabide problematikoaren eraginkortasuna murriztea.

Gure dokumentuan, hiru galdera hauei erantzuten diegu: Zer egiten dugu ikasleak nahi den jokabide bat duenean? Zer egiten dugu ikasleak nahi ez den jokabide bat duenean? Zer egiten dugu krisi egoeran?

Ikastetxean, azken galdera horrekin ditugu arazo gehien. Krisia diogunean, arrazoia da balitekeela pertsonak oso jokabide problematiko larriak izatea, bai eta bera, kideak eta/edo gainerako profesionalak arriskuan jartzea ere.


Horrelakoetan, intentsitatea gutxitzeko eta pertsona bera eta gainerakoak litezkeen kalte fisikoetatik babesteko esku hartzen dugu. Horrelako esku-hartzeetan, babestea da beti gidatzen gaituen irizpidea.

Guk arazoak ditugu horrelakoetan, eta esku hartzeko protokoloa ezartzea kostatzen zaigu, krisi egoeretan zenbait alderdi kontuan hartu behar ditugulako:

- Lehenik, jakitea krisiaren zer fasetan dagoen ikaslea une horretan. Abiarazte fasea, areagotze fasea, leherketa fasea edo lehengorazte fasean dagoen.
- Bigarrenik, krisia non gertatzen ari den. Ez da gauza bera korridorean izatea, jolastokian edo klasean.
- Hirugarrenik, kontuan hartu beharreko garrantzi handiko beste aldagai batzuk daude: Adibidez, leku horretatik atera behar diren ikasleak egotea, jaurtitzeko ahal diren materialak edo altzariak egotea, etab.

Hizpide dugun kasuan, Juanik ez du krisialdirik.


Gure ikastetxeko “Jokabide-laguntza positiboko neurriak” dokumentuan, “Ondoriozkoak” atala honela agertzen da:



Ondoriozkoen plana 1



Ondoriozkoen plana 2



Bizimodu plana

Nola esku hartzen dugu haren bizimoduan?

Bizimoduaren gaineko esku-hartzeek bizi kalitatea hobetzen dute.

Esku-hartze horiek lagungarriak dira epe luzean jokabide problematikoak prebenitzeko eta/edo bizi kalitatea hobetzeko, eta oso zabala eta askotarikoa izaten ahal da.

Gure ikastetxeko “Jokabide-laguntza positiboko neurriak” dokumentuan, “Bizimodua” atala honela agertzen da:

Zer da ekintza plana?

Egin behar ditugun edo egiteko zain dauden jarduketa guztiak ekintza planean jasotzen dira. Geroago, jarraipen bileretan, egin beharreko jarduketak lehenesten eta denboran zehar banatzen dira.

Dokumentuko “Ekintza plana” atalean, aurreikusitako jarduketak jasotzen dira, bai eta jarduketa hasteko data eta, dagokion adierazlearekin batera, lortze maila ere. Lau adierazle mota ezartzen ditugu:

1. Hasita: hasitako jarduketa.
2. Hasiberria: oraindik falta da lortuta egoteko.
3. Aurreratua: neurri handi batean eginda dago.
4. Lortuta: osorik eginda dago.

Gure ikastetxeko “Jokabide-laguntza positiboko neurriak” dokumentuan, “Ekintza plana” atala honela agertzen da:

### Eranskinak

Guretzat garrantzitsua da jokabide-laguntza positiboko plana egiteko erabiltzen den material guztia egotea eranskinetan. Hartara, egindako ikus euskarri bat berriz egokitu behar bada, profesionalak eskura dauka eranskinetan, eta berriz egiten ahal du.

Aurkeztutako dokumentua zenbait eranskinekin osatzen da. Erabilitako eranskin batzuen irudiak erakusten dira.

ACCIÓN	FECHA	1	FECHA	1
Refectura de estudios expresa el plan a tutora	18/09/20	1	18/09/20	4
Realizar una propuesta de Plan ACP	18/09/20	1	17/10/20	4
Comisión de la propuesta de Plan ACP	17/10/20	1	8/10/20	4
Informar al resto de profesionales del Plan	8/10/20	1	15/10/20	4
Realizar panel de emociones	19/11/20	1	10/12/21	4
Estructurar en la jornada rutina emocional y rutina relajación	19/11/20	1	10/12/20	4
Hacer llaveros del profesor. Hacer 6				
Cartel de no interrumpir	15/10/20	1	22/10/20	4
Tiempos de espera. Estructuras. Autobus, comedor y tiempos muertos	22/10/20	1	19/11/20	4
Consecuentes. Conductas deseadas. Tipos de contrato.				
Consecuentes. Conductas no deseadas				
Realizar un guion para la relajación	14/01/21	1	21/01/21	2
Disposición de la clase	15/10/20	1	22/10/20	4
Trabajo autónomo. Diseñar sistema de trabajo	22/10/20	1	10/12/20	4
Caja personalizada para establecer el orden				
Desplazamiento. Normas.	12/11/21	1	19/11/21	4
Toma de turnos	21/01/21	1	28/01/21	4
Normas del pabó	12/11/21	1	19/11/21	4
Listado de intereses	14/1/21	1	21/1/21	4
Menú para el almuerzo	21/01/21	1	28/01/21	4
Peticion de ayuda. Ideas para el trabajo en mesa				
Cuaderno para el autobús	22/01/21	1	28/01/21	3
Comprar cronómetro visual. Gestionar su uso	27/12/20	1	28/01/21	2
Estrategias para gestionar el enfado				
Centraje. Estrategias				
Esfera. Diseñar intervención				

Ekintza plana



Lekualdatze zuzenerako ikus euskarriaren eranskina



## Ondorioak

Aurkezpena amaituta, pentsatzen ahal dugu ikasleari neurrira egindako arropa oso modernoa eta sofisticatua dela. Hala ere, eroso eta praktikoa da, arropak bizitzaz gozaten laguntzea delako helburua.

Hortaz, esaten dugu Hezkuntza Bereziko Torre Monreal Ikastetxe Publikoan argi ditugula honako hauek (nahiz eta beti ez izan titare bat, jantzi hori neurrira egitean izaten ahal ditugun ziztadetatik babesteko):

- ikasleekin lotura positiboa sortzen jarraituko dugu, badakigulako estrategiarik onena dela.
  - edozein aukera baliatzen jarraituko dugu, hor maite ditugula eta axola zaizkigula sentituko dutelako.
  - babesten jarraituko dugu, tiritak jartzen, aztarna negatibo hori orbaintzeko, eragina ahalik txikiena izan dadin eta bizitza hainbeste baldintza ez diezaien.
  - elkarri begiratzen jarraituko dugu, begirada bero baina autokritikoarekin.
  - gutako bakoitzak duen onena ateratzen jarraituko dugu, jantzi hori neurrira egiteko.
  - ahalegintzen jarraituko dugu, eskolak ezartzen digun erronka bat delako.
- Hitz batean, Torre Monreal Hezkuntzako Ikastetxe Publikoan lanean jarraituko dugu.

# Mahai-Ingurua

Hezkuntza bereziko ikastetxeak: “Nolakoak izan beharko genuke 2025ean jokabidearen alorreko premiak hobeki artatzeko?”

**Zuzendaria: Mari José Cortés (Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendaria).**

Parte hartzaileak: José Andrés Burguete (Isterria HBiko zuzendaria), José Luis Gamén (Torre Monreal HBIPko zuzendaria), Elvira Lacunza (El Molino HBiko zuzendaria) eta Mari Carmen San Miguel (Andrés Muñoz HBIPko zuzendaria)

**1. galdera. Gure ikastetxeen ikuspegia (gure ametsetakoa ikastetxea, lortu nahi dugun ikastetxea) ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren alderdietako bat da. Zer egokitu behar dugu lortzeko? Zuen ustez, zein da antolaketa plangintza eta egitura egokiena? Zer zehaztasun barne hartu behar dute zuen zuzendaritza planek?**

## **1.1. Andrés Muñoz Garde HBIPren erantzuna**

- Ikastetxeko ikasle bakoitzaren komunikazio sistemaren azterlan xehatua egitea eta Hezkuntza Komunitateari gehien erabiltzen diren sistemen prestakuntza sakona ematea.
- Familiekin gehiago lan egitea: eskolatzeko irauten duen denbora osoan zehar familiak laguntzea; hezkuntza zikloa aldatzeko uneetan aholkularitza ematea; beharrezkoa denean, laguntza emozionala ematea; izapide burokratikoak egitea; hezkuntza ekitaldiei buruzko informazioa eskaintzea, eta laguntza profesionala ematea, ikastetxean ikasitakoa etxe ingurunean orokortzeko.
- Oinarrizko abilezia sozialak erakustea, zabaltzea eta erabiltzea, ikasleak ahalik eta era autonomoenean aritu daitezen eguneroko bizitzako jardueretan, gizartean aktiboki parte hartzea sustatuta.
- Ikaskuntza esperientziak ahalbidetuko dituzten giro lasaiak sortzea, hezkuntza komunitate osorako proiektu komunetan lan eginez. Proiektu horien azken produktuek talde saioak sortzea ekarriko dute, hezkuntza komunitateak harremanak izateko, gozatzeko eta gure ikasleen eboluzio garapenean hain beharrezkoak diren lotura emozionalak sortzeko aukera izan dezan.

## 1.2. Isterria HBlren erantzuna

Gure IHPak –2020an berregin eta onartu zen– JLPren eragin handia du. Gure printzipio pedagogikoez JLPren esparruan lan egiteko eta jarduteko modu bat izatea nahi dugu, eta honako hauek dira horietako batzuk:

- Hezkuntza inklusiboaren alde egiten dugu, eta aniztasuna identifikatu ez ezik, erantzuna ere ematen diogu. Inklusioa guretzat da baita ere, alegia, HBlentzat. Inklusiboak gara, gure printzipioei jarraikiz.
- Hezkuntza integrala, pertsona baten alderdi guztiak lantzeko (kognitiboa, emozionala, soziala eta fisikoa).
- Aniztasunean hezten dugu, berdintasunera zuzendutako jarrerak eta portaerak aztertzeko, zuzentzeko eta txertatzeko.
- Osasun sozioemozionala, fisikoa eta mentala lortzeko hezkuntza. Emoziorik gabe ez dago ikaskuntzarik. Eskola osasuntsua, jasangarria eta solidarioa.

Familiak: lankidetzak eginkizun garrantzitsua. Harreman estua, harrera eta laguntza hainbat unetan eta hainbat arrazoi direla eta.

Oso garrantzitsua da gure ekintzetan hezkuntza komunitate osoaren (profesionalak, familiak, ikasleak...) zeharkakotasuna, parte-hartzea eta koordinazioa izatea, eta egunerokotasunera eramaten ditugu printzipio pedagogiko horiek.

## 1.3. El Molino HBlren erantzuna

Gure ametsetako ikastetxearen ikuspegiari dagokionez, funtsezko hiru alderdi nabarmendu nahi ditut:

- Profesionalen taldea.
  - Helburu komuna: helburu komun bat lortzeko, elkarrekin lan egiten duen profesionalen taldea.
  - Prestakuntza: alderdi teknikoetan eta etikoetan prestakuntza handia duen taldea, eta lana bateratzen duten balioak eta printzipioak dituen.
  - Lantalde espezializatuak eta diziplina anitzekoak. Lantalde horren barruan talde espezializatuak sortu behar dira ikasle guztiei haien ezaugarriak kontuan hartuta (etapa, profilak, etab.) arreta emateko.
  - Komunikazioa eta koordinazioa, oso garrantzitsua da lantalde horren koordinazioa eta komunikazioa erraztuko dituen antolakuntza diseinatzea. Koordinazio onik gabe, ezin da ongi esku hartu.
- Familiak: oso garrantzitsua da zehaztea nola komunikatuko eta koordinatuko garen familiekin, eta nola emanen diegun arreta.
  - Harrera prozesua, oso mingarria izan daitekeen une bati berotasuna emanen diona.
  - Akonpainamendua, semearen edo alabaren eskolatzeko osoan zehar.
  - Irteera prozesua; beste une garrantzitsu bat da, eta, batzuetan, ziurgabetasunez beteta dago.
  - Familia Orientaziorako Zentroaren (FOZ) laguntza izateko aukera azpimarratu behar dugu, bertara joaten diren familia guztiek laguntza eta babesa dutela sentitzen baitute.

- Bizikidetzeta Plana, JLPren paradigmatic, arreta ikaslearengan eta etikaren arabera esku-hartzean jarrita. Bizikidetzeta kudeatzea izanen da eskola jardueraren osoaren osagaiak biltzen dituen ardatz nagusia, hezkuntza komunitate osoarentzat.

BEROTASUNEZ ESKU HARTZEA izanen da nortasun ikurra.

#### 1.4. Torre Monreal HBIPren erantzuna

Gure ametsetako ikastetxean, ildo pedagogikoa erabat txertatuta eta finkatuta dago. Guk, hain zuzen ere, denbora daramagu horretan lanean.

Ildo pedagogikoak desgaitasun intelektualaren kontzeptua zehazten duten bost dimentsioen esku-hartze koherentean oinarrituta egon behar du (Desgaitasun Intelektualen eta Garapenaren Amerikako Elkarte, 2010eko 11. edizioan). Honako hauek dira:

- I. dimentsioa: Funtzionamendu intelektuala / gaitasun intelektualak.
- II. dimentsioa: Egokitze jokabidea (kontzeptuala, soziala eta praktikoa).
- III. dimentsioa: Parte-hartzea, interakzioa eta rol sozialak.
- IV. dimentsioa: Osasuna (osasun fisikoa eta osasun mentala).
- V. dimentsioa: Testuingurua.

Ildo pedagogiko horretan ezin hobeki eta era naturalean egokitzen da Jokabide Laguntza Positiboa.

#### Ezaugarri hauek ditu gure ametsetako ikastetxeak:

- Plangintza proiektuak, barne hartuta IHPa, hezkuntza planak, etapa desberdinetako curriculum proposamenak eta ikasle bakoitzarentzako hezkuntza plana bat datoz erabat ideia pedagogiko honekin.
- Profesional guztiek gure onena ematen dugu, ezarritako helburu komunak lortzeko.
- Ildo pedagogikoak Hezkuntza Departamentuaren babesa du, araudiaren ikuspegitik eta giza baliabideen eta baliabide material eta ekonomikoen horniduraren ikuspegitik.
- Ikasleei zuzenduta egon behar du, eta antolaketa egiturak oinarritzko prebentzio baldintzak eskaini behar ditu ikastetxe mailan jokabidea egokitze zailtasun larrien aurrean: espazioan eta denboran egituratutako ingurunea eta azpi-inguruneak, ingurune adierazgarria, aurreikusteko modukoa, fisikoki eta emozionalki segurua, laguntza eta erreferente pertsonal egonkorrak dituen, pertsonak arrakasta izatea bilatzen duena eta pertsonaren egokitze eta parte-hartze positiboko beharrei erantzuten diena.

Antolaketa, kalitatez koordinatzeko denbora eta espazioak izan behar dira. Koordinazioa da arrakastara hurbil gaitzakeen estrategia nagusia. Barne koordinazio ona, nahikoa eta egokia, eta departamentuen arteko koordinazio ona, nahikoa eta egokia.

JLPren beharrei azkar erantzun behar zaie, neurri orokorrekin, plan pertsonalizatua prestatu arte; eta antolaketa egitura ireki eta malguak izan behar dira, premietara egokitze (batez ere, ezohiko neurriak hartu behar diren kasuetan).



**2. galdera. Hezkuntza Departamentuari dagokio laguntza ematea eta beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea. Zuen iritziz, zer alderdi nagusi landu behar du? Zuen ustez, zer baliabide behar dira zeharkako lan bat egin ahal izateko eta, lan horretan, laguntza sare berriak eta koordinazioa funtzionamenduaren oinarria izateko? Zer alderditan eta arlotan laguntzen ahal dizuete NHBBZk? Zer beste departamentuk, erakundek eta elkartek parte hartu beharko lukete?**

### **2.1. Isterria HBIren erantzuna**

Funtsezko alderdi hauetan lan egin beharko genuke:

- a. NHBBZ. Euskarria eta erreferentzia. Funtsezko elementua. Lidergoa arlo honetan eta beste arlo batzuetan. Egiteko eta izateko modu bat proposatzea. Nortasun ezaugarri propioak. Elkarlanaren alde egitea.
  - Arlo bakoitzeko onenek osatua.
  - ERREFERENTZIA. LAGUNTZA ETA ANTOLAKETA HANDIAGOA.
  - Jokabide taldea. Lan onaren adibidea. Ikastetxeen gogobetetze-maila.
- b. Araudia. Gure ekintzei estaldura juridikoa ematea. Aldaketen inguruko zalantzak. Araudirik eza. Eguneraketak egitea araudian (profilak, ratioak, etab.) eta «Educa» tresnan (taldeak, irakasgaiak, ordutegiak, aurretiko izen-ematea, etab.).
- c. Prestakuntza teknikoa eta berariazkoa. Gure eskumenak eta entrenamendua hobetzea, ez prestakuntzaren esparru orokorrean, baizik eta gure beharretara egokituta. Laguntza emozional handiagoa. Desentsibilizazio sanitarioko proiektua. Prestakuntza eta giroa hobetzea, osasun arreta hobetzeko (ikasleen hobekuntza eta erantzun hobe). Beste HBI batzuekin elkarlaneko sareak zuzentzea.
- d. Baliabideak behar diren begiratzea. Psikiatra, erizaina, departamentuen arteko harremana (osasun mentala, eskubide sozialak...). Erantzun azkarrak eta zuhurrak. ARAUDIA.

### **2.2. El Molino HBIren erantzuna**

Funtsezko alderdiak:

- «Educa» tresna egokitzea hezkuntza bereziko ikastetxeen ezaugarrietara, profiletara eta antolaketa.
- Etapa ezberdinetako (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) curriculum ofizialetan gure ikasleek behar dituzten ezinbesteko curriculum elementuak txertatzea.
- Magisteritzako gradu guztietako eta LHko zenbait espezialitatetako ikasketa planetan eta curriculumetan Hezkuntza Bereziko irakasgaiak sartzea.
- NHBBZ.
  - Familientzako laguntza eta prestakuntza programa.
  - Laguntza sareak sortzea gure ikasleek parte hartzen duten eta euren bitzita garatzen duten zerbitzuen, departamentuen eta erakundeen artean.

### 2.3. Torre Monreal HBIPren erantzuna

- Irakasteredu partekatu bat proposatzea, oso desegokituta dauden eta higadura emozional pertsonal eta profesional handia duten kasuetarako. Hala badagokio, PTKo irakaslearen eta Hezkuntza Laguntzako espezialistaren artean partekatutako hezkuntza erantzuneko eredia, bi profesionalek gela barruan elkarrekin egiten duten lana eta eredu horretan sakontzeko beharra balioestea.
- Irakasleen egonkortasuna funtsezkoa eta negoziatzekoa da; erreferente egonkorra izan behar du ikasleentzat, eta JLPko esku-hartzean behar besteko jarraitutasuna eman behar du. Betetzeko zailak diren lanpostuak.
- Esku hartzeko ezohiko neurriak hartu behar diren kasuetan, aparteko baliabide materialak eta giza baliabideak hornitu behar dira: banakako arreta eta erregulazio gela.
- HBIak eta NHBBZ garatzen ari diren baterako lan sarea mantentzea, sendotzea eta bultzatzea, eta ikastetxe bakoitzean astean egun bateko maiztasuna berreskuratzea.
- Departamentuen arteko lan sare bat egituratzea modu instituzionalean, zuzeneko arretan diharduten profesionalekin (Osasuna, Hezkuntza, Egoitzak, Gizarte Eskubiak, etab.), kasu zehatzetan lan egiteko: baterako esku-hartzea koordinatzea (ikuspegi orokorra), erabakiak hartzea eta kasuen jarraipena egitea. Ongi legoke neurologo bat edo psikiatra erreferente bat egotea HBInko ikasleentzat.
- Ezinbestekoa da NHBBZren laguntza izatea, ikasle horietaz arduratzen diren irakasle tutoreak betetzen zailak diren lanpostuetan dihardutela aitor dadin. NHBBZ HBIn eta Hezkuntza Departamentuaren arteko lotura izatea.
- NHBBZren laguntza izatea hezkuntza, gizarte eskubiak eta/edo osasuna aztertzeko, erabakiak batera hartzeko, kudeatzeko eta/edo elkarriketatzeko, kasu eta egoera larrietan.

### 2.4. Andrés Muñoz Garde HBIPren erantzuna

Familiei bidea egiten lagunduko dieten lanbide profil berriak sortu beharko lirateke: terapeuta okupazionala, gizarte langilea, gizarte integratzaileak... familia ingurunean sor daitezkeen arazoak konpontzeko balio duten eta familien barruko bizikidetzaren giroa hausten duten figurak.

Funtsezko alderdiak: jokabide arazoak dituzten ikasleentz arduratzen diren profesionalen arteko koordinazio protokoloak diseinatzea; aldizka protokolo horien jarraipena egitea, inplementatu zirenetik programatutako erregistroen eta bileren bitartez; eta kanpo aholkularitza, kasu bakoitzean erabili behar diren tresnak norabide zuzenean eramateko.

Departamentuen arteko koordinazioak (Gizarte Ongizatea, Osasuna eta Hezkuntza) etengabea, eraginkorra eta arina izan beharko luke, kasu bakoitzarekin modu pertsonalizatuan landuko diren jarraibide komunak sortzeko, ikasle guztientzako orokortasunak alde batera utzita.

NHBBZren lanak barne hartu behar ditu etengabeko bilaketa, laguntza eta zaintza, gure ikastetxeak sakon ezagutzeko eta, hala, gure benetako eta eguneroko beharrak ulertzen eta ebazten dituzten profesionalak aurkitzeko.

Baliabideak: gure ikasleentzako curriculum bat sortzea eta prestatzea, berariazko irakasgaiak barne hartzen dituen eta zentzumenekin, erlaxazioarekin, gorputz-adierazpenarekin, egokitze gaitasunekin, norbera den moduan onartzearekin eta abarrekin lotutako jarduerak eskaintzen dituen.

**3. galdera: Hel diezaiogun jardunaldi hauen gai nagusiari: Jokabide Laguntza Positiboa. Ikastetxean hainbat egoera aurkitzen ditugu egunero. Zuen ustez, zer protokolo da ezinbestekoa gauzatu ahal izateko? Zer estrategia txertatu behar ditugu lorpen handiagoak edo hobekak lortzeko? Zein da NHBBZren zeregina prozesu honetan?**

### 3.1. El Molino HBIren erantzuna

Ikastetxeentzako LEGE ESPARRU bat behar da, jokabide desoreken aurrean nola esku hartu antolatzeko, protokoloak egitea erraztuko lukeen araudi batean islatutako paradigma eta irizpide komunitatikoak. Protokoloak izatea oso garrantzitsua da, ezinbestekoak baitira irizpideak bateratzeko eta erabakiak hartzeko.

Une eta egoeretara egokitutako hainbat protokolo mota egon beharko lirateke.

- Zentzura lehen aldiz joaten diren profesional eta pertsona guztiek ezagutu beharko lituzketen jarduketak gidak.
- Jokabide krisi larri baten aurrean esku hartzeko protokoloa, berehala eta eraginkortasunez jarduten lagunduko ligukena.
- Esku hartu duten eta krisi egoeraren bat bizi duten profesionalekin eta ikasleekin jarduteko protokoloa.
- Hainbat departamentu (Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerbitzuak) eta gure ikasleek parte hartzen duten erakundeak koordinatzeko protokoloak.

Estrategiei dagokienez, funtsezkoak dira prebentzioarekin eta prestakuntzarekin lotutakoak. Lantaldeari behaketa eta erregistro tekniken arloko prestakuntza espezializatua ematea, funtsezkoa baita jokabidea ebaluatzeko eta esku-hartzea diseinatzeko.

NHBBZren zeregina.

- Profesional teknikoek orientazioa eta laguntza ematea. Jokabide Programako ikastaro horietan egindako lana nabarmentzea, emaitza oso positiboak izan baitituzte.
- Laguntza hori ikastetxeetako lan eremu gehiagotara eta beste ikasle profil batzuetara zabaltzea.
- Berariazko prestakuntza, hezkuntza bereziko ikastetxe bateko profesionalen talde osoarentzat.

### 3.2. Torre Monreal HBIPren erantzuna

Hezkuntza Departamentu mailan, funtsezkoa eta premiazkoa da jokabide oso desegokietuei aurre egiteko arau bat prestatzea ikastetxe eta profesionalendako, esparru etiko eta legal egoki batean, euspen fisikoa barne hartuta.

Ikastetxe mailan, protokoloak diseinatzen jarraitu behar da, helburu hauek lortzeko:

- JLPren beharrei azkar erantzutea, neurri orokorrekin, plan pertsonalizatua prestatu arte.

- Beharretara egokitzeko antolaketa egitura malguak izatea.
- Irakasle eta familia berriei harrera egitea, ikasturtean zehar laguntza eta akonpainamendua emateko, betiere beharrezkoa bada (batez ere, krisi egoeretan).
- Informazioaren kudeaketa oso eraginkorra lortzeko.

JLPn lan egiten duten profesionalen sare bat sortu behar da, materialak, dokumentazioa, esperientziak, emaitzak eta abar partekatzeko.

NHBBZk zeregin nagusi bat bete behar du krisi egoerei aurre egiteko arauaren garapenean. Lidergoa, ikuspegia, aholkularitza tekniko aditua eta proposamen zehatzak eman behar ditu.

Instituzio mailan, NHBBZk eta Hezkuntza Departamentuak bermatu behar dute JLP behar duten ikasleek dagokien eskola testuinguruan dutela erantzuna, dagokion modalitate irizpideen arabera. Kontuan izan behar da jokabideak bakarrik –oso larria bada ere– ez duela hezkuntza bereziko ikastetxearen modalitatea zehaztu behar.

### 3.3. Andrés Muñoz Garde HBIPren erantzuna

Protokoloak eta estrategiak:

- Hezkuntza laguntzako irakasleek eta espezialistek Jokabide Laguntza Positiboari buruzko berariazko prestakuntza izan behar dute, ikastetxean sortzen diren mota horretako beharrei erantzun ahal izateko, eta, batez ere, ikasleekin lan sakona egin behar dute prebentzioaren arloan, krisialdirik egon ez dadin.
- Une bakoitzean egiten eta aldatzen diren dokumentuak zabaltzea eta praktikan jartzea. Gure kasuan, berriki itxi den Harrera Plana da azken adibidea. Ikastetxean lehenbizikoz sartzen diren pertsonen ikastetxea ezagutzen laguntzeko prestatu da plan hori.
- Esperientziak partekatzea hezkuntza bereziko beste ikastetxe batzuekin, bai tokikoekin bai estatukoekin.
- Datu baseak sortzea, emaitza onak eman dituzten edo berriak diren programazioekin edo esku-hartzeekin, bai eta ikasleengan ikaskuntza funtzionalak sustatu dituztenekin ere, gainerako profesionalok eskura ditzagun.
- Tokiko nahiz estatuko unibertsitateekin lan koordinatua eta elkarlanekoa areagotzea, egiten diren azterlan eta ikerketen zabalkundea errazteko eta handitzeko.

### 3.4. Isterria HBIren erantzuna

Protokoloak eta estrategiak:

- Protokolizatzea eta sistematizatzea.
- Behatzea. Jarduteko gakoa.
- Aurrea hartzea.
- Prebentzioa (lehen, bigarren eta hirugarren mailakoa). Ezinbestekoa.
- Koordinazioa.
- Programazioa.
- Ebaluazioa. Ebaluazio datuak eta portaerak.
- Ikasleen erantzuna ez da beti berdina.
- DATURIK GABE EZ DAGO ZIENTZIARIK.

- IKERKETA gehiago, zer alderditan lan egiten dugun jakiteko eta, hala, aurrera egin ahal izateko.
- UNIBERTSITATEEKIKO harremana.
- Azterlanetan aurrera egitea, zer adierazletan lan egin behar dugun jakiteko.

**4. galdera. Jokabide egoerek gainerako ikasle taldearengan eta hezkuntza komunitateko gainerako kideengan duten eragina funtsezko alderdi bat da. Zuen ustez, zer alderditan dira funtsezkoak esku-hartzea eta prestakuntza?**

#### **4.1. Torre Monreal HBIPren erantzuna**

Esku-hartzerako eta prestakuntzarako funtsezko alderdiak:

- Hezkuntza Departamentuak jokabideari buruzko berariazko prestakuntza bat planifikatu behar du, «Jokabide» profila egiaztatzeko aukera emateko eta ikastetxeek plan-tillen urteko zuzkiduran baldintza gisa eskatu ahal dezaten.
- Jokabideari buruzko prestakuntza txertatzea ikasturte bakoitzeko prestakuntza plan guztietan. Prestakuntza, honako arlo hauetan:
  - Jokabide Laguntza Positiboko planak prestatzea.
  - Jokabidearen analisi funtzionala egitea.
  - Jokabidearen kontrolik eza prebenitzea.
  - Jokabidearen kontrolik ezaren faseak ezagutzea eta fase horietako bakoitzean aldagaiak kudeatzeko gaitasuna izatea.
  - Euspen fisikoa, autobabesa.
  - Emozioak kudeatzea (norberarenak eta ikasleenak).
  - Gizarte gaitasunetan eta arazoen konponbideetan trebatzea.
  - Zeregin exekutiboak egitea.
  - Autokontrollean trebatzeko programak.
- Familiei prestakuntza ematea, familia inguruan JLPko planekin jarraitu ahal izateko.
- Esku-hartzea, betiere pertsona errespetatuz, ezagutzatik abiatuta, baina umiltasunez, erabakitasunez, baina heroismorik gabe. Prebentziora, babesera eta kudeaketa emozionalera bideratuta beti:
  - Prebentzioa: jokabidearen deskontrol prozesuko aldagai guztiak kontrolatzen saiatuz. Biziagotze fasean, egoera kudeatzea, desaktibatze eta leherketa fasera ez iristeko.
  - Babesa: jokabideak eztanda egiten duenean, ikasle guztiak babestu behar dira; horretarako, ebakuatu, tartean sartu edo eutsi eta autobabestu behar da.
  - Azkenik, kudeaketa eta laguntza emozional egokia egin behar da inplikaturako ikasle eta profesional guztiekin.
- LJP duten ikasleei dagokienez, etiketak kentzen saiatu behar dugu. Jokabidea ikaslearen premiazat hartu behar dugu, eta ez bere ezaugarri bakartzat.

## 4.2. Andrés Muñoz HBIPren erantzuna

Funtsezko alderdietako bat araudi juridiko eta legezko bat sortzea litzateke, edozein arrisku egoeratan parte hartu behar duten hezkuntza komunitateko kide guztiek babesa izan dezaten. Legedi horrek hedapen argia eta zehatza izan behar du, eta bertan jakinarazi behar da zer jarduera mota egin daitezkeen eskola eremuan, eta zer egoeratan.

Azpimarratu nahi dugu funtsezkoa eta lehentasunezkoa iruditzen zaigula prebentzio lana maila guztietan eta egoera guztietan egitea, krisi egoerak sailhesteko. Jakin badakigu ikaslearen ingurunean esku hartuz, egitura espaziala aldatuz edo denborazko egitura malgutuz prebentzio lan horretan laguntzen ahal dugula.

Esku hartu ondoren, uste dugu beharrezkoa dela laguntza psikologikoa eta emozionala ematea maila guztietan, eta behar bezala kudeatzea bizitako egoerek inplikaturako pertsona bakoitzarengan izaten ahal duten eragina.

Prestakuntzari dagokionez, uste dugu beharrezkoa dela egokitzapen gaitasunen, hezkuntza emozionalaren eta etikaren inguruko prestakuntza. Prestakuntza horrek tresnak eta indarrak emanen lizkiguke krisien ondorio posibleei aurre egiteko, haien arrastoa minimizatuta.

Jokabideari eta behaketa teknikei buruzko berariazko prestakuntzaren oinarri sendoa izan beharko genuke.

Askotan, egoera zaila dela eta, konfidentzialtasunaren garrantziaz hausnartu behar dugu.

Tutoretza lanen sare sendo bat sortu beharko genuke, ikasleek egokitzen jotzen dutena adieraz dezaten.

Interesgarria litzateke familiak inplikatzeko, gertatzen diren krisi kasuak jakinarazita, eta diziplinarteko lantaldeak sortzea, lan osagarriak eta antzekoak eginda, bizipenen ondorio negatiboak minimizatze aldera.

Era berean, hausnarketa taldeak sortu beharko genituzke ikastetxean, profesionalek, behar badute, horietara jo dezaten. Horrela, guztion artean ikasiko dugu krisi egoerekin bizitzen eta funtsezko prebentzio lanak praktikara eramaten, berriz gerta ez daitezen.

## 4.3. Isterria HBIn erantzuna

Alderdi hauek funtsezkoak izanen lirateke:

- Talde arduraduna finkatzea.
- Gertakari bakoitzerako protokolo espezifikoa izatea.
- Prebentzioari garrantzia ematea, sintomak detektatzea, aurrea hartzea eta behatzea.
- Prestakuntza jasotzea, behar bezala erantzun ahal izateko.
- Isterria HBIn, mikroprestakuntza dinamiko eta individualizatuak egitea. Batzuetan, sistema publikoko taldeen erantzuna motela izaten da (adibidez, larrialdietako taldeena).
- Laguntza emozionaleko mekanismoak garatzea, gertakari horiekin bizi behar duten profesionalentzat eta familientzat.

#### 4.4. El Molino HBlren erantzuna

Esku-hartzeari dagokionez, honako alderdi hauek iruditzen zaizkigu funtsezkoak:

- Eguneroko egoera ikasgelan: lasaitasun giroa eragozten duten eta ikasleek normalizat hartzen dituzten egoerak; ikasgelan eman beharko litzatekeen konfiantza. Ez da jokabide desoreka larririk gertatzen, baina bai luze irauten duten gorabeherak. Esku-hartzea egoera eragin duen ikaslearekin eta taldearekin eginen da, banakako programa eta zirkuituen bidez.
- Jokabide desoreka larrien kasuan, esku-hartzean, kontuan hartu behar dira jokabidearen lekua, ordua, iraupena eta intentsitatea.
- Desoreka jasaten duen ikaslearekin esku hartuko da, eta babesa ez ezik, erlaxatzeko gune bat ere eskainiko zaio, erlaxatzen laguntzeko elementuak izanen dituena: argia, musika, besaulkia... Laguntza psikologikoa eta erreferentziako profesionalena.
- Egoera bizi duten ikasleen kasuan, babesa emanen zaie (gunea hustea, oztopo fisiokoak, etab.), eta, gertaeraren ondoren, gune bat sortuko da gertaerak eragin dituen emozioak kudeatzeko (ikara, larritasuna, beldurra, mina, etab.). Erreferentziako tutore profesionalak bizipena komunikatzen eta jokabidea ulertzen lagunduko du. Arreta berezia jarri behar zaio minduta dagoen eta sentitzen duena komunikatzen ez duen ikasleari. Behaketa eta jarraipena egin beharko dira.
- Egoeran esku hartu duten profesionalen kasuan, erlaxatzeko eta atsedean hartzeko denbora emanen zaie, bai eta beraien sentimenduak adierazteko gune bat ere. Antolaketa malgua bada, beharrezkoa denean, egiturak sortzen ahalko dira.
- Profesionalen talde osoaren kasuan, beharrezkoa den informazioa emanen da, guztien artean lagundu ahal izateko, behar duten pertsoneri.
- Gure ikastetxean espazio eta jarduera asko partekatzen ditugu, eta ezinbestekoa da laguntza eta akonpainamendua eman ahal izateko informazioa izatea.
- Familien kasuan, gorabeheren berri emanen zaie, eta familia egituraren larritasuna sortzen duten uneetan lagunduko zaie, tutorearen edo psikologoaren bidez, bai eta Familia Orientaziorako Zentroaren bitartez, laguntza pedagogikoa eta terapeutikoa eskaintzen baitu.
- Ikuskaritza etikoarekin hasitako hausnarketa profesionaleko taldeak sistematizatzea, zalantzak eta dilemak azaltzeko eta egiten ditugun esku-hartzeak partekatzeko.

Prestakuntzari dagokionez:

- Egoera estresagarriak kudeatzea.
- Kudeaketa emozionala, ikasleei laguntza eskaini ahal izateko.
- Egoera horiek sortzen duten inpaktua balioetsiko duten tresnak sortzea.

#### 5. Mari Jose Cortésekin amaiera eman dio mahai-inguruari

Hiru alderdi nabarmendu nahi nituzke. Beti galdetzen diet ikastetxe publikoei eta itunpekoari zenbat erronka ditugun antolaketari, arretari, erantzunari eta abarri dagokienez. Ikastetxe guztiek aipatu dute prestakuntza behar dela kolektibo osoarentzat, eta familia-rekin harremana izatea garrantzitsua dela, inklusioa lortzeko. Bide hori bertan egotearen, parte hartzearen eta ikaskuntzaren bidez egiten da. Eskerrak eman behar dizkiet ikastetxe arruntetan dauden mota desberdinetako 50 ikasgelei, hezkuntza bereziko ikastetxeek

Mahai-Ingurua. Hezkuntza bereziko ikastetxeak: “Nolakoak izan beharko genuke 2025ean jokabidearen alorreko premiak hobeki artatzeko?”

egiten duten lan berdina egiten baitute, egoera jakin batzuei erantzunez eta arreta emanez. Espero dut Ramón Novellek proposatu digun sendagaia –azepeina– gure autonomia erkidegoko ikastetxe guztietako botika-kutxa guztietan egotea.

Eskerrik asko une honetan pandemiarekin borrokan ari zareten hezkuntzako profesional guztiei, eta, batez ere, egin dezagun irakasleen alde; Paulo Coelho zioen bezala, mundua amesteko eta ametsak bizitzeko arriskua hartzen dutenen esku dago.



# Amaiera eta ondorioak

Carlos Gimeno  
Hezkuntzako kontseilaria

Atsegin eta ohore handia da argitalpen honetan parte hartzea: NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN XXV. JARDUNALDIAK “JOKABIDE-LAGUNTZA POSITIBOA ETA HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK”.

Ez dut aukera galdu nahi alderdi epistemologiko eta etikoei buruz hausnartzeko; izan ere, alderdi horiek markatu behar dute Foru Komunitateko hezkuntza-administrazioaren konpromiso instituzionala.

Adimen-desgaitasuna duten eta jokabidea egokitzeko zailtasun handiak dituzten ikasleek argi eta garbi erakusten dute erantzukizuna daukagula, kudeatzaile gisa, gure eskola-inguruneak etorkizun inklusiboago batera eramateko. Lan horretan, gure hezkuntza proiektuak dira, ez ahaztu, ibilbide orri egokiena.

Jardunaldietan ikusi dugunez, jokabide-laguntza positiboa hasi da ondorio egokiak lortzen Nafarroako hezkuntza bereziko ikastetxeetan, eta garaia da, halaber, haren funtsezko eskemak eta haren zehaztapena gure hezkuntza-sistema arruntera estrapolatzeko. Horrela, ikastetxe espezifikoen gain, beste egitura batzuk gai izanen lirateke desgaitasun intelektuala duten ikasleen jokabide-premiei hezkuntza-erantzun egokia emateko, eta, gainera, sustatuko lirateke Nafarroako hezkuntzan lantzen ari garen eskema inklusiboak.

Ildo horretan ezbairik gabe aurrera egiteko jardunbide egokiak ezagutu ditugu, eta horregatik behar den babes instituzionala eman behar diegu.

Babes instituzionala, lehenik eta behin, egungo profil teknikoaren analisia egiteko, eta ikastetxe espezifikoko eta arruntetako langileen lana osatu eta aberastuko duten eragile berriak sartzearen komenigarritasuna baloratzeko, jokabide desegoki larriekin lotutako hezkuntza-premiak dituzten ikasleekin lan egiteak duen espezifikotasuna agerian utziz.

Nire asmoa da laguntza instituzionala gauzatzea; horretarako, Departamentuak neurriak aztertuko ditu, egungo araudiaren barruan, lanbide-egonkortasuna eta hezkuntza-



erantzunaren kalitatea hobetzeko. Helburua izanen da teknikoki akreditatutako profesionalek iraunkortasunez eta egonkortasunez artatzea ikasle horiek.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak, Inklusio Zerbitzuaren bidez, lanean hasi zen jokabide problematiko larrienei aurre egiteko prozedurak berariaz arautzeko, honako hauek babesteko asmoz: babes-neurri erreaktiboak behar dituzten ikasleak, ikaskide baten kontrol falta larriaren ondorioak jasan ditzaketen ikasleak, eta egoera kritikoetan esku hartu behar duten profesionalak. Pairatzen ari garen pandemiak beste egoera batzuk premiaz eta lehentasunez artatzeko eskatu zuen; nolana ere, jarduketa hauei berriz ekin zaie lege-babesik handiena bermatzeko, eta uste dut aukera ona dela nire konpromisoa berresteko.

Foru Komunitateko lau ikastetxe bereziek elkarren artean egindako lanaren emaitzek bultzatzen dute halako planteamenduekin jarraitzera. Hezkuntza Departamentuak, halaber, asmo handiagoko helburuak planteatu nahi ditu, denen ikerketa-intereseekin konektatzeko, eta hezkuntza bereziko ikastetxeak ikastetxe arruntetako beste egitura espezifiko batzuekin lotu, baliabide horiek dinamismoa sor dezaketelako familiek nahi duten inklusibitate-erregimenean.

Nire ustez, pandemia ezin dugu aukera on gisa ikusi; lazeria handia da, guztiontzako zorigaitza. Hala ere, irakurketa positiboak izan daitezke, hala nola departamentuen arteko espazioak diseinatzea. Batzuk egonkorra dira, beste arrazoi batzuegatik; adibidez, hezkuntzari eta osasunari buruzkoa. Dinamika horrek, jardunaldi hauetako eskakizunekin batera, egiturak, bideak eta mekanismoak ezarri behar ditu Hezkuntza Departamentuaren eta, besteak beste, Osasun Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendeko zerbitzuen arteko funtzionamendua arina izan dadin.

Ekarpen apal honetan, arau-proposamen berria, LOMLOE, nabarmendu nahi dut, uste baitut iritsi dela garaia profesionalek lege berriaren irakurketa serioa eta lasaia egin

dezaten, ikusteko zer ekarpen egiten dituen eta nola erabil ditzakegun ekarpen horiek hezkuntzaren, inklusioaren eta berrikuntzaren mesedetan.

Irakurketa horretan bereizi behar dira irizpide politikoei lotutako gaiak eta ezagutza zientifiko eta profesionalak (jardunaldi hauetan zabalduak, esaterako) bermatutako irizpide teknikoei lotutakoak.

Irizpide politikoak, gustatu ala ez, luzaroan eztabaidatuko dira gure gizarte plural eta askotarikoan, eta egokia da hala izatea; irizpide teknikoek, ordea, beren arauak dituzte eztabaida zientifiko eta profesionalaren barruan adostasuna bilatzeko, hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoa lasai eta positiboki bilatzen duen hezkuntza-arkitektura bat diseinatzen.

Illo horretan, legeak zenbait gai jasotzen ditu, hala nola familiek beren seme-alaben hezkuntza-premiei erantzunen dien erregimen inklusiboena aukeratzeko askatasuna erraztea, betiere adingabearen interes gorena lehenetsiz. Behartzen du baliabide gehiago jartzera, inklusibitatearen mesedetan, ikasle guztien presentzia, parte-hartzea eta errendimendua areagotzeko, baita ikasle kalteberena ere, ibilbide pertsonalizatuagoak, irekiak eta oztoporik gabeak ezarriz eta ebaluazioa neurrirra eginez.

Beraz, jar dezagun arreta legeak jasotzen dituen gaietan, gure hezkuntza-sistema eraldatzeko eta berritzeko gaitasuna dutelako, eta azter dezagun, nolahi ere, nola aberastu eta hobetu daitekeen hezkuntza-ikerketaren ekarpenekin eta gure erkidegoko hezitzaileen ezagutza profesionalarekin.

Hori egin du, jakina, Hezkuntza Departamentuak, Foru Komunitateko polemika artifizialak eta jarrera politiko behartuak alde batera utzita. Nire ustez, jardunaldi hauek eta Hezkuntza Departamentuaren babesa adibide bat dira. Beste adibide bat: ikastetxe espezifikoei zein ikastetxe arruntetan egiturak sortu dira, ez bakarrik haur eta lehen hezkuntzan, baita bigarren hezkuntzan ere, lurraldearen aldetik eskaintza kohesionatua izanik. Ikastetxe espezifikoei itundutako unitate berriak konpromisoaren adibide dira. Horrez gain, zenbait jarduera egin dira, hala nola Andrés Muñoz Garde ikastetxea zabaltzea edo Torre Monreal ikastetxeko sukaldeak eta estalkia berritzea, ikasleen baldintzak hobetzeko.

Legegintzaldia hasi zenetik, Hezkuntza Departamentuak interes berezia erakutsi du, gure ikastetxeak inklusibitate-eredu izan daitezen. Interes hori gauzatzeko, nabarmen handitu da ikasleen inklusiorako inbertsio ekonomikoa. Gure autonomia-erkidegoak irakasle/ikasle ratorik onena du.

2020ko martxotik aurrera izandako egoerak gaitzitu beharreko gabeziak agerian utzi ditu gure hezkuntza-sisteman. Horren guztiaren ondorioz, 2020-21 ikasturte honetan dagoeneko martxan zeuden programak indartu dira (hala nola HEZIGARRI eta Irakas-kuntza Partekatua), ekimen berriak abiarazi dira (PROA+ programa, kasurako), eta erabat aldatu da ikasleen etxeko arreta, hezkuntza-sistematik bertatik arreta koordinatuagoa eta kontrolatuagoa bermatuz.

Baliabide horiek guztiek berdintasun-arrakalak saihesten dituzten eta aukera-berdintasuna blindatzen duten arauak eskatzen dituzte; arau-jokaleku berriak, halaber, eskatzen du foru-arauak sustatzea NHBBZ, araudi orokorra eta hezkuntza-orientazioaren arloetan.

NHBBZri dagokionez, gure hezkuntza-sisteman espezializazio-maila handiena duen erakundea den aldetik, espero izatekoa da sortuko diren arauekin helburu hauek lortuko dituela: egikera guztiz inklusiboa gidatzea, lankidetzaren sustatzea eta artikulatzea, eta aholkularitza ematea informazioa, dokumentu-baliabideak eta prestakuntza eguneratua dituen sare batean.

Eskerrak eman nahi dizkiet jardunaldietan parte hartu duten hizlari eta profesional guztiei, bai eta ikastetxe guztien konpromisoagatik ere, denek astia atera baitute beterrik zegoen ordutegitik; nire ustez, merezi izan du, jardunaldien emaitza bikaina izan delako, jardunaldien kalitatea eta ospea ahoz aho ibili direlako, oihartzuna izan dutelako eta gai zientifikoak zabandu direlako. Asko dago egiteko, eta, bidean aurrera egiteko, beharrezkoak izanen dira aurrekontua, baliabideak eta gogoak.

# Amaiera eta ondorioak

**Manuel Martín**

Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria

Joan den ikasturtearen zati batekin eta gaur egungo ikasturtetik daramagun denborarekin, egungo garaia mugatu dezakegu, gizadi osoari eragiten dion eta gure ohiko bizimodua eta, logikoa denez, lan egiteko modua asko aldatzea eragiten ari den pandemia baten ondorioak eta arrastoak ezaugarri dituen garai bat, hain zuzen.

Hezkuntza eremua, egoera korapilatsu horretan, ez da salbuespena. Horregatik, hezkuntza eremuak jardun egin behar du, inoiz baino gehiago, bere bertsio bidezkoena eskainiz eta moldatzeko duen ahalmena ahalik eta gehien erabiliz.

Hezkuntzak gizarte moduan esku hartzeko eskatzen digu, asko kostatuko baitzaigu gaur egun bizi dugun egoera nahaspilatsua gainditzen asmatzea eta horretarako bide egokia zehaztea. Gizartean benetako aberastasuna haien jakintzan datza. Aberastasuna sortzearen dinamismoa ezagutzen berrikuntzatik sortzen da. Inbertsiorik onena, orain eta beti, hezkuntza, ikaskuntza eta ikerkuntza da. Konfiantza berreskuratu behar da, hori baita guztiari eusten dion zutabea. Eta hezkuntza sistemak bikaintasunaren alde egin dezan lortzea da bidea.

Ingurune poliedriko eta konplexu honetan, galdera asko sortu dira eta horiei aurre egiteko hezkuntza printzipio argiak, solidoak eta, jakina, etikoak erabiltzen ari gara. Inork ez digu ezer oparituko, aukerak landu egin behar dira eta etorkizunean ere landu egin beharko dira.

Bidegurutze honetan, esan daiteke funtsezkoak direla, alde batetik, administrazioaren zeregina sistemaren euskarri gisa eta, bestetik, zuzendaritza taldeena eskolaren engranajeko funtsezko pieza gisa.

Irakasleen, familien eta ikasleen inplikazioa, curriculumari jarraitzea, ikastetxeak hezkuntzagune berri batzuetara irekitzea, ikasleen, familien, irakasleen eta irakaskuntzaz kanpokoen emozioak lantzea, eskola inklusiboa eta abar ere funtsezkoak izan dira eta orain ere halaxe dira egoerari heltzeko.



Horren ondorioz, egoera berri eta aldakorretara moldatu behar izan dugu; hala, besteak beste, izandako konfinamendu luzearen premiei aurre egin behar izan diezue ikastetxe guztiek, eta aurrez aurreko jarduera segurua, arina eta ahalik eta normalizatuena izanen dela bermatzeko neurri zorrotz eta iraunkorrak aplikatu behar dituzue gaur egun.

Funtsezkoa eta beharrezkoa delako, eutsi egin behar zaio eskolak aurrez aurrekoak izate horri eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan, zuen ezaugarri bereziak direla medio, aurrez aurrekoak izate horrek beste eskakizun bat eskatzen dizue maila guztietan.

Egoera korapilatsu horiek guztiak gorabehera, gure hezkuntza sistema funtzionaraztea lortu dugu eta ekimen berri eta emankor aipagarriak bideratu ahal izan ditugu.

Ekimen horietako batzuei esker, adibidez, jardunaldi hauek egin ahal izan dugu, gaur amaituko ditugun eta covid-19ak eragindako egoerak ezarri dizkigun mugetako eta egoera ikaragarrietako batzuk arrakastaz gainditu dituzten jardunaldi hauek, hain zuzen.

Aztergai dugun esparruari dagokionez, 2019-20 ikasturtean, NHBBZk gure erkidegoko Hezkuntza Bereziko 4 Ikastetxeekin duen lankidetzaren –desgaitasun intelektuala duten eta jokabide problematiko larriak edo portaeraren nahasmenduak dituzten ikasleei buruzkoa– garatzen jarraitu zen Jokabide-laguntza Positiboaren esparruaren barruan.

Partaidetzako eta elkarlaneko testuinguru horretan, bereziki nabarmentzekoak dira ikastetxe espezifikoei eta NHBBZko teknikariek egin zenituzten baterako lan saioak.

Gainera, joan den ikasturtean, Nafarroako Eskola Kontseiluak topaketa batzuk antolatu zituen Hezkuntza Bereziko Ikastetxe guztietako profesionalekin, baita ikastetxe horietako ikasleen familiekin ere. Topaketa horiek oso baliagarriak izan ziren elkarrekin konektatzeko, eta, azken batean, azken lau egunotan partekatu dugun agertokiaren oinarri izan ziren.

Hezkuntza bereziko ikastetxeek egindako lanaren, Nafarroako Eskola Kontseiluak zuen hezkuntza komunitateekin zuen interesaren eta NHBBZk zabalduzako laguntzaren ondorioz, foro bat proposatzeko abagunea sortu zen, jardunbide egokiak trukatzeko eta

hausnarketak egiteko, ikastetxe horietan eskolatuta egonik beren moldatze gaitasuna hobetzeko laguntza bereziak behar dituzten ikasleei ematen zaizkien hezkuntza laguntzak hobetzeko moduari buruz.

2020-21 ikasturte honetan, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Jardunaldien hogeita bosgarren edizioaren ikuspegia eta antolaketa lantzerakoan, kontuan izan zen Jokabide-laguntza Positiboari eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeei buruzkoak izanen zirela.

Bien bitartean, NHBBZk elkarlanean jarraitzen du ikastetxe horiekin eta gaur egun gure komunitatean dauden 19 Ikasgela Alternatiboetara hedatzen hasi da elkarlan hori.

Jardunaldi hauek, azkenik, Nafarroako Parlamentuak Unai Hualde Parlamentuko lehendakariaren bitartez izan duen inplikazio handiari esker egin dira; baita hauei guztiei esker ere: Hezkuntza Departamentu Kontseilaritzatik, Carlos Gimeno jaunak emandako babes garrantzitsua; Hezkuntza Departamentuko zerbitzuen lan bikaina; Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen eta NHBBZren arteko lankidetzak konprometitua; Koldo Sebastiánek egindako aholkularitza, kontseilaritza eta gidaritza lan berezia; eta Nafarroako Eskola Kontseiluak maitasun eta inplikazio osoz egin duen ekarpena.

Zalantzarik gabe, honaino ekarri gaituen argudio garrantzitsuaren inguruan indarrak batzeko modu eredugarria.

Moldatze jokabidea garatzeko laguntza gehien behar duten ikasleen premiei erantzuteari dagokionez, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan egiten ari den lanaren berrikuspena eta hedapena sustatzea izan da gure helburua.

Foro horren ezaugarriak, besteak beste, bost ezaugarri bereziki garrantzitsu izan direla uste dut.

- Lehen ezaugarri gisa, aipatzekoa da foroaren espiritua eta zehaztasuna Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen barruko eta ikastetxeen arteko lan komunitariotik elikatu dela, eta lan horri NHBBZk planifikatutako eta sostengatutako lan teknikoak gehitu zaio. Indukzio lan hori du, zalantzarik gabe, oinarri. Lan horretan funtsatuta, egokia izan liteke beste egitura espezifiko batzuetan eta, halaber, gure sistemako sare arruntan, antzeko lana egin dezaketen elementuen transferentzia proposatzea, batez ere sistema horrek desgaitasun intelektualik ez duten ikasleen jokabide erronka gogorrei erantzun behar dienean.
- Bigarren ezaugarriari dagokionez, nabarmengarria da programari jardunaldiak eta erreferentziak pertsonen ekarpen magistrala gehitzeko aukera izan dugula. Pertsona horiek emandako hitzaldiei esker, Isterria, El Molino, Torre Monreal eta Andrés Muñoz ikastetxeen emanaldien balio pragmatikoari Carmen Márquez, Ramón Novell, Laura Escribano, Marcos Ortega eta Sergio Aguilera adituek gai horri buruz duten ezagutza sakona eta esperientzia handia gehitu ahal izan zaizkio.
- Nabarmenezkoa da, hirugarrenik, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan gertatzen ari den jokabide problematika larriari eman beharreko arretaren egungo egoerarekin loturiko ekarpenak bateratu direla eta, halaber, hausnarketa garrantzitsu bat egin dela, etorkizun hurbilera begira, hain ikasle kalteberei ematen zaien hezkuntza erantzuna ahalik eta gehien hobetzeko itxaropenarekin. Hor daude horretarako prestatutako

mahai-inguruan emandako argudioak, guztiok konprometitu behar gaituen etorkizuna eratzen dutenak.

- Laugarrena oso txalogarria da eta lehen ere aipatu dut. Topaketa honen garapenaren euskarri izan den erakundeen elkarketarekin lotuta dago. Horri dagokionez, aipatzekoa da hainbat erakunde eta entitatek Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXV. Jardunaldi hauetan landu den gaiaren inguruan izandako inplikazioa bateratzea lortu duela gure ikasleen sektore batek –zeina, portzentualki txikiagoa izanik ere, kualitatiboki oso garrantzitsua baita, eragin handia duelako–, eta horrek, inolako zalantzarik gabe, balio ukazina du. Horrek agerian uzten du gutxiengoaren kausa baten inguruan indarrak batzen direnean arreta emateko, gure gizarte osoak indartzen dituela bere balio onenak.
- Bosgarren ezaugarriak –azkenak– aurreko guztiak lotzen ditu eta, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeok jardunaldi honen amaiera gisa prestatu dizkiguzuen bideoak ikusten ditugunean egiaztatu ahal izanen dugun bezala, nahitaezko osagai batekin du zerikusia: sentsibilitatearekin, alegia.

Desgaitasun intelektuala duten pertsona batzuek, ingurunea moldatuta ez dutenean eta behar dituzten laguntzak jasotzen ez dituztenean, problematikotzat hartzen ditugun jokabideen bitartez erakusten dituzte beren premiak.

Badakigu portaera batzuek, hala nola nork bere burua zauritzeak, erasoek, kasketek eta jokabide estereotipatuak, testuinguru komunitarioetan sartzea eragotzi eta zailtzen dutela; beren eguneroko bizitzaren normalizazioari eragiten diotela; enplegurako, lanaren bidezko jarduerarako edo aisiarako sarbidea mugatzen dutela. Azken batean, ikaragarri baldintzatzen dute halako portaerek eraginpeko pertsonen bizi kalitatea eta haiekin bizi diren edo lan egiten duten pertsonena.

Jokabide-laguntza Positiboak pertsonari moldatutako bizitza izateko eskubidea proposatzen du, ez bizitza jakin batera moldatutako pertsona bat. Kasu guztietan, pertsona baten ezaugarriak edozein direla ere, hazten laguntzen dioten laguntzen alde egin behar da.

Horretarako, pertsona ulertzen saiatu behar dugu, bere ingurunean ahalik eta gehien parte hartzen lagundu behar diogu, bere gaitasun eta premiekin bat datozen aldaketak ezarrita, bere gaitasunak eta abileziak hobetuko dituzten jarduketak sartuz, eta moldatzeko duen ahalmena areagotuz ahaleginaren eta elkarreagin positiboaren bitartez. Eta hori ezinezkoa da sentsibilitateak inplizituki daramatzan errespeturik eta enpatiarik gabe.

Elkarrekin partekatu dugun denbora honetan ezagutu ahal izan dugun gai guztia laburbiltzen saiatzeko unea iritsi dela uste dut, Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXV. Jardunaldien ondorioztat har ditzakegunetan islatzeko.

**Nafarroako Eskola Kontseiluaren hogeita bosgarren Jardunaldi hauen ondorioak azaldu eta hamar multzotan antolatuko ditut, funtsezko edukiak modu koherentean eta ordenatuan biltzeko. Honako hauek dira:**



## 1. Alderdi epistemologikoak eta etikoak

Pertsona orok, gure lanaren xede diren ikasle guztiek, eta, bereziki, laguntza gehien behar dutenek, ahalik eta kalitate handieneko bizitza izateko eskubidea dute; kalitate hori, gainera, halakotzat hartu behar da subjektiboki.

Horretan dihardugun profesional guztiok konpromisoa dugu hori eguneroko bizikidetzaren egoera bakoitzean lortzeko ahal dugun guztia egiteko, betiere abiapuntutzat hartuta gure kalitatea alderdi biologikoak, psikologikoak eta sozialak orekatu behar dituen eraketa dela.

Desgaitasun intelektuala duten eta jokabidea moldatzeko zailtasun larriak dituzten ikasleak ez dira salbuespena. Horiek dira, ziurrenik, hobekien eta argien erakusten dituztenak, profesional, egitura eta sistema garen aldetik, alde aurretik diseinatutako eta estandarizatutako eskemak gaintzeko erantzukizuna dugula berariazko laguntza multzo zehaztu, haztatu eta antolatuaren alde aurre egiteko, moldatzeen ikuspegi ekologikoa izanik.

Jabetu behar dugu, banaka eta taldean, hauek direla ahalik eta etorkizun inklusiboena hartzen duten puntuak: batetik, pertsona horien duintasuna erabat errespetatzea; bestetik, gure eskola inguruneak haien ahalmenen nahitako anplifikadore bihurtu arte moldatzeko ahalegin ludiko eta ausarta direla; horrez gain, ulertu behar dugu puntu horietarantz joan behar dugula etikoki, teorikoki eta praktikoki. Eta gure Hezkuntza Proiektuak dira, ez ahaztu, ibilbide hori egiteko ibilbide orri egokiena.

Jokabide-laguntza Positibo baliogaitan, printzipioetan eta metodologietan oinarritutako erreminta kutxa da jokabide aldaketari laguntzeko eta ingurunea aldatzeko.

Etikan eta baliotasun sozialean oinarritutako aukeraketa bat da, premisa batean oinarritzen dena: portaera kezkagarriek erakusten dute gure sistemak gaitasun gutxi duela bereziak ez diren baizik eta ohikoak izanik ongi planifikatutako berariazko laguntza teknikoak behar dituzten premien aurrean jokatzeko.

Inguruneak eraldatzeko eta pertsonen nahiz haien familiei hitza emanez pertsona bakoitzaren gaitasunak sustatzeko jomuga duen ikuspegitik, honako hauek izanen lirateke erronkak:

- Ikasle batek bere burua kontrolatu ahal izanen balu, kontrolatuko lukeela onartzea. Gure laguntza behar du ikasle horrek norabide horretan aurrera egitea lortzeko, eta laguntza hori eman behar diogu, dituen betetze funtzioak sustatuz.
- Kontrol exogenoko prozedurak gaintzea ahalbidetuko duten eta pertsona horri ahalik eta autokontrol maila handiena berreskuratzea eta gauzatzea ahalbidetuko dioten planteamenduetarantz aurrera egitea.
- Horretarako, behar bezala aztertutako eta ongizatearen anplifikadore gisa diseinatutako ingurune laguntzaileak sortzea.
- Egoera kritikoenetan, erantzun erreaktibo ematea lortzea, ahalik eta intentsitate txikienarekin.
- Egoeren azterketaren funtsezko zati bat profesionalen jarduketan ardatzea.
- Teknikariak errealitatearekin harremanetan egotea erraztuko duen lidergo praktikoa sustatzea, errealitatea zuzenean ezagutuz eta ongi egitea sustatuz.

- Neurogarapenaren eta neurobiologiaren inguruko ezagutza eta horiek portaerarekin duten harremana areagotzea.
- Diagnostiko egokia, pertsonaren ezagutza sakona eta ikaskuntza ingurune eta egoeren jarduketa eraldatzaile, tekniko eta koordinatua lortzea.

Horretarako, jakina, gure funtzionamenduari buruzko hausnarketa sakona egin behar dugu, baita Jokabide-laguntza Positiboa aplikatuta bide zuzenean gaudela pentsatzen badugu ere. Emaitzak ez badira guk nahi genituenak, zerbaitetan huts egiten ari garela ohartu behar dugu eta beharrezkoa izanen da geure burua ebaluatzea hutsegitea aurkitzeko eta lehenbailehen zuzentzeko.

Dena den, Jokabide-laguntza Positiboa hasi da ondorio pozgarriak lortzen Hezkuntza Bereziko gure Ikastetxeetan.

Nahiz eta oraindik ezin den ondorio biribilik atera eta planteamendu epistemologikoen eta metodologikoen errotze sakon, iraunkor eta egonkorraz hitz egin ahal izateko bide luzea geratu, ondoriozta daiteke JLP aplikatzeak agerian uzten duela hobekuntzak izan direla ikasleen artean eta ikastetxeen funtzionamenduan.

Bestalde, Jokabide-laguntza Positiboaren jatorriak berak eta JLP Nafarroatik harata-goko hezkuntza ingurune normalizatueta ezarri eta aplikatu izanak aukera ematen dute pentsatzeko funtsezko eskemak eta zehaztapenak guztiz estrapolagarriak direla gure hezkuntza sistema arruntera.

Hori kontuan izateak funtzionamenduak aldatzen lagundu dezake, espezifikotik arruntera, ikasle guztien onurarako, haien gaitasun intelektualaren maila edozein dela ere.

Horrek ahalbidetuko du, halaber, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek ez hartzea desgaitasun intelektuala duten ikasleen jokabide premiei hezkuntza erantzun egokia eman ahal izateko egitura bakartzat, eta, gainera, lantzen ari garen eskema inklusiboak sustatuko ditu.

## 2. Jardunbide egokiak

Argi dago jarduketa egokiak hedatuz ildo honetan aurrera egin nahi badugu, beharrezkoa dela lagundu nahi diogun pertsonaren ezaugarrien eta bizi duen testuinguruaren azterketa zehatza egitea; landu nahi dugun egoera problematikoaren esparrua ezagutzea; portaera jakin baten oinarria agerian jarriko digun analisi funtzionala egitea; dagokion ikaslearen errepertorio moldagarria abian jartzea eta nahi ez diren jokabideak azaltzea eragozteko edo atzeratzea ahalbidetuko diguten neurriak prestatzea; eta egoera larriak gertatzen direnean modu babeslean eta eraginkorrean erreakzionatzera eramanen gaituzten jarduketan diseinua egitea.

Azken batean, prebentziozko jarduketa bat sortu behar dugu, krisi baten aurrean erreakzionatu behar izateko arriskua ahalik eta txikiena izan dadin, eta, estrategia erreaktiboak hedatu behar izanez gero praktikan jarri behar ditugun jarduketa egokienak zein diren ere zehaztuta izan behar dugu.

Ageria jarri da alderdi jakin batzuek oso ildo argiak ezartzen dituztela prebentziozko ikuspegi hori garatzeko: komunikatzeko eta interakzio soziala izateko gaitasuna handitzeko lan espezifikoa; bizikidetzaren inguruko lanak; espazioaren eta denboraren ahalik eta egituraketa onena ahalbidetzeko egiten den oro; arretaren kudeaketa ona sustatzea; emozioen autoerregulazioa areagotzen duten ariketen eta entrenamenduen bidezko

eragina; irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren funtzionalizazioa lortzen duen guztia; eta lotura afektiboen harreman loteslea eta indartzailea ematen duten gauzek.

Halaber, agerian geratu da prebentzio planteamenduak nahikoak ez direnean, gure estrategia erreaktiboak ezin direla inprobisatu eta ezin direla banakako boluntarismoan oinarritu. Aurretik pentsatutako, aztertutako eta antolatutako zerbaiten ondorio izan behar dute eta emaitza protokolo babesleetan, baliozkotuetan eta aztertuetan zehaztu behar da.

Metodologia hori sistematizatzeko eta eraginkor bihurtzeko modu bat da ikasle horien onurarako hartzen diren erabaki guztiak Jokabide-laguntzako Banakako Planetan islatzea. Plan horien edukia prestakuntza berezi eta arduratsu baten ondorioa izanen da, konfidentzialtasun printzipioa errespetatuko du eta zorrotz eta taldean gauzatu eta ebaluatuko da.

Eta hori ohikoak ez baina komenigarriak diren antolaketa formulak –hala nola irakaskuntza partekatua– alde batera utzi gabe, plan horiek ahalik eta modu eraginkorrean abian jarriko direla bermatzeko, batez ere gehien ahultzen duten kasuetan.

### **3. Profil eta alderdi profesionalak**

Portaera nabarmen moldakitzak dituzten ikasle batzuen ezaugarriak sofistikatu egiten dira premia kliniko-terapeutikoak eta/edo soziofamiliarak azaltzarekin.

Horrek zera esan nahi du, ikasleentzat onuragarriena izanen den erantzun integrala bermatzeko, zentzuzkoa dela balioestea justifikatuta ote dagoen premia horiek beteko dituzten eta gaur egun Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen egituraren parte ez diren profesionalen lana sartzea.

Horretarako, egungo profil teknikoak aztertu behar dira eta gaur egun ikastetxe espezifikotako plantillak osatzen dituzten langileek egiten duten lana osatu eta aberastuko duten agente berriak sartzea komenigarria ote den balioetsi behar da.

Nolanahi ere, badago oso kontuan hartu behar dugun zerbait: nahiz eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek nahasmendu psikiatriko jakin batzuk eta/edo gabezia soziofamiliar jakin batzuk izateaz gain desgaitasuna duten ikasleen premiei erantzun behar dieten, ikastetxe horiek, ororen gainetik, irakaskuntza-ikaskuntzako ingurunetzat hartu behar direla eta haien eginkizun nagusia hezkuntza dela.

Bestalde, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetako lana berezia dela nabarmendu da, are gehiago portaera nabarmen moldakitzak dituzten ikasleen kasuan; halaber, halako lanpostuetako dihardutenen lana gogorra dela eta nabarmendu da.

Gai horrek eragina du lanbide egonkortasunean eta eman behar den hezkuntza erantzunaren kalitatean, eta aintzat hartzeko modukoa da. Ildo horretan, komenigarria da kontuan izatea ikasle horiekin lortutako hobekuntzak oso lotuta egoten direla, hain zuzen ere, inplikaturako giza baliabideen espezializazioarekin eta egonkortasunarekin.

Beraz, komenigarria dirudi ikasle horiek teknikoki egiaztatuta dauden profesionalak artatu ahal izateko neurriak antolatzea, profesional horiek beren lana modu jasangarrian eta egonkorrean egin ahal izateko.

#### 4. Prestakuntza

Ikastetxe espezifiko bateko teknikarien eta profesionalen kidegoa osatzen duten pertsona guztien trebakuntza kidego horrek eskaintzen duen hezkuntza erantzunaren kalitateari eusten dioten giltzarrietako bat da.

Batez ere, premia bereziak izaki zailtasun eta espezifikotasun bereziko jarduketa behar duten ikasleekin esku hartu behar denean, are beharrezkoagoa da ikasle horien baliabideak sakondu eta eguneratzeaz gain, gaitasunak trebatzen lagunduko dieten prestakuntza-ekintzak garatzea.

Jokabide-laguntza Positiboaren funtsezko printzipioen inguruko oinarri sendoa emanen duten hobekuntza ildoak lantzea; etengabeko hausnarketa deontologikoa egitea eragiten duten edukiak; edo ezagutza neurozientifikoak edo epigenetikoak zabaltzea eragiten duten programak dira jardunaldi hauetan aipatu diren sakoneko prestakuntza bideen adibide batzuk.

Jardunbide zehatzen garapenarekin, bai jokabideen ebaluazioarekin eta analisiarekin bai esku-hartze prebentibo eta erreaktiboko estrategien aplikazioarekin, baita emozioen erabilerarekin eta kudeaketarekin lotzen den orok ere jardunaldi hauetan aipatutako prestakuntza alderdi aplikagarriago bati egiten dio erreferentzia.

#### 5. Arauketa

Gai bat behin eta berriz aipatu da jardunaldietan, eta, horrenbestez, garrantzitsutzat har daiteke: egoera korapilatsu eta zorrotzenetan jarduteko garaian ahalik eta lege babes handiena bermatzeko garatu behar diren jarduketei buruzko azterketak egin behar direla al bait lasterren, hain zuzen ere.

Bestalde, hezkuntza administrazioak jokabide problematiko larrienei aurre egiteko prozeduren erregulazio espezifikoa garatu behar duela ere aipatu da, nola babes neurri erreaktiboak behar dituzten ikasleak babesteko, hala ikaskide baten nahasmendu larriko gertakarien ondorioak paira ditzaketen berdinkideak babesteko, egoera larrietan esku hartu behar duten profesionalak alde batera utzi gabe.

Baliteke horren eraginez lege esparru jakin bat garatu beharra, halako larrialdi jarduketak babesteko helburua lehenetsiko duen eta errespetua eta proportzionaltasuna jarduketa horien izaera bereko elementu gisa azpimarratuko dituen, jarduketa egokiak gidatuko dituen deskribapen esparru baten barnean, intentsitate txikiko neurrien ikuspegiaren barnean...

#### 6. Familia esparrua

Argudio hau ere behin eta berriz aipatu da eta guztien ustez, hobetzeko marjina dago.

Argi dago ekimen jakin batzuen bidez aurrerapen zehatzak lortzen ari direla –zehazki, familia esparruaren eta lanbide esparruaren artean koordinatutako, elkarren osagarri gisako eta elkarri lotutako jarduketa bat gauzatzekoan–, eta halaber, familiek izan behar duten protagonismoa nabarmentzen ahal duten jarduketak inspiratzeko erakusgarri direla ekimen horiek.

Hori dela eta, ahalegin handiagoa egin behar da, ezbairik gabe, moldatzeko zailtasunak dituen ikaslearen inguruneetara Jokabide-laguntza Positiboa transferi dadin sustatzeko eta ahalegin hori behar bezala eratzeko prestakuntza ekintza zehatz bihurtzeko.

Horrela, laguntzagune ekologikoak eta sistemikoak diseinatuz, aurrerapen handiagoa eginen dugu baldintza egokiak errazteko helburua lortzeko, kalitate integraleko bizitzak eratze aldera.

## **7. Ikastetxeek elkarrekin sarean lan egitea**

Ikastetxeek elkarren artean gure komunitateko lau egitura espezifiko bidez egindako lanaren emaitzek halako plangintekin jarraitzea bultzatzen dute.

Badira, horri dagokionez, are ibilbide luzeagoa ahalbidetzen duten aukera posibleak, hala nola hauek: atzeraelikadura areagotzea; esperientziak, lan ereduak eta materialak elkarri adieraztea; eta dilema komunei buruzko hausnarketa eta analisisako taldeetan oinarritutako formatuak sustatzea. Halaber, helburu handiagoak –guztion ikerketa kezkekin zerikusia dutenak– proposatzeko aukera eragiten dute elkarren arteko erlazio horren ondorioek.

Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen eta ikastetxe arruntetan existitzen diren beste egitura espezifiko batzuen arteko lotura, eta, jakina, Nafarroatik kanpo egonik antzekoak diren eta duten dinamismoagatik edo berritzeko gaitasunagatik puntakotzat hartzen diren egituren arteko lotura elkar aberasteko aukera eman dezaketen bideak dira.

Argi dago ezin dela alde batera utzi sareko funtzionamenduaren kontzeptua, endogamia pedagogikoa gainditzeko aukera ematen duen ikuspegi batekin (elkar estimulatzen harremanak sortze aldera); halaber, lan argudio estrategiko bat izan behar du, hitzarmen egonkorren bidez gauzatua.

## **8. Departamentu arteko koordinazioa**

Ondorio hori oso hurbil dago aurreko puntutik konektagarritasun funtzionalari dagokionez, eta beste nozio bat ezartzen du: Osasun Departamentuaren edo Gizarte Eskubideen Departamentuaren mendeko zerbitzuekin funtzionamendu arina izateko egituren, bideen eta mekanismoen premia.

Ezinbestean ezarri behar dira ikasle jakin batzuekin lotutako elkarrekin gaitasunak gainditzeko lagungarriak diren formulak, eta komenigarritzat hartzen da baterako lana areagotzeko bide organikoagoak gara daitezela proposatzea. Ildo horretan, kanpoko esperientzietan erreferentzia bat bilatzea, beharbada, arestian adierazitakoa lortzeko behar den koordinazioa maximizatzeko urrats bat izan daiteke.

Pertsonok ez gara konpartimentu estankoen multzo hutsa, elkarrekin lotutako elementuen elkarketaren emaitza baizik, etengabe bilakatzen ari den osotasun bat, hain zuzen ere. Horrekin ados bagaude, bada, laguntza gehien behar dutenei eskaintzen dizkiegun zerbitzuen multzoak zeharkako plangintza harmonizatu eta dinamiko bati ere erantzun behar dio.

## **9. Sistematizazioa, ikerketa aplikatua eta berrikuntza**

Egiaztatuta geratu da halako portaera premiei erantzuteko egiten diren esku-hartzeei dokumentu trinkotasuna ematea, baliabide eta eskema argi eta arinetan oinarrituta, aurrerapauso bat dela erabakiak hartzeko, esku-hartzeak koordinatuta egiteko eta, geroago, jarduketak eta horien ondorioak ebaluatzeko.

Kontua ez da paperak hitz hutsekin idaztea, ezta asmo edo azalpen hutsalak dokumentatzea ere. Helburua laguntzen ari garen ikaslearen ongizatea sendotzeko estrategiak lehen pertsonan adieraztea da, nahi ez den egoera bat ekar dezaketen aldaketak iragarri edo susmatzen ditugunean nola jardun behar dugun deskribatzea ahalbidetzen duten estrategiak, hain zuzen, gure hutsegiteen edo mugen ondorioz jokabide problematikoa errealtate bihurtzen denean nola jardun behar dugun zehazteko ere balio dutenak.

Erregistro zorrotz bat sistematizatzeak eta egiteak oinarrizko ildo bat izateko aukera ematen du, baita analisi funtzional fidagarriagoa egiteko eta aplikatu behar diren erabakiak hobeki egituratzeko aukera ere. Gainera, aukera ematen du planteamendu esperimentaletan sostengatutako eta ebidentzian oinarritutako ikerketa-ekintzako ekimenak abian jartzeko behar diren funtsezko elementuetara hurbiltzeko.

Komenigarria da pentsatzea zer egiten ahal den hezkuntzako profesionalen artean garrantzi handiagoko ikerketa kezka eragiteko, eta zer aliantza behar diren hori metodo zientifikoko planteamenduekin egiteko.

Esate baterako, honako hau egin daiteke: portaera larriagoak dituzten ikasleen jokabide ikaskuntzen bilakaerak behar bezala ebaluatzeko adierazlek eta irizpideak identifikatzea eta aipatzea. Horretarako, unibertsitate sarearen laguntza izatea behar besteko berme eta zorrotzasuna duten dinamikak ezartzeko modu bat da.

Izan ere, erabiltzen ari garen baliabideak eta estrategiak zabalduko dituzten elementuak sartu nahi baditugu, normalean ezarritakotik haratago iristeko planteamendu eta mekanismo berriak bilatuz, behar besteko baliozkotzea eta erkaketa izan beharko ditugu.

## **10. Elkarlana Departamentuarekin eta NHBBZrekin**

Aurreko puntuetan jasota dauden eta Hezkuntza Departamentuaren eskumeneoak diren ekimen eta erabakien ondoriozko alderdiez gain, honako hauek ere aipatzen dira: alde batetik, curriculum espezifikoko baten eskaera, eta, bestetik, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeentzat EDUCA kudeatzeak dakartzan zailtasunak.

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroari dagokionez, gure hezkuntza sisteman espezializazio mailarik handiena duen erakundea den aldetik, aditzera eman da ikastetxeetako profesionalei laguntza tekniko kualifikatua emateko moduan egon behar duela, profesional horiek ahalik eta hezkuntza erantzunik egokiena eman diezaieten arreta berezia, bana-banakoa eta espezifikoa behar duten ikasleei.

Espero da NHBBZk lan egiteko modu bat gidatzea, elkarlanean egindako lana sustatzea eta antolatzea, eta aholkularitza, informazioa, dokumentu baliabideak eta prestakuntza eguneratua ematea.

2018ko irailaz geroztik Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen eta NHBBZren Jokabide Programen artean egindako lankidetzaren ardatza hauek izan dira: halako ikastetxeen antolaketan eta metodologian Jokabide-laguntza Positiboa ezartzen laguntzea; egoera larriak ikuspegi horretatik aztertzen laguntzea; prestakuntza ekintza espezifikoak egitea; eta egiten diren esku-hartzeak sistematizatzea.

Moldatze-portaeraren esparruan harreman horri buruz dugun pertzepzioak eta lortzen ari diren emaitzek adierazten dute komenigarria dela lan ildo horri eustea eta hedatzen jarraitzea.

Hori aberasteko, NHBBZren berezko lanari Hezkuntza Bereziko Ikastetxe guztiei dagokien esperientziaren eta ezagutzaren baliabideak gehitzen ahal zaizkio.

Ikastetxe horietako teknikarien zeregina indartuko du horrek, teknikariak lan egiteko duten moduak ikastetxe arruntetan kokatutako beste egitura espezifiko batzuetara hedatzea errazteaz gain, eta, portaera moldatzeko premiak dituzten ikasleei dagokienez ikasgela alternatiboekin gaur egun egiten ari dena osatuko da, adibidez.

Ondorioen azalpen argudiatua, bereziki egituratua, eta jokabide problematikoei eta horietan esku hartzeko moduei buruzko informazio garrantzitsua ematen diguten ekarpen nahiko zuhurrak, nabarmenak eta garrantzitsuak dituena. Jokabide-laguntza Positiboak testuinguru ezin hobea eta pertsonari egokitutakoa sortzea dakar berekin, beste hezkuntza egoera eta agertoki batzuetarako orokortu daitekeena. Lau egun hauetan hainbat gai tekniko lantzen ahal izan ditugu, printzipio teorikoenetatik hasi eta planteamendu praktikoenetaraino, eta gai horiek pertsonen portaera bi aurpegiko txanpon gisa ulertzeko modu batean sakontzea ahalbidetu digute.

Aurpegi horietako bat gure ikasleei garatzen lagundu behar diegun gaitasuna da, eta, hezitzaile garen aldetik, gaitasun hori indartzen, anplifikatzen eta orokortzen saiatzeko gure euste puntu nagusia da.

Beste aurpegi berriz, nahi ez diren jokabideak –moldakaitzak edo problematikoak– daude, eta horiek aldatzeko, murrizteko edo desagerrarazteko aukera ematen duen jarduketara bat behar dugu.

Guztiok jotzen dugu bi aurpegi horiek izatera, hein handiagoan edo txikiagoan.

Gure lanaren bidez lehenengoa hazarazteak eta bigarrena txikiagotzeak handituko du, hain zuzen, gure ikasleen bizi kalitatea.

Hezitzaile garen aldetik, ezin dugu inoiz ahaztu jokabide nahaspilatsuak dituen ikasle baten portaera funtsezko faktorea bada ere, funtsezko elementua dela –are garrantzitsuagoa, gainera–, gure portaera profesionala, gure emozioak, gure pentsamenduak eta eraketa horretatik gure laguntza planteatzeko eta zehazteko modua.

Garrantzitsua da ikasleek egiten dutena, oso garrantzitsua. Baina ez da garrantzi gutxiagokoa guk, profesionalak garen aldetik, ikasleek egiten dutenarekin egiten duguna.

Eta egiten dugun guzti-guztiak du eragina. Ez dago zalantzarik. Denak. Hor dago gure erantzukizun nagusia.

Aztergai dugu gaian sentsibilitatea garrantzitsua dela agerian egon da jardunaldi hauetan, hasieratik amaierara arte.

Baina ez dago sobera, ziur nago, sentitzeko pentsarazi diguten edukiei eskaini dizkiegun ordu hauen ondoren, minutu batzuetan, soilik pentsatzeko sentitzeko aukera ematea gure buruari.

Jarraian, agurtzeko mezu gisa, hezkuntza bereziko lau ikastetxeetako bakoitzak oparitu nahi digun bideoa ikusiko dugu, Jokabide-laguntza Positiboaren inguruko azken lau lanegunoi amaiera ezin hobea emateko.

Zaila da hitzak aurkitzea bideoak egiteko eta gaur hemen eskaintzeko egin duten ahalegina eta jarri duten ilusioa eskertzeko...

Gozatu haien sentsibilitateaz.

Uste dut egiten duten lan ordezkaezinagatik eskerrak emateko modurik hoberena dela.

**Bideoak:**

1. Isterria HBI.
2. El Molino HBI.
3. Torre Monreal HBI.
4. Andrés Muñoz HBI.



# Hizkariak

## **Sergio Aguilera Albesa**

Almerian jaioa, pediatra da, pediatra neurologoa eta Medikuntza eta Neurozientzietako doktorea Nafarroako Unibertsitatean.

2009az geroztik, pediatra eta neuro-pediatra gisa lan egiten du Nafarroako Ospitale-gunean, eta bertan ari da laguntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera gauzatzen. Nafarroako Unibertsitateko irakasle elkartua da 2015etik, eta gaur egun hainbat doktore-tesi zuzentzen ditu NUPen psikopedagogiaren, neuropsikologiaren eta epilepsiaren arloetan.

Ikerketaren arloan, Navarrabiomed-Fundación Miguel Servet ikerketa zentroko Neurologia Pediatrikorako ikerketa klinikoko taldearen koordinatzailea da. Nafarroako Espainiako zein nazioarteko hainbat elkarte zientifikotako bazkide aktiboa izateaz gain, Neurologia Pediatrikoko Espainiako Elkarteko Egiatzapen eta Irakaskuntza Batzordeko kide izendatu berri dute.

Aldizkari zientifiko indexatuetako 40 argitalpen baino gehiagotan eta 10 liburutako kapituluetan argitaratu eta parte hartu du.

Zerebeloari edo gongoil basalei eragiten dieten patologia neurodegeneratiboei eta medikuntza genomikoari buruzko Espainiako eta nazioarteko hainbat ikerketa-proiektutan parte hartzen du. Gaur egun, "Epilepsiaren azterketa eskola-adinean: zailtasun kognitiboak, errendimendu akademikoarenak eta bio-markatzaile pronostikoak" proiektuaren ikertzaile nagusia da. Proiektu horretarako eman zaio neurozientzietan ikertzeko Alicia Koplowitz Fundazioaren beka, 2019an.

## **Laura Escribano Burgos**

Logopeda da, Pedagogia Terapeutikoko espezialista eta Lehen Hezkuntzako irakaslea.

Komunikazio Sistemetan, Jokabide Laguntza Positiboan eta autismoan espezializatua Camarillo State Hospital-en (AEB, 1983), Hizkuntza Zeinatuan Benson Schaeffer-ekin

(1984), lizentziaduna Hanen programan (2002) eta Denver ereduan, Sally Roger-ekin (2008).

ALANDA elkarteak sortu zuen 1999an, eta taldeko zuzendaria izan zen harrezkero. Elkarrekin ingurune naturalean esku hartzeko metodologian espezializatuta dago, komunikazio-, hizkuntza- eta/edo jokabide-zailtasunak dituzten pertsonekin eta haien familiekin.

Bere ibilbide profesionalean, ikasgelako tutorea, Eguneko Zentroko zuzendaria eta Familiei Arnasa emateko Zerbitzuko koordinatzailea izan da CEPRI elkartearen (autismoa duten pertsonendako elkarte), eta hainbat proiektutan parte hartu du, hala nola egituratze espazio-tenporaleko PEANA programan eta Jokabide Laguntza positiboarekin esku hartzeko ARCADE programan.

Autismoari, desgaitasun intelektualari eta arreta goiztiarrari buruzko jardunaldi eta kongresuetan parte hartu du, eta honako gai hauek landu ditu: Hizkuntza Zeinatua, PEANA, autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonekin esku hartzea, Hanen eta GOMA programak, jokabide konduktibo positiboa eta desentsibilizazioa.

Era berean, irakasle izan da hainbat masterretan eta graduondotan.

Espanian nahiz Iberoamerikako beste herrialde batzuetan (Argentina, Mexiko, Txile eta Kuba) dagoen prestakuntza-premiak unibertsitate, fundazio eta elkarteekin lan egitera eramanez du, non neuro-garapeneko nahasmenduak eta jokabide-arazoak dituzten pertsonentzako eredu inklusiboak ezartzeko proiektuak garatzen ari den.

Hainbat artikulu espezializaturen eta argitalpenen egilea eta egilekidea da; horietako bat, "Alteraciones de la Conducta en personas con discapacidad" liburua, Pere Ruedak koordinatua, laster argitaratuko da.

## Carmen Márquez López

Psikologo klinikoa, autismoaren espektroko pertsonentzako laguntzen diagnostikoan eta diseinuan eta esku-hartzean espezializatua. Aholkularitza eta Antolaketa Garapeneko Prozesuen Kudeaketa masterra, Valladolideko Unibertsitatean.

Galiziako Autismo BATA elkartearen sortzaileetako bat, 1989an. Autismoaren espektroan pertsonen ematen zaizkien laguntzak kudeatzeko eta planifikatzeko zerbitzu eta programa askoren garapenean parte hartu du, detekzio eta arreta goiztiarretik hasi eta helduaroraino. Gaur egun, Autismo BATAko Haur eta Gazteen Arloko zuzendari teknikoa da, eta aholkularitza- eta koordinazio-eginkizunak ditu Ebaluazio eta Diagnostiko Unitatean, Ingurune Naturetan Laguntzeko Unitatean eta Familiari Laguntzeko Zerbitzuan.

AETAPIko (Autismoko Profesionalen Elkarte Nazionala) presidenteordea ere bada, bertako batzorde zientifikoko kidea eta hainbat lantaldeetako kidea.

Hizlari gisa, hainbat jarduera, hitzaldi eta ikastarotan parte hartu du, diagnostikora, autismoaren espektroko pertsonentzako laguntzak garatzera, ikasle oinarritutako plan-gintzara eta jokabidezko laguntza positibora bideratuak.

FEAPS – Plena Inclusión-eko zuzendarien eskolan ere ematen du prestakuntza.

Era berean, tutorea da Pedagogiako Practicumeko programetan (Ourenseko Logopediako eta Psikologiako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Eskola, Logopedia eta Psikologia).

Autismoaren espektoan pertsoneri eta haien familiei kalitatezko laguntza ematera bideratutako hainbat dokumentutan parte hartu du, hala nola "ARCADE proiektuan" (erronka handiko jokabideei laguntzea eta erantzutea).

Batez ere autismora eta garapenaren nahaste orokorretara bideratutako hainbat argitalpen ditu.

## **Ramón Novell Alsina**

Medikuntzan lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta psikiatrian espezialista.

Lan asistentziala egin du helduen psikiatria orokorrean, psikogeriatrian eta adimen-eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen psikiatrian, 30 urtez baino gehiagoz. desgaitasun intelektualeko Unibertsitate Magisterra Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Psikogeriatriako eta errehabilitazio geriatrikoko graduondoko diplomaduna, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Desgaitasun intelektualaren arloko profesional espezializatu gisa, bere esperientzia zabalaren barruan dago jokabide-arazoei eta gaixotasun mental ohikoenei aurre egitea. Hainbat laguntza-zerbitzu zuzendu ditu desgaitasun intelektuala eta jokabide-arazo larriak dituzten pertsonentzat. Gaur egun, Kataluniako Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntzarako Institutuko adimen-desgaitasuneko eta osasun mentaleko zerbitziburua da, Gironan.

Irakaskuntzan ibilbide handikoa izaki, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Kataluniako Nazioarteko Unibertsitateko Desgaitasun Intelektualeko Unibertsitate Diplomaturaren zuzendaria izan da. Irakasle gonbidatu gisa ikastaroak ematen ditu aldizka Gironako Unibertsitatean, Txileko Andrés Bello Unibertsitatean, Salamancako Unibertsitatean, Valentziako Unibertsitate Katolikoan, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta Espainiako eta atzerriko hainbat zentro publiko eta pribatutan.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen elkarteetako aholkulari eta aholkulari ere bada, hala nola, Plena Inclusión, AETAPI edo APAE, Brasilen, besteak beste.

Gironako Unibertsitateko Autismo Katedrako eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen osasun mentalaren arloko nazioko eta nazioarteko hainbat sozietatetako kidea da; horien artean, nabarmentzekoak dira National Association for Dual Diagnosis (NADD-USA) eta European Association for Mental Health in Intellectual Disability (EA-ID), non zuzendaritza batzordeko kide izan baita hainbat alditan.

Munduko Psikiatria Elkarteko Desgaitasun Intelektualaren Ataleko idazkaria ere izan da lau urtez. Desgaitasun Intelektualeko Profesionalen Espainiako Elkarteko sortzaile eta lehendakari ohia. Espainiako Gerontopsikiatria eta Psikogeriatriako Elkarteko ohorezko kidea.

Era berean, Bartzelonako Udaleko Desgaitasun Intelektuala duten Pertsonen Aholku Batzordeko eta Kataluniako Generalitateko Osasun Departamentuko Osasun Mentaleko Aholku Batzordeko kide da, desgaitasun intelektualari buruzko gaietarako.

Ikerketaren eremuan, Gironako Ikerketa Biomedikoko Institutuko Neuro-garapen nahasmenduei buruzko Ikerketa Taldearen koordinatzailea da. Talde horrek hainbat ildotan garatzen du bere lana, hala nola desgaitasun intelektuala duten pertsonen zahartzea, genetika buruko gaixotasunetan eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen jokabide-

arazoak, portaera-fenotipoak, dementziaren tratamendua Down sindromea duten pertsonengan, autismoa, loaren nahasteak, balorazio psikopatologikorako tresnak eta desgaitasun intelektuala dutenen kolektiborako zerbitzu-ereduen diseinua, besteak beste.

Aldizkari espezializatueta argitalpen askoren eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen osasun mentalari eta jokabide-nahasmenduei buruzko liburuen egilea da.

## Marcos Ortega

lruñekoa da, eta bere bizitza osoa Atarrabian bizi izan da. Enpresaburu autonomoa da, teknologia berrietan trebatua, aisialdiko eta denbora libreko titulazio espezifikoa du, eta prestatzaileen prestatzailea ere bada.

Txikitatik, magiaren munduarekiko erakarpena sentitu zuen, eta, bertan, ikastaroen eta prestakuntza autodidaktaren bidez, bere grina garatzea lortu du, magia lanbide eginez. Haur Magian espezializatuta dago.

Ilusionista gisa, lanean aritzen da ikuskizunetan, magiaren munduko prestatzaile gisa eta, berrikiago, coach gisa eta magoentzako sormen-proiektuen aholkulari gisa.

Boluntario-lanarekiko sentsibilitate berezia du, eta horren erakusgarri da Gurutze Gorriko boluntarioa dela duela 25 urte baino gehiagotik. Sociedad Española de Ilusionismo elkarteko kidea. Nafarroako Ilusionismo Elkartearen egungo presidentea. Ilusionista Profesionalen Zirkuluan 25 urtetik gorako antzintasuna duen bazkidea. Abracadabra de magos solidarios fundazioko boluntarioa, beste elkarte eta GKE batzuen artean. Gaur egun, magia tarteko gizarte-boluntariotzako hainbat proiekturen buru da. Duela bi urtetik hona magoentzako eduki sortzailea duten argitalpenen blog bat du, eta duela gutxi magoentzako online elkarrizketen plataforma bat sortu du.